

1. GAIA: BERPIZKUNDEA

SARRERA: ERDI AROTIK BERPIZKUNDERA

ERDI AROKO FILOSOFIA:

1 -Patristika (V arte). Kristautasuna eta filosofiaren lotura burutu ziren (erlijioaren arrazionalizatze nahia. Oraindik ezin da teologiaz hitz egin).

-Agustin (354.430): "Credo ut intelligam"

-400-800: garai iluna; ez dakigu gauza askorik garai honetan garatutako filosofiari buruz.

2 -Eskolastika (800-1300): teologia eta filosofiaren lotura. 800: Carlomagno enperadore bihurtzen da eta berak bultzaturik unibertsitateen eta Arte Liberalen (trivium eta quadrivium) garapena gauzatzen da.

-1209: Frantziskanboen sorrera (pentsamendu mistikoakoa)

-1216: Dominikoen sorrera (arrazionalagoak)

-Anselmo Canterburykoa (1033-1109). Eskolastikaren benetako hasiera. Agustindarra.

-Tomas (1224-1274): arrazoiari autonomia handiagoa ematen dio. Fedetik bereiztu arren, egia bakarra dagoela eta biek berdina bilatzen dutela aldarrikatzen du. Arrazoa mugatua denez, zalantza kasuan fedeak esaten duenari egin behar zaio jaramon.

ARISTOTELISMO TOMISTAREN KRITIKA:

1-Averroismo latindarra: Aristoteles arabieratik latinera itzultzean hasi zen garatzen. Ukatu egiten dute fedea eta arrazoa uztartu ahal izatea. Autore garrantzitsu bat: Siger Brabantekoa. Aurreko filosofo arabiarak: Avicena, Averroes, Maimonides.

2- Eckhart (1260-1327): oso mistikoa. "Jainkoa izatea da" (ez da berdina jainkoak izatea du). Ez du beharrik Jainkoaren existentzia frogatzeko; existitzen dela esatearekin nahikoa da.

ESKOLASTIKAREN AMAIERA: GILEM OCKHAMGOA (1280?-1348?)

Nominalismoaren aldekoa:

BERPIZKUNDEAREN HASIERA: NICOLAS KUSAKOA (1401-1464)

-Garaia/testuingurua: Platonismoa indartu egiten da kristautasunaren baitan, aristotelismoaren indarra balaztatzeko nahiak bultzaturik.

-Obra: "De docta ignorantia" (ezjakitearen jakitea; Sokratesen antzera)(1440):

1)Ezagutzaren teoria: sensus, ratio (kontzeptualagoa) eta intellectus (planteamendu

panteista). Kant. 2) “Coincidentia oppositorum”: aurkakoak direnak, berez, loturik daude eta osagarriak dira. Gauzak, berez, osotaunean daude oposizioan baino. Spinoza. 3) Infinituaren ideia: dena da infinitua, hots, kosmosa infinitua da. Giordano Bruno.

HUMANISMOA ETA FILOSOFIA ITALIARRA:

BERPIZKUNDEA EUROPAN

-Humanismoa: 1) Zizeronismoa (k.a. 106-43) 2) Humanismo italiarra: erretorikaren garrantzia 3) Humanismo alemaniarra/humanismo berria: Kanten ondoren

Oro har, sistema filosofiko handien garapenaren ondore garatu izan dira humanismoak (Platon, Sokrates, Kant, Hegel), beatez ere filosofiarekin zer egin dezakegun galdetuz eta, askotan, sistema handi horien aurka. Humanismo italiarraren aurka teologia sistematikoaren aurka.

-Trantsizio garaia: gizakia eta gizakiaren formulazioa garrantzitsu bilakatzen dira (tozentrismotik antropozentrismora, geozentrismotik heliozentrismora. Gauzen ikuspegiaren aldaketa). Gizartea dinamizatu eta ireki egiten da, Erdi Aro estatiko eta hermetikoarekin alderatuz. Hizkuntza bulgarren garapena: Dante, Lutero, Leizarraga. Erlatibismoa(sistema handien aurka, oro har absolutistak direlako): Montaigne, Erasmo, Tomas Moro.

BERPIZKUNDEKO FILOSOFIA ITALIARRA

-LITERATURA: hizkuntza bulgarren bidez literatura garatzen hasten da eta oso filosofikoa da literatura. Gizakiaren ikuspegi mekanizista baztertu egiten du.

-FLORENTZIAKO AKADEMIA PLATONIKOA(1459)

Aristotelismoaren garapenaren erantzun gisa Platon eta Plotinoren pentsamendua berreskuratu eta indartu egiten du Elizak (Tomas: fede eta arrazoiaren lotura arrazionala/ez-mistikoa Averroes: fedea eta arrazoiaren inkompatibilitatea). Adib: fedea eta arrazoiaren lotura mistikoagoa defendatu nahi dute.

Cosmo de Medicik sortu zuen. Fitxajeak: Plethon, Bessarion, Ficino eta Pico della Mirandola (garrantzitsuena. “Discurso sobre la dignidad del hombre”:gizakiak bere esentzia propioa ez duela eta, beraz, bere kabuz eraikitzen duela dioen ideia indartzen du). Denak platoniarrek eta kristauak.

Testuingurua: gaur egungo Italia Iparraldean hiri estatuak (Florentzia indartsuena) eta Hegoaldean Estatu Pontifizeak.

GIORDANO BRUNO (1548-1600)

-Dominikoa, baina planteamendu dominiko arrazionalistatik urrutik dago bere pentsamendua.

-NATURAREN FILOSOFIA:

-Nicolas Kusakkoaren eragina: natura infinitoa da

-Jainkoa infinitoa da eta natura bere sorkuntza denez natura ere infinitua izango da ondorioz. Ezin da natura sistematizatu zientziaren bidez, infinitua delako. Zientzia alboratu egiten du. Panteismoa garatzen du.

-Heliozentrismoa: Kopernikoren obra ezagutzen zuen.

-Natural /sobrenatural muga lausotu egiten du

-Obra: "Sobre el infinito, el universo y los mundos"

BERPIZKUNDE GARAICO FILOSOFIA POLITIKOA

-Testuingurua: feudalismotik absolutismorako saltoa egiten da. Botere zentralizatuak sortzen dira lur eremu zabalak kontrolatzeko (Espainia, Frantzia, Ingalaterra). Kontzientzia nazional eta linguistikoak sortzen dira (en parte hizkuntza bulgarren garapenak bultzaturik). Erreformaren eragina nabaria da politikan.

-MAKIAVELO

-1469-1527

-Florentziarra. Hiri estatu horren garairik oparoena ezagutu zuen. Florentzia Erromaren aurkako borrokaren burua zen (Cesar Borgia vs Lorenzo Medici)

-1513: "El Principe" Lorenzo Mediciri zuzendutako obra da eta printzearen eredua, hain zuzen, Cesar Borgia da. Etika eta politika guztiz aldendu egiten ditu Makiavelok

-Jean Bodin (1550): soberaniaren kontzeptua garatu zuen, absolutismoa defendatuz (soberania osoa erregearengan ipintzen zuen).

Johannes Althusius(1557): herriaren kontzeptua garatu eta soberaniaren zentrotzat jotzen du. Kontratu bidez soberania erregearengan delegatu ahalko da

Hugo Grocio (1583): zuzenbide naturala eta zuzenbide positiboa parez-pare jartzen ditu. Agintariek muga etikoen barnean gobernatu behar dutela aldarrikatzen du, legeak errespetatuz

BERPIZKUNDE GARAICO ERREFORMA ERLIJIOSOAK

Protestante: pro(aldekoa)+testare(testifikazioa). Ikuspegi ktolikotik kutsu negatiboa ezarri nahi izan zitzaion, protestarekin lotuz.

Testuingurua: 1054: berezitu egiten dira guztiz mendebaldeko eta ekialdeko eliza kristauak. 1309-1378: aldi berean bi Papa egon zire(Avignonen eta Erroman)

Erreformaren hasiera: 1517, Luterok Wittenbergeko elizako atean 95 tesi famatu horiek idatzi ondoren hasi zen. Eliza katolikoaren alderdi ezberdinak kritikatzeko zituen (ustelkeria, zergak, hainbat alderdi doktrinal...). 1530ean lehenbiziko eliza Ebangelikoa/Protestantea sortzen da (Ebangelioak esandakoa zuzenean ulertzea aldarrikatzen zuten, bitartekari eta

interpretazio arrarorik gabe). Fedeari lehentasuna emanaz Eliza Instituzioari eta apaizgoari bigarren maila bat ezartzen dio.

Calvino (1509-1564): Luteranoa izan arren, Ebangelikoengandik berezitu eta Eliza Erreformatua sortu zuen. Bere jarraitzaileei hugonote deitzen zaie (Erromatik jarritako etiketa negatiboa). Honi jarraiki Ingalaterran kuakeroak eta Alemanian pietistak sortu ziren.

NATUR ZIENTZIAK ETA METODO ZIENTIFIKOA

-Humanismoaren eraginaren ondorioz erlijioan eta politikan teozentristotik antropozentristorako saltoa dago eta natur zientzietan geozentristotik heliozentristorako bidea. Aurkako bideak dirudite, aurrenekoan erlatibismoa edo eszeptikotasuna indartzen da eta bigarreanean erantzun bakar eta absoluto baten nahia.

- Metodo zientifikoaren etorrera: behaketari garrantzia (Arisen izaera oso metafisikoaren aurka, baina ez Platonen alde), esperimendazio kontrolatua (esperientziaren bidez teoriak onartu edo baztertu egingo dira), hipotesiak (galdera bezala funtzionatuko du eta esperimenduaren bidez erantzungo dute), matematika, ikuskera mekanizista (teleologiaren aurka, natura organismo gisa ikusteaz uzten da)...

Errealitatea bere horretan ezagutu nahi da "gizakia gauza guztien neurria" dela dioen ideien aurka.

-KOPERNIKO (1473-1543): Polonia. Ofizialki heliozentrismoaren lehenbiziko defendatzailea da (K.a. IIIan Aristarko de Samosek ere proposatu zuen). "Sobre el movimiento de las esferas celestes": Ptolomeoren geozentrisimoaren aurka eta, beraz, erlijioaren aurka ere

-KEPLER (1571-1630): Alemana. Austriako enperadorearen matematikari ofiziala. Orbita eliptikoak planteatu zituen.

-GALILEO(1564-1642): Florentzian egin zuen lan, Estados Pontificiosen aurkako gatazkan zehar. Naturaren irudi matematikoa du.

-FRANCIS BACON (1561-1626):

- Filosofikoki sistematizatu nahi du metodo zientifikoa

-"Novum organum": Arisen "Organon" obran oinarrituz zientzia egin ezin dugula doi eta metodo berria proposatzen du.

-Idoloak=prejuizio okerrak. 1) Idola tribus: gauzak gizaki moduan ikusten ditugu 2) Idola specus(de la caverna): subjektibismoa, indibiduala 3) Idola fori: hizkuntzarekin lotua 4) Idola teatre: eskola edo korrante filosofikoek esandakoa ez dugu zertan aintzat hartu behar, autoritate sendoak izan arren

- Nola eraiki zientzia? Filo eta teologia bereiztu, mekanizismoa indartu, teologiaren aurka, silogistika aristoteliarrak ez du balio (indukzioa egin behar da).

2. GAIA: RAZIONALISMOA (MODERNITATEA)

ZER DA MODERNITATEA:

Modernitatea=subjektuaren filosofia (epistemologia). Modernitatearen aurretik zegoena: objektuaren filosofia (metafisika).

1. modernitatea (1600-1789): Descartes: abiapuntua sujetoa da ezagutzan
2. modernitatea (1789-1900) Kant: ezagutzaren abiapuntua eta erdigunea sujetoa da.

Berpizkundean humanismoa (aniztasuna) eta zientzia modernoa (bataasuna) garatzen dira. Descartes humanismoaren aurka eta zientziaren alde egongo da.

1) ZER DA RAZIONALISMOA?

- Kontzeptu zentralak: arrazoa (gizakia animaliatik ezberdintzen duena, argumentazioa eta logosa)

Antzinaroa: arrazoa errealitatea bere baitan ezagutzeko bitartekoa da. Erdi Aroan fedeak ezagutuko du arrazoiak bere mugengatik ezagutu ezin duena. Modernitatean esperimenduak arrazoa kuestionatu egingo du talka egiten dutenetan. Komunean: erantzun bakar baten nahia eta erantzun hori transmititu ahal izatea. Garaiek aurrera egin ahala desteologizazioa edo sekularizazioa eman da.

-Razionalismo kontzeptua. Psikologia: emozioak, borondatea, etab. Fuera. Epistemologia: aurkakoa enpirismoa. Metafisika: realismo enpirikoa (naturak beharrezkotasunez jokatzeko du eta inteligiblea da).

-Razionalismo kontinentalaren oinarria (Kanten aurrekoa):

- 1) Aurka: enpirismo britanikoa
- 2) Sistema deduktibo bat eskaini nahi dute apriorizko ideia batetik abiatuta, dena sistema horren baitan ulertzeko
- 3) Matematika: egia matematikoak berezko egia dira, razionalistek miresten dutena. Errealitateari aplikatu nahi diote logika eta matematika.

4) Eszeptizismoaren mamua:

-Montaigne (1533-1592). Frantziako Erlijio Gerretan mediazio lanak egin nahi izan zituen bando ezberdinen artean, ikuspuntu eszeptiko edo erlatibista batetik. Pirronismoa jarraitu zuen. Descartesek aurka egin zion.

- Charron. 1541-1603. Apaiz heterodoxoa: erlijioa eta etika berezitearen alde, Montaignereren ideiak jarraituz. Tolerantzia erlijiosoaren aldekoa eta panteisмотik gertukoa.

- Autoreak:

1) Descartes: modernitatearen aita. Dualismoa: existentsiak bi soportetara banatzen dira (res cogitans eta extensa)

2) Spinoza: Descartesaren garapen estatikoa. Monista da: substantzia bakarra dago, agerpen ezberdinetan.

3) Leibniz: Descartesaren garapen dinamikoa: pluralista da, "Monadologia": monas=unidad.

René Descartes (1596-1650)

-Berpizkundearen aurka (humanismoa) eta, aldi berean, alde (zientzia)

Bizitza:

-Frantziar jaioa

-La Flèche jesuiten eskolan ikasi zuen. Ondoren jurisprudencia ikasi zuen (zuzenbidea) eta ejerzitoan soldadu aritu zen lanean.

-1619: arrazoiaren bidez egia aurkitzea bere bizitzako misioa zela deskubritu zuen.

-Filosofia: uste osoa arrazoiaren baitan fidatu nahi zuen eta oinarria matematika zuen. Eszeptizismoari kritika eta planteamendu erlatiboaren aurkakoa

- 1633-34: "Tratado del Mundo": bukatzen ari zen obra urte horietan. Galileo urte horretan kondenatu zuten eta Desek antzeko ideiak defendatzen zituenez heliozentrismoari buruz, ez zuen publikatu ("por sincera sumisión a las autoridades eclesiásticas").

- 1628: "Reglas para la dirección de la mente"

-1637: "Metodoaren diskurtsoa": sarrera bat da beste obretan landutako gai zientifikoentzako

-1641: "Mediatio metafisikoa"

Descartesaren filosofia:

1) Abiapuntua: zalantza metodikoa. Helburua: Egiaren bilaketa, soilik arrazoia erabiliz. Egoa-sistema bat eraiki nahi du, egia guztiak bilduko dituen eta denak oinarri ahalik eta sinpleenetan funtsatuko dira. Filosofia zientifikoa eraiki nahi du. Erroak: metafisika, enborra: fisika, adarrak: medizina, etika, mekanika, morala, etab.

Zalantzan jartzen ditu garaia bitarteko egien oinarriak. Ideia nahasiak saihestu nahi ditu. Ideia argi eta bereziak (ebidenteak, $2+2=4$) nilatu nahi ditu eta ezagutzaren oinarriak ipini. Oinarriak: ideia zalantzaezin eta zatiezinak.

2) Metodoa: metodo bakarra, zientzia bakarra eta ezagutza bakarra eraiki nahi ditu. Lau pauso daude bere metodo analitikoan: aurreiritziak ezabatu, arazoak zatitu eta analizatu, berkonposizioa (sintesia) eta matematikaren bidez metodoa matematioki egiaztatu eta ordenatzea.

3) Zalantza: dena jartzen du zalantzan. Zalantza hori unibertsala, metodikoa, probisionala eta teorikoa da. Matematika eta logika ere zalantzan jartzen ditu, genio maltzur bat engainatzen egon daitekeelako Descartes bera.

4) Zalantzaren emaitzak: "COGITO ERGO SUM": Agustinek dagoeneko formulatu zuen berdina bere garaian (si fallor sum). Ondorioepistemologikoak: oinarri argi eta berezi horretatik abiatuz aurkitzen dituen egia ergi eta bereziak onartu egingo ditu; ideia innatoen teoria onartuko du; Cogitotik kanpora: Jainkoaren ideia argia eta berezia da eta, beraz, onartu egingo du eta Jainkoak sorturiko mundua, ondorioz, erreal da.

Nik badakit ni banaizela, Jainkoa badela eta Mundua badela.

5) Bi substantzien teoria:

- Substantzia oinarrian edo azpian dagoena bezala ulertu behar da. Def: existitzeko beste ezeren beharrik ez duena.

- Substantzia sortzaile eta infinitoa: Jainkoa. Substantzia sortu eta finitokoak: res cogitans eta res extensa (res=substantzia, soportea, "benetako gauza"). Behin Jainkoak sortu egin dituela, autonomoak dira Jainkoarekiko.

-Dualismo antropologikoa:

Aris: substantzia= materia+forma.

Gizakia res cogitans zehazten du hobeto, baina hain loturik dago bestearekin, ia berezi ezinak direla. Lotura glandula pinealean ematen omen da, espiritu (soplo)

animaliei esker (odolaren atal sutilenak dira eta glandulatik odolera eta alderantziz igarotzen dira, arima eta gorputzaren arteko lotura gauzatuz.

6) Ondorioak/ondoren:

-Erroman, Parisko unibetsitatean, Holandan, etab. debekatu egin zuten XVIIIan. Ilustrazioan oinarri gisa hartu zuten Descartes.

- Pascal (1623-1662): Descartes puntu bateraino onartu arren, ez du antropologia konpartitzen, ezta Jainkoaren inguruko ikuspegia (Jainko filosofikoa eta tradizionala bereiztea aldarrikatzen du). Hain arrazionalismo muturrekoari aurre giten dio, mistikoagoa baita.

-Malebranche (1638-1715): Descartes en ia guztia onartzen du. Okasionalismoa defendatzen zuen: ez zuen argi ikusten Descartes en bi res-en lotura eta, beraz, Jainkoaren interbentzioak gauzatzen du uneoro bere aburuz lotura eta ia bat bera dira bi substantziak.

Baruck Spinoza (1632-1677)

Bizitza/pertsona:

- Izena, Baruck: Benedicto izena hebraieraz da. Familia judutarrekoa da, Espainiatik Portugalera mugiturikoa eta, ondoren, Holandara. Bertan jaio zen Baruck.

-Hezkuntza judutar zorrotza jaso zuen

-Lana: pulidor de lentes

-1673: Heidelbergren katedradun lan egiteko eskaini eta ezezkoa eman zion asktauna murriztuo ziolakoan

1656: kanporatu egin zuten Sinagogatik. (Toki askotatik kanporatu zuten: el pensador maldito)

1663: "Descartesen filosofiaren printzipioak"

1670: "Tratado teologiko politiko"

1677: "Etika demostrada según el orden geométrico" (Etika=epistemologia, morala, metafisika, etab. Geometrikoa=matematikoa. Oso modu sistematikoan idazten du; sistema deduktibo bat eraiki nahi du; razionalismo ia ideala da)

Metafisika:

- Muina: substantzia bakarra (Deus sive Natura". Jainkoa=Natura, Ama Lurraren antzekoa)

- Abiapuntua: Descartes

-Substantzia bakarra eta infinitua dago (Jainkoa, natura naturans). Materia eta pentsamendua substantzia bakar horren agerpen, modu edo atributuak dira eta finitokoak dira (natura naturata). Descartesen garapen monista da.

Panteismoa: dena da Jainkoa eta berdina da Jainkoaz edo naturaz hitz egitea. Jainkoa inpersonala dela eta imanentzia aldarrikatzen du oro har panteismoaren bidez.

Nicolas Kusakoa: "Complicatio": gauza finitua bakarra. "Explicatio": munduaren alderdi ezberdinen azalpena, gauza finitua bakar horren parte direla aintzat hartuz.

Spinozak Jainkoari buruz duen ikuspegia guztiz aldentzen da ikuspegi tradizionaletik. Jainkoa errealitatearen osotasunari deitzen dio (naturari). Jainkoaren borondatea beharrezkotasun naturalarengatik ordezkatzen du. Hortaz, mundua ez da Jainkoaren borondate askeaz sortzen. Natura=cadena infinita de causas infinitas. Causa del ser es la propia naturaleza. Teologia ukatu egiten du, mekanizismoaren alde.

-Ezagutza mailak:

1) Sensoriala: gizakiak modu pasiboan eskuratzen duena. Ez da beti ziurra: "útil para la vida"

2) Razionala: aktiboki eskuratua. Kontzeptualizatuz lortzen da, lanketa eta analisiaren bidez.

3) Intuitiboa: holistikoa da: guztia konektatua egotearen intuizioa da. Ulertzen dugunean dena loturik dagoela aske sentitzen gara.

Antropologia:

-Monismoa: Des dualista da. Gizakia substantzia bakarrak osatzen du, substantzia infinituaren bi atribuzio direnak. Descartesen loturaren arazoa konpontzen du horrela. *Mente=idea del cuerpo*.

-Afektuen/pasioen teoria (gizakiaren portaeraren teoria):

- Conatus: bizirauteko eta garatzeko joera naturala da, izaki orok duena. Gizakiaren kasuan konszientea da. Conatus konszientea desioa da. Desioa betetzean poza edo atsegina izaten dugu eta hortik maitasuna eratortzen da. Desioa bete ezean, tristura edo mina eta hortik gorrotoa eratortzen da. (Psikoanalisiak bezala, giza portaeraren lehen kausa edo muina bilatu nahi du)

-Etika: askatasuna nola azaldu? Zerbait ona edo txarra da desioaren prozesuan lagundu edo kalte egin badu kontuan hartuz. Afektuak aztertuz ezagutuko dugu morala/etika. Askatasuna=halabeharrezkotasunaz ohartzea.

Gottfried Wilhelm Leibniz (1646-1716)

Bizitza:

- Hannoverreko jauntxoaren liburuzaina zen.

-Goi-mailako gizartean murgildua

-Harmonia: dena lotura harmoniko batean dagoela sinisten du (bide horretatik erlijio gerak konpondu nahi zituen)

-1700: Berlingo Arteen eta Zientzien Akademia sortu zen eta Leibniz promotorea izan zen

-“Enciclopedia humana” bat bezalakoa zen: oso alor anitzetan zen aditua.

-1666: “De ars combinatoria” (arte de combinar”

-1701-1709 tartean idatzi eta 1765ean argitaratua: “Nuevos ensayos sobre el entendimiento humano”.

Logika:

-Kalkulua: posible izan behar du kalkulu bidez modu sistematikoan egia aurkitzea (egia bilatzean okerrak egiten baditugu kalkulan egindako oker baten ondorioa izango da. Giza kontuetan bai). Entziklopedia bat sortu nahi du ezagutza zientifiko guztia sistema bakar baten baitan gordetzeko.

-Characteristica universalis: hizkuntza unibertsalak/logikoak posiblea izan behar du, arrazonamenduak unibertsalki ebaluatzeko.

-Hizkuntzak aztertzen ditu. Lehenbizikoa da hizkuntza guztiak aztertu nahi izan zituena, denek baitute zer aportatu bere ustez. Dena ezkontzerik badagoela sinesten du (harmonia).

Ezagutza: “arrazoi egiak” (logika, mate. Apriorizkoak eta analitikoak) eta “gertakari egiak” (empirikoak. Aposteriorizkoak eta sintetikoak) bereizten ditu.

-Ez dago adimenean esperientziatik ez datorren ezer, adimena bera salbu. Berezkoa dugu adimena bera eta adimenaren bidez arrazoitzeko gaitasuna. Predisposizio horrtean datza apriorizkotasuna.

- Panlogismoa eta substantziaren ideia: nola lotu unibertsala eta singularra? Badago kontzeptu unibertsala (gizakia) eta unibertsalaren ezaugarria dituen singularra (Imanol)

Metafisika: Monadologia

-Errealitatea monada izeneko substantzia sinpleenek osatzen dute. Modu metaforiko edo metafisikoan ulertu behar dira eta ez, ordea, modu fisiko edo logikoan. Monaden izaera aktibotasunean datza.

-Harmonia: monadak harmonikoki elkartzen dira gorputz konplexuagoak osatzeko. Harmonia horretan dena mekanismo baten barruan eta prozedura finalista baten baitan ulertu behar da

-Ideia innatoak: Lockeren ideia innatoei eginiko kritika modulatu egiten du. Baditugu - hainbat ideia innato adimenak errealitatea behatu gabe ezagutzen dituenak: izatea, substantzia, osotasuna, unitatea, kausa, etab.

-Christian Wolff: Leibnizen jarraitzailea da eta Leibnizen pentsamendua sintetizatu eta eskolarizatu zuen (ez oso modu egokian, okerrak sortu baitzituen Leibniz ulertzeko moduan. Ez zuen jaso Leibnizen izaera metaforikoa)

3.

GAIA: ENPIRISMOA

ZER DA ENPIRISMOA:

Kontzeptuak:

- *Esperientzia*: 1) Zerbait antzeman, kanpo errealitateaz ohartu 2) Zerbait antzeman zentzumenen bidez 3)Praktikarekin loturiko ezagutza 4) Judizio baten egiaztapena errealitatearekin kontrastatuz 5) Barne bizipena, esperientzia subjektiboa. Lehenbiziko lauak kanpo esperientziarekin lotzen dira eta bostgarrena barne esperientziarekin.

- *Enpirismoa*: 1) Modu psikologikoa: ezagutzaren jatorriari erreparatzen dio: esperientzia sensiblea 2) Epistemologikoa: ezagutza ororen baliozkotasuna esperientzian datza 3) Metafisikoa: soilik esperientzia sensibleaz hauteman daitekena da erreala. Errealitatearen inteligibilitatea soilik sensiblea da.

“Historia”:

- Antzinaroa: Aristoteles enpiristatzat jo daiteke Platonekin alderatuz gero. Epikurearrak eta eszeptikoak ere nolabait jo daitezke enpiristatzat gainontzeko eskolekin alderatuz.

- Erdi Aroan: Grosseteste: Oxfordeko eskolaren sortzailea. Roger Bacon: fede hutaren aurka, ohituren aurka, azientifikotasunaren aurka, matematika da zientzien fundamentua. Ezagutza esperientzian oinarritzen da eta natur zientziak esperientziarekin kontrastatu behar dira. Tomas Akinokoa: arrazoia eta fedearen banaketak kutsu enpirikoa ematen dio. Ockham.

Kanten aurreko enpirismo britanikoa (razionalismo kontinentalaren aurkakoa):

- Ezagutzaren abiapuntua: esperientzia enpirikoa. Berpizkundeko zientzia: indukzioari indarra (Bacon); honekin zientzia probablea dena aurreikusten ariko da, ez ziurra dena (eszeptizismoari bidea irekitzen dio). "Aurka": dedukzio matematikoa (arrazionalistak)
- Enpirismo britaniarraren aurrekaria: Hobbes (1588-1679). Descartesen garaikidea da. Francis Baconen idazkaria izan zen gaztetan. POLITIKA: Leviathan (oinarrian esperientzia duen planteamendu politikoa???? Gizakia errealitatean nola den aztertzen du)
- Zientziaren eragina:
 1. Boyle (1627-1691): Lockeren oso gertukoa, harremana izan zuten. Esperimentazioaren bidez planteamendu metafisiko finalistei aurre egiten die.
 2. Newton (1642-1727): bere ikuskera zientifikoak eragin zuzena du filosofian (Locke, Kant, etab.). Indukzioaren eta probabilitatearen garrantzia indartu zuen; Platonismotik urrundu, matematika natura aztertzeko instrumentua da errealitatearen oinarria edo zerizana zehazten duena baino, etab.
- Autoreak:
 1. Locke: enpirismo britaniar klasikoaren "aita". Lehenbizikoa da giza adimena esplizituki lantzen duena (zer da ezagutzea? Ideia kontzeptua lantzen du)
 2. Berkeley: Lockeren enpirismoa erradikalizatu egiten du. Substantzia materiala ukatu egiten du eta idealismora iristen da. Ari beretik hizkuntzaren filosofia

garatzen du)

3. Hume: Rousseuren garaikidea da eta harremana izan zuten (biak arrazionalismoaren aurka).

LOCKE, John (1632-1704):

Bizitza:

- Spinozaren adinkidea
- Grekoa eta erretorika ikasi zituen eta, alor horietan irakasle aritu ondoren, medikuntza ikasi zuen. Oxfordeko eskolan ikasi zuen: tradizionalki antiaristoteliarra (finalismoaren aurka, kausa finalaren aurka)
- 1688: Ingalaterrako Iraultza Lortuak: monarkia parlamentarioa ezarri zen monarkia absolutistaren ordean. Locke ideologoetako bat izan zen.
- 1689: "Giza adimenari buruzko entseia". Idatzi aurretik eztabaida handia izan zuen ezagutzaren inguruan eta obra eztabaidari egindako erantzun gisa ulertu daiteke.

Ezagutzaren teoria: (innatismoari eginiko kritikatik empirismoaren formulaziora).

- Innatismoa: hay ciertas ideas que pertenecen al alma del humano que no provienen de fuera (Platon: oroitzapena). Begiak itxi eta geure barnean bilatu behar dugu ezagutza, arrazoitik etorriko baita egia.
- Kritika innatismoari (Locke): innatoak badira unibertsalak eta zalantzaezinak izan behar dute (gizaki orok berdinak izan beharko lituzke), baina ikusi daiteke eztabaidak daudela eta, beraz, zalantzarik direla. Hala ere, badugu berezko gaitasun bat ideiak ezagutzeko. Tabula rasa: esperientziari esker geure adimen hutsa ezagutza eskuratuz doa.
- Esperientzia eta ideien lotura: ezagutzen dugu guztia esperientziaren bidez ezagutzen dugun horren ideia da. Ideia errepresentazio bat da. Esperientzia=ideia iturri bakarra (kanpo eta barne esperientzia biltzen ditu)
- Ezagutza=ideien arteko akordio edo desakordioa ulertzea (fitxa)

- Ezagutza graduak: 1) Intuitiboa: espirituak ideien arteko akordio edo desakordioa hautematen du bat-batekoan (de inmediato). 2) Demonstratiboa: arrazonamendu bidez eskuratutakoa 3) Sentsiblea: partikularrei buruzko ezagutza.
- Ezagutza motak: 1) Aniztasuana edo identitatea: ideia bakoitza espontaneoki ikus dezakegu bere buruaren identikoa edo ezberdina den 2) Erlazioa: proposizio bat eta beste baten artean dauden ideia intermedioak aurkitzeko gaitasuna 3) koexistentzia edo beharrezko konexioa: esperientziaren irismen berdina du. Ideia batek substantziaren ideia konplexua osatzen duen edo ez jakitean datza. 4) Benetako existentzia: ezagutza intuitiboa da, baina nork bere buruaren existentziaren inguruan duena eta guztiz ziurra da (Descartes)

Filosofia praktikoa:

1.

Etika:

- Asunto etikoak matematikaren parekatzen ditu, biak demostragarriak direla baieztatuz (ideal arrazionalista)
- Hedonismo utilitarista (Spinozaren conatus eta desioarekin loturik): naturalki atsegina dena bilatu eta atsekabea ekiditen dugu. Hori izango da balorazio etikoak egiteko irizpidea.
- Legeak: 1) Jainkozkoak: naturalak (apriorizkoak). Adib: hiltzea gaizki dago. Zigorra: zigor dibinoa. 2) Zibilak: Estatu batean adostuak. Ez dago jinkozko legeekiko kontraesanik, baina zalantza egonez gero, jainkozkoekin egin kasu. Zigorra: kartzela adibidez. 3) filosofikoak: iritzi publikoa: el qué dirán. Zigorra: gainontzekoen gutxiespena.

2.

Politika:

- Oinarrian: lege naturala (gizakiari propio dagokiona). Egoera naturala harmoniatsua bailitzan irudikatzen du.
- Kontratu soziala: lehen paktoa: gizarte antolakuntzaren osaketa lege naturala errespetatzeko eta boterea delegatu egiten da botere batean. Bigarren paktoa: botere banaketa.

-1688: Iraultza Lortuak. Monarkia absolututik monarkia parlamentariora. Locke parlamentu mixtoaren ideologoetako bat izanzen.

-Jabetza pribatuaren aldekoa, baina kutsu positibo batekin: indibiduo bakoitzaren garapena gauzatuko den eremua eremu pribatua da.

-Hezkuntza: bertutea eta gorputza landu, programaketa...

-Erligio politika: tolerantziaren alde, estatuak indibiduoaren erlijiosotasunean ez du esku hartu behar.

-D'Alambert: "Locke creó la metafísica al igual que Newton inventó la física". Metafisikaren ordeztu epistemologia jarri.

BERKELEY, George (1685-1753)

Bizitza

- Enpirista idealista da. Res extensa ukatu egiten du, res cogitans baino ez du onartzen.

-Apaiz anglikanoa da (gotzaia izan zen)

-Materialismoa kritikatu du interes erlijiosoaren alde.

Nominalismoa:

- Ideia abstraktuak (unibertsalak): zer dira? Nolako existentzia dute? Zer entitate mota dira? Entitate errealak ez direla baieztatzen du, nominalista da.

-1709: "Ensayos sobre una nueva teoría de la visión": gauzen ideiak ezagutzen ditugu. Gauzak hautematen ditugun moduan ezagutzen ditugu. Esentzia=pertzibitua izatea eta existentzia=pertzibitua izatea. Kanpo mundua ez da existitzen geure pertzepzioetik kanpo.

Adib: mahai bat existitzen da pertzepzioetik at, baina pertzibitua izateko potentzialitatean dagoelako.

-1710: "Giza ezagutzaren printzipioei buruzko tratatua": ez ditugu ideia unibertsalak ezagutzen, baizik eta indibiduo partikularrak. Unibertsal batean pentsatzen dugula uste arren, beti pentsatzen dugu indibiduo jakin batean. Nominalismo erradikala defendatzen du: unibertsala indibiduoarengatik ordezkatu arren, izen hutsa da.

FITXA: ezin da ulertu mundu materiala pertzepzioetik kanpo existentziari dagokionez; objektu materialak=zentzumene bidez hautematen ditugun horiek; objektuen

ezaugarriak (koloreak, tenperatura, etab.)= zentzumenen sentrazio, ideia edo nozioak; ezin da imaginatu mundu bat zentzumenetatik hautemandakotik kanpo.

Inmaterialismoa:

- Abiapuntua: Descartesen cogitua (ezin da zalantzan jarri). Soilik substantzia espiritual hori da errealia.

-Erljioa

HUME, David (1711-1776)

Bizitza

- Eskoziarra

-Rousseauren adin berekoa (1712-1778). Elkar ezagutu zuten eta biak kontsideratzen dira 1. Modernitatearen azken autoretzat.

- Zuzenbidea ikasi zuen. Edinburgon eta Glasgoven irakasle sartu izan nahi zuen, baina atea izateagatik kanpoan utzi zuten.

- 1739-49: "Giza naturari buruzko tratatua": giza natura

- 1748: "Giza ezagutzari buruzko ikerketa". Giza ezagutza.

- 1751: "Moralaren printzipioei buruzko ikerketa". Gia morala.

Giza adimenari buruz (ezagutza):

- Adimenaren edukiak: pertzepzio edo hautemateak (inpresioak eta ideiak).

Ezagutzaren oinarrian esperientzia dago (batez ere sensiblea). Hortik inpresioak datoz (kanpo errealitateak gudan edo gure gogamenean utzitako "arrastoa"). Inpresiotik ideiak datoz (inpresioen irudiak).

Eskema horretatik kanpo dagoen ideia oro, hau da, inpresio batetik ez datorrena eta, beraz, esperientziatik ez datorrena, sasi-idea izango da.

-Ideien inguruko lanketa/erreflexioa:

1) Memoria: ideiak berreskuratzeko gaitasuna da.

2) Irudimena: konbinatzeko gaitasuna da, ideiak erlazionatu eta, neurri batean, berriak sortzeko. Asoziazioz lotzen dira ideiak eta hiru asoziazio mota daude:

- 1) Antzekotasuna: gauza baten inpresioa dugunean, atzeko gauza baten ideia gogora etortzen zaigu
- 2) Hurbiltasuna: bi gauza beti elkarrekin ezagutu izan baditugu, bietako baten inpresioa edukitzean beste gauzaren ideia datorkigu (espazio eta denborazkoa da)
- 3) Kausalitatea: mila aldiz ikustearen onodrioz, zerbaiten ondorioa ikustean haren kausaren ideiaz gogoratzen gara (kea ikustean suaren ideia datorkigu)

- Ezagutza motak:

- 1) Ideien erlazio hutsak: logika eta matematika. Ez dute esperientziarik behar. Deduktiboak.
- 2) Izateko zerak/gertakarizko auziak: aposteriorizko ideiak (sintetikoak). Demostrazio enpirikoa behar dute. Induktiboak. Soilik iraganera begira induzitu daiteke; eszeptikotasunean erortzen gara indukzioaz etorkizunean hitz egitean (nola ziurtatu indukzio bidez bihar ziur aterako dela eguzkia?).

Metafisikaren kritika:

- Kausalitateari kritika: ezin da apriori ezagutu kausalitatea, baizik eta aposteriori (ezin da induiztu). Aposteriori jakin daiteke eguzkia atera dela, inola ere ez aposteriori.

Ez da printzipio metafisikoa kausalitatea (baliabide epistemologikoa da).

FITXA:

- Substantziaren errealitatea metafisikoaren kritika: substantzia (res) ideien multzo bat baino ez da. Res cogitansi buruz ezin da ezagutza terminoetan hitz egin; ideia hutsa da edo kontzeptu hutsa. Gainera, aposteriori hitze giten dugu substantziaz.

- Eszeptizismo akademikoa (vs pirronismoa)

Filosofia praktikoa:

- Etika: moralean paper garrantzitsuena arrazoiak eta sentimendu moralak dute (bigarrenak gehiago). Esperimentalki azaldu nahi du moralak edo etika. Zerbait ebaluatzean kontuan hartuko dena indibiduoari edo komunitateari atsegina sortzen dion edo ez izango da (norberarekiko maitasuna eta sinpatiaren bidez hurrenez-hurren). Modu intersubjektiboan eraikitzen dira legeak, kasu partikularretatik abstrakzioak eginez.

-Politika: kontratu soziala: gizakiok adostu egiten dugu gizarte batean elkartzea abantailak ekarriko dizkigulakoan: bake eta segurtasuna. Justizia eta obedientzia ezinbestekotzat ditu orden politikoa mantentzeko. Sinpatia ezinbestekoa da: Estatu osoaren ongizatearen alde egitea bultzatzen dubanakoa.

IV. GAIA: ILUSTRAZIOA

Sarrera: zer da ilustrazioa?

- Kontzeptua:

- "Argia" metafora gisa, arrazoiaren indartzearen metafora gisa.
"Luz" kontzeptuarekin du lotura. Adib: "Pertsona hori argia da", "Tiene pocas luces", "Es un iluminado".

- Antzinaroa: 1) Persia/Babilonia: argia=bizitza. 2) Grezia klasikoa: argia= ulergarritasuna. Platon: haitzuloaren mitoa. 3) Biblia: argia=Jainkoa.

-Erdi Aroan: 1) Agustin: "Hay una luz eterna de la razón". Argi horrek ulergarria dena ezagutzen laguntzen digu. 2) Tomás: nahiz eta arrazoiari autonomia eta enpiriari indarra eman, eskema bera mantentzen du.

- Modernitatea: arrazoimenaren autonomiaren indartzea.

- XVIItik XVIIIrako aldaketa. 1) Arrazoiaren ulertzeko modua. XVII: egia bat ezagutzeko printzipioa. XVIII: indarra da, eraldaketa soziala bultzatuko duena. 2) Filosofia egiteko modua. XVII: filosofo handi gutxi; sistema handiak eta garatuak. XVIII: filosofo txiki asko; filosofia dibulгатiboagoa eta ez-sistematikoa. 3) Kezka nagusiak. XVII: zientzia. XVIII: politika, gizartea, antropologia, etab.

- "Ilustrazioa" kontzeptu bihurtzen da. Berezko esanahi bat hartzen du XVIIIan. Arrazoiaren autonomia eta askatasuna alor orotan: kritikaren garrantzia, prentsa askatasuna, etab. Progresoarekiko fedea (askapena gertatuko dela sinesten dute)

- Ilustrazioaren garaiko filosofia.

- D'Alembert 1758 (fitxa): "cambio notable a nuestras ideas...nuestra época gusta de llamarse la época de la filosofía (filoren barruan sartu jarduera arrazional oro)...la filosofía ha realizado entre nosotros grandes progresos...se conoce, por fin, el verdadero sistema del mundo, desarrollado y perfeccionado...todo ha sido discutido, analizado, removido...una nueva luz se vierte sobre muchos objetos y nuevas oscuridades los cubren...". Metodo berria: analisis sistemaren aurka; Newton Descartesen aurka.

- Helburu orokorra praktikoagoa da teorikoa baino. Diderot: helburua=pentsatzeko modua aldatzea.

- Kasu berezi bat: Giambattista Vico (1669-1744): kontrakorriente doa. Humanistagoa da gainontzekoekin alderatuz gero. Gehiegizko arrazionalismoa kritikatzeko historia, hizkuntza, kultura eta natzeko alorren alde gehiago eginez. Gizakia produktu historiko, kultural eta linguistiko gisa ulertzen du: aniztasunaren aldekoa.

Ilustrazioaren garapen historikoa:

1.

INGALATERRAN: Ilustrazio frantsesaren inspirazioa.

- Locke (1688):

- Deismoa: erlijioa ulertzeko modua da: arrazoia eta fedearen arteko erabateko bereizketa.

- Aniztasunak eragina du bere pentsamenduan, Ingalaterran erlijio aniztasun handia baitzegoen.

- Sentimendu morala: apriorizko gaitasun batekin gauza bat ondo dagoen ala ez esan dezakegu.

- Adam Smith: sentimendu moralaren alde egiten du: sinpatia. Ia intuitiboa da morala.

- Enpirismoak indar handia du Ilustrazio honetan

2.

FRANTZIAN: Ilustrazio ingelesaren erradikalizazioa.

- Louis XIV, XV eta XVI: 1715ean, 1774 ean eta 1792an hil ziren, hurrenez-hurren. Absolutistak ziren. Horren aurka garatuko da Ilustrazioa.

- Entziklopedia: 28 tomo, 1751 eta 1780 artean argitaratuak. Ezagutza nola ulertzen zuten islatzen du: eraikuntza bat, finitua eta dena inteligiblea dela uste dute. Jakintza arlo itxia dela sinesten dute. Ideologoak: Diderot, D'Alambert, D'Holbach. Mentalitate kuadrikulatua dute.

-Panteismoa eta ateismoaren hedapena.

3.

ALEMANIA: Ilustrazio berezi bat.

- 1750 arte: Wolf (razionalista; Leibnizen eragina du). Gaiak: iusnaturalismoa (lege naturala. Lege zibilak eta politikoak lege naturalekin nola uztartzea da kezka nagusietako bat.

- 1740-1780: Federiko Handiaren erregealdiaren urteak dira. Filosofoa zen eta errege filosofotzat zuen bere burua. Oso tolerantia zen. Obra: "Antimakiavelo": 1740ekoa, frantsesez idatzia, Voltairek editatua.

Errege honekin ez zen iraultza beharrik ikusten, nolabait esatearren, jendea gustura zegoelako berarekin.

- Lessing: planteamendu deistaren alde. Jakobi: Lessing atea da. Mendelsson: ez da atea, erlijioa ulertzeko beste modu bat du.

- Ilustratu hauek politikaz ez zuten hainbeste idatzi Frantzia bezala.

- Kant: Ilustrazioaren "gailurra". Ilustrazioa= pensar por sí mismo, no es época ilustrada, pero sí época de la Ilustración".

Montesquieu (1689-1755)

Bizitza:

- Noble familiakoa, diruduna.
- Garaia: Louis XIV eta XVaren erregetza absolutistak ezagutu zituen, bere pentsamendu politikoa baldintzatuko zuena.
- 1688: Ingalaterrako sistema berriarekiko miresmena du Montesquieuk. Locke du eredu.
- Zuzenbidea ikasi zuen.
- 1721: "Cartas Persas": nola ikusiko luke pertsiar batek Frantziako egoera politikoa?
- 1748: "Legeen izpiritua"

Historia politikoaren ikerketa:

- Abiapuntua: soziologo positibista baten modura ulertu eta deskribatu nahi ditu modu konparatiboan gizarte ezberdinak. Sistema politikoaren marko eta testuinguruak eztertzen ditu guztien artean elementu komun bat aurkitzeko asmoz.
 - Helburua: historiaren filosofo gisa funtzionatzen du: gertakarien ulermen konparatiboa lortu nahi du (Newton du eredu: printzipioak ulertu nahi ditu). Nazio anitz orotan printzipio unibertsalek funtzionatzen dutela este du, ekintzen kausak direnak.
 - Bitartekoa: "Legeen Izpiritua": "Izpiritu": oso present egongo da Ilustrazio osoan edo gerora etorritako Erromantizismoan. "Izaera" edo "nondik norakoa" bezala ulertu behar da. Legeek erantzun egiten diote nazio baten izpirituari edo izaerari (erlatibismo legala ulertzen du hemen). Hortik abiatu behar da historiaren filosofia egiteko. Herri bakoitzak lege multzo jakin bat behar du eta politikariaren lanak horretara doitu behar du. Aposteriori zehazten du izpiritua; ez du esentzialismo bat garatzen.
- Tolerantzia eta erlatibismoaren aldeko argudioak ematen ditu bere obran (Pertsian edo Parisen heziak izanez gero, gauza ezberdinak desiratuko genituzke: ez dago zerbait ondo edo gaizki dagoen zerbait bere baitan).

Legeen azterketa:

- Faktore/baldintza naturalak:
- 1) Tamaina: herrialdeak handiagoak direnean monarkiarako joera dago; txikiagoak direnean errepublikarako joera.

2) Klima (zentzu oso zabalean ulertu behar da): geroz eta klima beroagoa, orduan eta sistema establegoak

3) Faktore sozialak: ekonomia, erlijioa, tradizioak...

Faktore horien gainean egiten da politika.

- Hiru gobernu mota:

1) Despotismoa (absolutismoa): printzipioa beldurra da gobernatzean (L'état c'est moi), erlijioak garrantzia handia du, ez dago konstituziorik, etab.

2) Monarkia (parlamentarioaz jarduten du, Ingalaterrakoa eredu duelarik): idealizatu egiten du Ingalaterrako monarkia parlamentarioa. Konstituzioaren arabera da. Gobernatzeko printzipioa: ohorea. Badaude tarteko botereak, ez dago pertsona edo talde batean aglutinaturik botere osoa.

3) Errepublika: printzipioa bertutea da. Bi mota daude: demokrazia eta arisokrazia (boterea zenbat pertsonaren eskutan dagoenaren arabera)

Botere banaketa eta askatasuna:

- Lockeren botere banaketa du eredu.

- 3 botere bereizten ditu: legegilea, betearazle, judiziala.

- Politikaren zeregina egoera klimatiko eta sozialera doitu behar da. Ideal baten forma inperfektu gisa ikusten du sistema politikoa.

- Askatasunaren defendatzaile sutsua da, botere banaketaren bidez lortuko dena eta legeak permititzen duena dela dio.

- AEBko konstituzioa eta Frantziar Iraultzako lehen konstituzioa Montesquieuren botere banaketan oinarritzen da.

- FITXA:

- Aniztasuna onartzen du, baina haren atzean uniformetasun bat bilatu nahi du.

- Iusnaturalismoa: lege positiboak giza erlazioen ondorengoak dira eta, beraz, gizartearen izaerara edo izipiritura doitu behar dira. Lege humanoak ez idra lege naturalak bezala: aldagarriak dira tokiz-toki eta askatasunari esker ez ditugu derrigorrez betetzen.

- Lege naturala errespetatuz egin behar dira lege positiboak.

- Lege eta gobernu mota hoberena kontestuaren arabera da izango da.

- Lege orokorra giza arrazoia da eta lege positiboak lege horren agerpen partikular pluralak dira.

- Askatasuna=lege positiboak betetzea, nazioaren izpirituaren arabera eraikiak baitira. Ezinbestekoa da askatasunaren alde botere banaketa burutzea.

VOLTAIRE, F.M. Arouet (1694-1778)

Bizitza:

- Familia dirudunekoa
- Jesuitekin ikasi zuen. Descartesez ez bezala, ez zituen bat ere gogoko.
- Louis XIVaren absolutismo gogorra bizi izan zuen. Feudalismoaren aurkakoa izan zen. Bastillan preso egon zen boterearen aurkako idazkiak argitaretzatik eta, aske geratu ondoren, Voltaire goitizenarekin hasi zen sinatzen. 1726ean preso egon ondoren, desterratu egin zuten eta Ingalaterrara joan zen. Bertako sistema politikoa mirestu egiten zuen. Bueltan, rekonziliatu eta erregeak estatuko historiagile izendatu zuen. Hala ere, arazoak itzuli eta Alemaniara joan zen bertako erregearekin harremanetan jarritz.
- 1734: "Gutun filosofikoak": Ingalaterrako bizipenen ondorioz idatzia.
- 1736: metafisikari buruzko tratatua Leibnizen aurka.
- 1764: hiztegi filosofikoa idatzi zuen

Dogmatismoaren kritika:

- Elizari kritika: dogmaren eta fanatismoaren definizioen bidez egiten dio kritika, besteak beste. Tolerantziaren definizioak ere aurka egiten dio elizari (katolikoa).

- Deismo ilustratua (sinisduna da, baina instituzioaren aurkakoa). Deismoa ateismoan (erradikala) eta teismoan (moderatua) bereizten da; deismoa tartekoa da. Voltairek teismo hitza erabili arren, deismoaren aldekoa da.

Deismoa=tiende a equiparar la ley divina con la ley natural. Segun los teistas hay una tendencia a impersonalizar a Dios y por ello acusan de ateos a los deistas.

Voltairek teismo erabili arren, deismora gerturaten da. Jainkoaren izaera pertsonala sinbolikoa del adio. Erlijio razionalaren alde egiten du. Lege natural perfektionatu gisa ikusten ditu lege naturalak. Erlijio ororentzako Jainko bakarra dagoela dio.

- Teodizeari kritika:

Tradizionalki: Jainkoa=ona, boteretsua, jakintsua. Hortaz, dena sortu eta gobernatzen badu, nola da posible injustizia?

Leibnizen teodizeari kritika sakona egiten dio. Aurka egiten dio filosofo horren gure mundua mundu posible guztietatik hobereena dela dien ideiare.

“Bien” (bere hiztegi filosofikoan)= lege edo mundu fisikoari dagokionez onartu egiten du dena ondo dagoela. Baina giza kontuei dagokionez ez: gaixotasuna, goseteak, injustiziak, etab.

1755: Lisboako lurrikara. Zientsifikoki kalkulaturiko lehenbiziko lurrikara izan zen. Nola ulertu gertakari hau erlijioaren ikuspegitik? Voltaire: Jainkoa gaiztoa da, ez zaio axola hainbeste jentzade hiltzea.

Kontraesana: progresoan (hobekuntzan, ongirako bidean) sinesten du, arrazoimenaren garapenaren bidezkoa.

Historiaren filosofia:

- Ilustrazioaren izpiritua: progresoa. Sinetsi egiten du arrazoimenaren erabilerak progresoa dakarrela. Ilustrazio garaia progreso garai gisa ikusten du. Beraz, aurreko garai historikoak gutxietsi egiten ditu (bereziki Erdi Aroa).

- “Historiaren filosofia” kontzeptu bezala: historiaren teologia kritikatzeko du, historia ulertzeko modu tradizionala izan dena (Bossueten historiaren teologiaren aurka). Arrazoimenaren garapen gisa ulertu behar dira gertakari historikoak, Jainkoaren borondate gisa.

Despotismo ilustratua defendatzen du: Monarkia absolutuaren moldaketa bat da, Ilustrazioaren eduki arrazionalen bidezkoa.

- Historia vs Filosofia: historiari garrantzia eman zion lehenbizikoa izan arren filosofiaren menpean ulertzen du. Historiak gauzak erakusten ditu filosofiaren edukiak bailiran. Filosofiak ematen du benetako jakintza (gertakari historikoak filosofiaren epifaniak dira).

- Nazioen izpiritua: nazioaren genioa: aposteriorikoa da. Nazio bakoitzaren izaera biltzen duen ohitura, tradizio, ezaugarri, etab. multzoa da (Geist). Izpirituekin adierazi nahi duena: parte más sutil de la materia. Metafora gisa ulertu behar da.

ROUSSEAU, Jean-Jackes (1712-1778)

Bizitza:

- Humeren adinkidea.
- Ginebrakoa (Suiza). Gaztetan Parisera joan zen, baina ez zen inoiz ondo integratu.
- 1750: "Zientzia eta artei buruzko diskurtsoa"
- 1762: "Emilio, edo hezkuntzaz" eta "Gizarte hitzarmena"

Hipotesia: gizakiaren natur-egoera askea da

- Ilustrazioaren progresoarekin gizaki naturalaren askatasuna galdu izana kritikatzeko du (zientziaren eta arteen bidez bereziki). Gizaki artifiziala ez du begi onez ikusten.
- Zientziarekiko oso kritikoa da. Giza bizioetatik eratorritako dela dio.
- Gizarteari kritika: Amour de soi (autoestima. Egoera naturalen nagusia. Kontzientzia) vs Amour propre (heteroestima. Artifiziala. Reputación. Itxurari ematen zaio garrantzia. Hau gordinean ikusten du Parisen).
- Gehiegizko arrazionalismoa kritikatzeko dio gizarteari.

Naturarako itzulera:

- Progresoa ez da gizartean emandako aurrerapenen multzoa Rousseuren arabera, baizik eta egoera naturalera edo jatorrira itzultzea.
- Nola da posible izaera natural hori berreskuratzea? Posible da gizartearen korrupzioaren historia bat egin daitekeelako eta, beraz, aurretiko egoerak existitu behar zuten.
- Hipotesi gisa planteatzen du egoera natural hori itzulera aldarrikatzeko. Egoera naturala irizpide **normatibo** abstraktu bezala uler daiteke, egoera artifiziala iraultzeko.

Helburua:

- Galdutako askatasuna berreskuratzea da helburua.
 - Lehen esparrua: hezkuntza ("Emilio"). Hezkuntzak birproduzitu egiten ditu gizarteko arauak, ohiturak, etab. (kaltegarriak direnak giza naturarentzako).
- Haurrak bere kabuz ikasi behar duela aldarrikatzen du (barrutik atera behar du formakuntzak; hezkuntzak bideratzen baino ez du lagundu behar). Hezkuntza negatiboa proposatzen du: trabak kendu behar zaizkio haurrari bideak irekita izan eta autogarapena ahalbidetzeko.
- Bigarren esparrua: gizartea/politika. "Hitzarmen soziala". Hemen ere hipotesi bat planteatzen du: gizakiak berez nolakoak diren irudikatuko du gizarte ordena justifikatuko duena. Naturaz askea dela defendatzen du. Kontratu sozialaren bidez galdu egiten du askatasun naturala, baina komunitate batean sartzen denean

askatasun horren ekibalentea lortzen du eta, gainera, indar handiagoa lortzen du indibiduo bakoitzak daukana kontserbatzeko.

Trantsizio autorea da: Ilustrazioaren eta Erromantizismoaren tartekoa.

5. GAIA: KANT

Sarrera

Aurkezpen orokorra:

1) Bizitza:

- 1724-1804 (Königsberg).

- Irakasle pribatua izan zen ikasketak amaitu eta lehenbiziko urtetan eta, ondoren, unibertsitatean sartzea lortu zuen.

- Pietismoan hezia. Jaso zituen balioak: erakundearen aurka, autonomia, norbanakoaren garrantzia, etab.)

- Unibertsitateko ikasketak: hebreoa, grekoa, latina, mate, poesia, filosofia, zientzia naturalak, etab. Oso pluralak.

- 1755ean Unibertsitatean sartu zen irakasle laguntzaile bezala eta chico para todo bezala funtzionatzen zuen: geografia, mineralogia, mate, filo, etab irakasten zituen.

1770ean Metafisika eta Logika katedra eskuratu zuen.

-1781: "Arrazoimen hutsaren kritika". Hemendik aurrera hasten da bere filosofia propioa garatzen.

- Pertsona berezia: razionaleria (sentimentalismoen, karitatearen, etab aurka.) eta oso metodikoa (ordua).

- Iraultza Frantsesaz oso pendiente zegoen.

2) Kanten garrantzia:

- Ontofiliatik epistemofiliarako saltoa ematen da kantekin. Metafisika egitetik epistemologia egitera. Sujetua bilakatzen da ezagutzaren abiapuntu eta erdigunea. Razionalismoa eta enpirismoa lotu egiten ditu, baita Ilustrazio Frantsez eta Alemana ere.

- Kanten galkderak:

1: Zer ezagutu dezaket?

2: zer egin behar dut?

3: zer espero dezaket?

4: zer da gizakia?

Azkeneko galderak aurreko hirurak biltzen ditu, azkeneko hiruen erantzunak gizakia zer den zehazten baitute. Horregatik ez zuen azkeneko galderari buruzko obra idatzi.

3) kritizismoa:

- Gainditu nahi dituen eztabaidak: arrazionalismoa vs enpirismoa eta dogmatismoa vs eszeptizismoa

- 1. pausoa: Iraultza kopernikarra: fokua objektutik subjektura mugitzen du. Ontofiliatik epistemofiliara.

Ilusio metafisikoa=objektua bere baitan dela eta ezagutzen dugula pentsatzea (ontologia klasikoa)

Filosofia trszendental= ezagutzeko modua aztertu behar da (epistemologia). Objektuak entendiendura egokitzen dira.

- Konponbidea: 1) Dogmatikoak. Alde: badago egiazko ezagutza. Aurka: ezin da gauza bere baitan ezagutu. 2) Eszeptikoak. Alde: ez dago gauzen ezagutza absoluturik. Aurka: posible da gauzak guretzat nola diren ezagutzea. 3) Arrazionalistak. Alde: apriorizko formarik gabe ezin da ezagutu. Aurka: forma horiek ez diote ezer errealitateari buruz. 4) Enpiristak. Alde: ezagutza oro esperientzian hasten da. Aurka: ezagutza guztia ez dator esperientziaz.

- Ateratzen duen ondorioa: proposizioak izan daitezke: 1) Apriorizkoak eta analitikoak 2) Aposteriorizkoak eta sintetikoak 3) Apriorizkoak eta sintetikoak

Garai prekritikoa (1781 arte):

1746-55: jauntxo dirudunen etxeetan irakasle pribatua.

Razionalismoari hainbat kritika egin zizkion: 1) Espazioa: res extensa den ideiarene aurka eta Newtonengan oinarrituz espazioa objektuen aurretikoa den ideiarene defentsa. 2) Kausa eta arrazoiaren bereizketa (errealitatea eta logikaren bereizketa; existentziaren eta predikatuaren bereizketa).

1755-70: "chico para todo" unibertsitatean.

1771-81: 71n Logika eta Metafisika katedra.

1764-66: Hume eta Roussearen obrak sakontzen hasten da. "Hume izan zen lokuluxka dogmatikotik esnatu ninduen lehenbizikoa". "Rousseau me ha abierto los ojos (etikari)". Printzipio moralak barrukoak direla ikusten du Roussearengan.

1769-70: argi handi bat ikusten du: giza ezagutza beti da aktiboa, subjektuaren menpekoko delako (adib: non daude paralelo eta meridioak?). Espazioa eta denbora forma idealak eta subjektuaren menpekoak direla deskubritzen du.

Garai kritikoa (1781etik...)

- Garai prekritikotik kritikora igarotzea=ontofiliatik epistemofiliara igarotzea.

- Obrak:

1) "Arrazoimen hutsaren (teorikoaren) kritika".

- 1781, 1783an "Prolegomenoak" izeneko laburpena, 1787

- Naturarekin lotua: "Leyes de lo q es"

2) "Arrazoimen /huts) praktikoaren kritika"

- 1785ean "Ohituren metafisika"; 1788

- Metafisika=ezagutza. Metafisika egitea= printzipio moralen ezagutza bilatzea. Ohituren bidez moralari/etikari egiten dio erreferentzia. "Leyes de lo q debe ser".

- Arazoa: nola lotu giza askatasuna eta legeen beharrezkotasuna? Barruan begiratuta norberak badaki zer egin behar duen, baina askeak gara legeak jarraitu ala ez jarraitzeko.

Formalki definitzen du lege moral gorena/inperatibo kategorikoa: "Joka ezazu zure jokabidearen maxima lege orokor/unibertsal bilakatzea nahi bazenu bezala"

"ARRAZOIMEN HUTSAREN KRITIKA": ideia orokorrak

- Baconen zita batekin hasten da. Baconen jarraitzaile gisa ikusten du Kantek bere burua).

- Metafisika berri bat proposatzen du: filosofia trszendentala (zentzu klasikoak ez da posible metafisika egitea, gehiegi zentratu delako objektuan eta gutxiegi subjektuan). Metafisika posible izango sa subjektua aztertzen den heinean.

- **Iraultza kopernikarra**: subjektua zentruan jartzen du objektuaren orde. Objektua izango da geure ezagutza ahalmenara egokituko dena. Kontzeptuak ez dira objektuaren araberakoak, baizik eta objektuak . Gauzez apriori ezagutzen duguna guk objektuan ezarritakoa baino ez da. Honela gerturaten zaio arrazoimena izadiari: esku batean printzipioak dituela eta bestean asmatuiko printzipioen menpeko esperimntua duela eta izadia erantzunak ematera behartzen dugu.

Russell: hobe da kontra-iraultza ptolomeikoa deitzea iraultza kopernikarra deitzea baino, gizakia erdigunean jartzen baitu.

- Apriorizko judizio sintetikoak:

- Ezaugarriak: unibertsalak eta beharrezkoak dira (apriori). Ezagutza berria eskaintzen dute (sintetiko). Adib: bi punturen arteko distantziarik motzena bi puntuak lotzen dituen zuzena da.

- Apriori analitikoak (gorputz orok du hedadura) eta aposteriori sintetikoak (gorputz orok du pisua) argiakoak dira

- Ezagutza=giza ezagutza. Soilik gizakiak ezagutzen duen moduz hitz egin deakegu.

- FITXA:

- Judizio analitikoak edo azalpen judizioak: predikatuak ez dio ezer berririk subjektuari buruz; subjektuak bildu egiten du predikatua.
- Judizio sintetikoak edo hedapen judizioak: predikatuak informazio berria ematen du subjektuari buruz.

ESTETIKA TRASZENDENTALA

- Aztergaia: ezagutza sentsiblea (enpirikoa, zentzumenen bidezkoa).
- Ezagutza oro esperientzian hasi arren (intuizio sentsible enpirikoa: materia), ezagutza guztia ez dator esperientziazatik (intuizio sentsible hutsa: formak: denbora eta espazioa). Enpirismoa+arrazionalismoa.
- Espazioa/denbora: apriorizko formak intuizioaren formak dira. Dena kanpotik etortzen bada ezagutzan (materia), ezagutza ez da inola ere ziurra. Apriorizko formei esker da posible ezagutza ziur bat edukitzea. Egiturak dira, hutsa, edukirik gabeak beraien baita.
- Materia+intuizioaren formak=fenomenoa (objektuaren aurretikoa, pre-ezagutza bezala deskriba daiteke). Fenomenoan dagoeneko subjektuak zerbait gehitzen dio ezagutzaren objektua izango denari.
- Ondorioak:
 - Matematikaren posibilitatea. Geometria espazioari esker da posiblea eta aljebra posible da denboraren formari esker.
 - Subjektuaren garrantzia berritua: subjektu traszendental bezala definitzen du: ezagutzeko gai den pentsalaria. Kandela batekin aldera daiteke: objektuak bere argian sartzen diren heinean dira ikusgarriak (argia=formen metafora)

ANALITIKA TRASZENDENTALA:

- Ezagutza: intelektuala=sentsibilitatea (ezagutza fenomenikoa)+adimena
- Ezagutzan bi elementu daude= emana den objektua (ez dena guztiz emana, intuizioen formaren filtroa pasa duelako) eta entendimendua (kategoriak eta printzipioak)
- Kanpo objektuek inpresio bat uzten dute guregan eta inpresio horien gainean gauzatzen dugu ezagutza.
- Intuición: modo en el que somos afectados por el objeto. Entendimiento: el poder de pensar el objeto de la intuición sensible.
- Los pensamientos sin contenido son vacíos, las intuiciones sin conceptos son ciegas. Solo de su unión puede salir el conocimiento. La intuición sensible no es todavía conocimiento.

- Kategoriak:

- Kantitatearen arabera: osotasuna, pluraltasuna, unitatea
- Kualitatearen arabera: errealtatea, negazioa, limitazioa
- Erlazioaren arabera: substantzia, kausalitatea, acción recíproca (disyuntiva)
- Moduaren arabera: posibilitatea, existentzia, beharrezkotasuna

- Ondorioak: enpirismoa (sentsibilitatea)+arrazionalismoa (kategoriak eta printzipioak).
Idealismo peculiar: oreka mantentzen du subjektuaren eta objektuaren artean metafisika egitea posible dela mantenduz.

DIALEKTIKA TRAZZENDENTALA:

- Esperientziaz ahazten da eta ezagutzatik kanpo geratzen da dialektika trazzen dentaleko pentsamendua. Ideia trazzen dentaleak ez dira errealtate trazzen dentaleak. Errealtateak direla pentsatzea=ilusio trazzen dentalea.

- "Arrazoiari mugak jarri behar dizkiot fedeari tarteaz uzteko".

Postulatuak (ni-a, mundua, Jainkoa) Platonen ideiak ekartzen dituzte gogora.

- Ezagutza adimeneraino iristen da, baino filosofia trazzen dentaleak egitura guztia hartzen du.

- Metafisika klasikoari kritika: orokorrean trazzen dentalea dena errealtate trazzen dentalea dela kontsideratzea kritikatzten du.

1) Ni-aren ideia: nik pentsatzen dut, beraz, ni substantzia bat naiz pentsatzea izan da joera orokorra. Psikologia arrazionala deitzen dio honi. Salto hori ez da posiblea. Ez du ukatzen, baina ezin da frogatu, baizik eta postulatu edo suposatu. Psikologia arrazionalak hemendik ondorioztatu du substantzia simple, hilezko eta inmaterialaren izaera.

2) Munduaren ideia: dena orden batean dagoela aurreuposatu izan da tradizionalki zientzia egiteko. Kosmologia arrazionala deitzen dio honi. Ordena ezin da frogatu, postulatu baizik. Arrazoimenak erabilera erregulatiboa du eta ez, ordea, konstitutiboa.

3) Jainkoa: ideia eta ideal bat da Jainko perezkoa (teologia arrazionala). Ideala izateak kutsu teleologikoa ematen dio. "El ser supremo es tan improbable como irrefutable". Fitxan Jainkoaren existentziaren Anselmoren argumentuaren aurka (kontzeptua eta errealtatearen arteko bereizketa Kantent aldetik).

METODOAREN TEORIA TRASZENDENTALA:

- Obraren bigarren atala da (oso laburra)
- Hainbat kritika eta argipen egiten ditu.
- Arrazoimenaren erabilera okerra kritikatzeko du: eszeptizismoa eta dogmatismoa kritikatzeko dotu.
- Arrazoimenak aportatu behar duena azaltzen du eta aportazioa erabilera praktikokoan izan behar da, espekulazioan ez duelako ziurtasunik eusten.
- Filoren sistema arkitektonikoki eraikia dagoela baieztatzen du, arrazoi hutsaren prespektiba historiko bat emanez.

6. GAIA: IDEALISMOA

Sarrera:

- Kontzeptua:

- Hitza:

-Idea eidoseetik dator. Bi adiera: ikusteko modua eta agertzeko modua. Ikusteko modua subjektuari lotzen zaio eta agertzeko modua objektuari. Idealismoa ikusteko moduari lotuko zaio gehiago.

- Ikuspegi logikoa: ideia=entitate kontzeptuala.

Ikuspegi psikologikoa: ideia=entitate mentala

Ikuspegi metafisikoa: ideia=entitate erreala.

- Objektuak idealak edo errealak izan daitezke. Errealitatea enpirikoa edo ideala izan daiteke. Bi bereizketa horiek zailak dira ezkontzeko haien artean.

- Antzinaroan ikuspegi metafisikoa nagusitzen da. Erdi Aroan eztabaida nominalista eta errealisten artean. Descartes: Lockerekin alderatuz errealistagoa da (res). Enpirismoa ikuspegi kontzeptualera gerturaten da.

- Idealak/idealismoa: Platon idealista da: ideia=errealia edo ideia=errealitatea. Kant: Jainkoa=ideala. Ideia baino gehiago da, giza ekintzaren iparrorratza delako.

- Idealismoaren gakoak:

- Abiapuntua: subjektua. Barne mundua da abiapuntua kanpo mundua baino (nia, kontzientzia, izpiritua, arima, adimena). Aurretik aipaturiko ikusteko moduarekin dago loturik. Barne mundua kanpoko munduaren errepresentazio gisa ulertu behar da: gauzak gizaki moduan ikusten ditugu.

- Ezagutza geuk sortua da? Subjektuak berak sortutako objektua ezagutzen du (Kant muturreraino eramaten dute idealistek, S eta O-ren arteko oreka erabat apurtuz).

- Arrazionalismo eta idealismoaren lotua (Descartes...Kant...Hegel?). Kant: badago noumenoa, nahiz eta hari buruz ezin den ezer esan. Idealistak: fenomenoan geratzen bagara, ezin da benetako ezagutza lortu. Noumenoa baztertu egiten dute. Denaenez subjektuak sortua, benetako ezagutza lor daiteke ezer kanpoan utzi gabe.

- Fitxa: Colomer.

- Idealismo alemana testuinguru jakin batean garatzen da: kultura garapen oso handia dagoenean garatzen da.

- Materialismoa da idealismoaren etsai nagusia.

- Kantetik abiatzen dira, baina Kanten aurka eginez.

- Autoreak:

1) Fichte: idealismo subjektiboa. Garrantzia handia ematen dio subjektuari. Objektua subjektuaren emaitza gisa ulertzen du. "Ekintzaren filosofia". Ni (el yo): S eta O-z baino, yo y el no yo-ri buruz hitz egiten du. Atea da.

2) Schelling: Fichteren jarraitzailea zen, baina beste modu batera garatu zuen bere filosofia: idealismo objektiboa. Ni-tik kanpo badago kanpo mundu bat, nahiz eta amorfoa izan geuretzako. Aintzat hartu behar da O, nahiz eta S-k bere jarduera egin ondoren ezagutzen duen. "Panteismo erromantikoa".

3) Hegel: idealismo absolutua. Bateratu egin behar da metafisika tradizionala eta filosofia trascendental. Panlogismoa: Pentsamendua-Egia-Izatea. Gazau bera edo korrelatiboak direla frogatu nahi du. Errealitatea eta pentsamendua eskema beraren barnean daudela frogatu nahi du.

FICHTE, J.G. (1762-1814)

Bizitza:

- Familia pobreako, baserritarren semea.
- Igandeko meza batean jauntxo bat berandu iritsi zen eta Fichtek sermoi osoa errepikatu zion hitzez hitz. Jauntxoak ikasketak ordaindu omen zizkion genio bat zelakoa.
- Besteak beste, filosofia, zuzenbidea eta teologia ikasi zituen unibertsitatean.
- Jenara irakasle joan aurretik Kanten APK irakurri zuen eta miresturik geratu zen. Nolabaiteko segida bat idatzi zuen eta Kanti bisita egin zion testuarekin. Kant liluraturik geratu zen eta bere editore berarekin testua argitaratzeko proposatu zion eta honek onartu. Anonimoki argitaratu zen eta jendeak Kanten testua zela pentsatu zuen (garai hartarako fama handia zuen Kantek).
- Jenako unian irakasle izan zen eta 1798an bota egin zuten eta Berlinera mugitu zen errektore.
- 1792: "Ensayo sobre la crítica de toda rebelación"
- 1794: "Fundamentos de la doctrina de la ciencia"
- 17808: "Discursos a la nación alemana"
- Aktibista teoriko gisa defini daiteke. Iraultza sozialaren aldarrikatzailea da, baina maila teoriko batean.

Lehen filosofia: 1798 arte

- 1798an Jenako unibertsitatetik kanporatu zuten. Geroztik ezberdin hasi zen jarduten filosofian.
- Nol aezkondu beharra (fisikoa, naturala) eta askatasuna? Hau da, nola lotu subjektua eta objektua?
- Kantek Oreka mantendu nahi izan zuen S eta O aztertu zituenean. Fichtek balantza desorekatu egingo du S-ren aldera. Objektuak, beharrak, determinismoa suposatzen du.
- S: askatasuna. Ni
- O: determinismoa, beharra, Spinoza, fatalismoa. Ez-ni
- Abiapuntua: Kant eta Iraultza Frantsesa. Kantek bere filosofia objektuan abiatu (AHK) eta praktikara igaro zen (APK).
- Fichte: dogmatikoezia da, S noumenoaren menpe uzten duelako. Giza askatasunari indar handiagoa ematen dio Kantek baino.

- Iraultza frantsesa: bi gizaki daude: askatasunaren aldekoa eta ez aldekoa (ez dago erdibidekorik)

Tesia: egoera natural askea

Antitesia: Monarkia absolutua

Sintesia: Iraultza

- Inperatibo kategorikoa ez da hain teorikoa, soziala da. Iraultza bultzatzeko da inperatiboa (praktikari indarra). Idealismo oso praktikoa garatzen du Fichtek.

- Arrazoi teorikoa+arrazoi praktikoa:

- Subjektua dena da. "Nik pentsatzen dut" ordez "Nik jarduten dut" baieztatzen du. Horrela baztertzen du noumenoaren dogma kontzientziari indarra emanez. Askatasuna ematen dio gizakiari noumenoa gizakiaren jardueraren produktu gisa kontsideratzean.

- Ni-aren dialektika:

Tesia: Nik jarduten dut

Antitesia: Nia eta Ez-nia konfrontatu egiten dira.

Sintesia: batasun orokorra. FITXA

Bigarren filosofia: 1798tik aurrera.

- 1798an: "Sobre el fundamento de nuestra fe en el gobierno divino del mundo". Jainkoa=egitura moral. Despersonalizatzeko honek arazoak ekarri zizkion.

- 1782: Jacobi eta Mendelssohn: eztabaidan sartu ziren Lessingen filosofiaren inguruan. J: atea eta Spinozista da. M: erlijioa ulertzeko beste modu bat da. Panteismoa ateismoa da? J: bai. M: ez.

Fichte: oso probokatzaila zen bere pentsamendua. Sokratesen antzera kritikatu zuten. Erantzun gogorak eman zituen Jainkoaren ideia tradizionalaren aurka. Unibertsitatea gobernuaren menpe zegoen eta bota egin zuten. Bere tokian Schelling jarri zuten. Berlinera joan zen giro liberalagoa omen zegoelako.

- Bere filosofiak kutsu erlijiosoagoa hartzen du etapa honetan. O eta S-ren gainetik dagoen ni absolutuaren gainetik Jainko absolutua kokatzen du.

SCHELLING, F.W.J. (1775-1854)

Bizitza:

- Idealista erromantikoena da.
 - Fichte bota ondoren, Schelling jarri zuten bere tokian Jenako unibertsitatean eta, ondoren, Hegel Schellingean tokian. Katedra berdinean egon ziren hirurak (Berlinen ere bai).
- Berlinen errektore izan ziren hirurak: Fichte, Hegel eta, azkenik, Schelling. Azkeneko hau "para combatir el veneno panteísta de Hegel."
- 1797: "Ideas para una filosofía de la naturaleza". S=espiritua. O=natura. Fichteren egozentrismoa aldatu egiten da.
 - 1800: "Sistema del idealismo trascendental". Obra gorena.
 - 1804: "Filosofía y religión". Aldaketa suposatzen du bere filosofia.

Lehen filosofia: 1804 arte

- Abiapuntua: Fichteren aritika eta kontra aldi berean.

Nola lotu S eta O? Fichterekin ez goaz inora, S absolutizatzen duelako. Filosofia tradizionalak O absolutizatu du. Bi aldeak dira okerrak dira.

- Non dago absolutua? Ni purua da, baina objektuari garrantzia eman behar zaio. Autoafirmazioa naturan gertatzen da. Beraz, badago gizakiarengandik kanpo mundu bat, nahiz eta gizakiarentzako amorfoa izan.

S=espiritua=natura ikusezina

Objektua= natura= espiritu bisiblea

Bi zentzutan garatzen du filosofia:

- 1) Subjektotik objektura: filosofia trascendental edo trans subjektibitatea
- 2) Alderantzizko norantza: filosofia naturala edo trans-objektiboa.

- Garapena: filosofiaren hiru pausu nagusiak:

1) Naturaren filosofia: naturatik espiritura. Naturak giza forma nola hartzen duen azaltzen du (Kanten fenomeno gutxi gora-behera). Natura naturatik natura naturansera

2) Filosofia trascendental: espiritutik naturara. Batasunetik aniztasunera. Kanten fenomenoaren kontzeptualizazioa. Natura naturansetik natura naturatara.

3) Identitatearen filosofia. Absolutua: dena bat dela ohartzea. Hau da, Espirituak eta Naturak osotasun bat osatzen dutela onartzea.

FITXA

Bigarren filosofia: 1804tik aurrera:

- Pentsamenduan mozketa bat ematen da. Arrazoi ezberdinak daude. Fichteren ordezkari izan zen Jenan 1797-1804 bitartean. Schlegel izeneko Jenako irakasle baten emazte ohiarekin ezkondu egin zen Schelling eta iskanbilak sortu ziren. 1807an Hegelek bere obra argitaratu eta fama kentzen dio Schellingi. 1809an emazte ahiltzen zaio. Urte berean Boehme mistikoaren obra irakurtzen du. Gertakizun guzti horiengatik aldatu egin nahi du bere filosofia.

- Abiapuntua: aurrekoarekiko haustura.

- 1804: "Filosofia eta erlijioa". Boehmeren eragina du. Arrazionalismo muturrekoari aurre egiten dio. Panteismotik erlijiotasun "normalago" batera igarotzen da nolabait.

Pentsamendua (zer da x? Esentzia) vs Izatea (Zerbait bada? Existentzia).

- 1809: giza askatasuna.

- 1813-15: "Edades del mundo"

- Garapena: azken filosofia. 1831tik aurrera.

- 1831: Hegel hil zen urtea.

- Hegelen aurkako filosofia bezala uler daiteke urte hauetako filosofia., baita idealismoaren aurkakoa ere. Erlijio mistikoago baten alde egiten du ere.

Pentsamendua (Esentzia, posibilitatea, kontzeptua) vs Izatea (existentzia, errealitatea, gertakaria). Hegelek pentsamenduari indar gehiegi eman diola kritikatzten du eta izatea alde batera utzi duela. Schellingen ondorioa: 1) Pentsamendua soilik=filosofia negatiboa eta arrazionala 2) Izatea=filosofia positiboa eta irrazionala.

Izatearen defentsa=giza askatasunaren defentsa. Hegel arrazionaleria eta logikoen delak kritikatzten du.

1841: Berlingo unibertsitatara doa lanera katedradun gisa "para combatir el veneno panteista de Hegel".

HEGEL, 1770-1831

Bizitza:

- Funtzionari baten semea.
- Seminario luterano batean ikasi zuen. Klaseko azkarrena zen askorengatik.
- Hölderlinen eta Schellingin laguna.
- 1801-06: Jenan irakasle Schellingek lagunduta
- 1807-16: Nürenbergeko institutu batean zuzendari egon zen lanean. 1807an "Fenomenologia" argitaratzen du. 1812: "Logikaren zientzia".
- 1816-18: Heidelbergeko unibertsitatean irakasle
- 1818-31: Berlinen errektore egon zen lanean. Erregeak mugitu zuen hara lanera egoera iraultzailea baretzekotan.
- Oso tipo lasaia eta zentzuduna omen zen.
- Noumena arrazoiaren barnean sartu nahi zuen (hiperrazionalismoa). Dena arrazionalki esplikatzea posible dela uste du.

Hegelen pentsamenduaren bilakaera:

- Teologiatik filosofiara: eredu kristologikoa:
 - Erligioak diona: Jainkoa (kristo) Jesus moduan munduratzen da. Transzendentea imanente eta infinitua finitu bilakatzen dira. Ondorioz, Jainko transzendentea desagertu egin da. Dena bilduko duena (Kristo eta Jesus) absolutua da. Bide honetatik Jainkoaren heriotza aldarrikatzen du (Nietzschek baino lehen). Eskema hau bere filosofia sekularizatua garatzeko hartzen du. Eskema garatuz panteismo batera iristen da.

Hegelen filosofiaren sistema:

- Egitasmoa: subjektua+substantzia=absolutua.

Filosofiaren bi fase historiko nagusiak uztartu nahi ditu: subjektuaren eta objektuaren filosofia.

S: epistemologia/Fichte, Schelling/Nik pentsatzen dut/solipsismoa/Apariecia/ Finito

O: Metafisika/Aristoteles, Spinoza/Jainkoa/Dogmatismoa/Conocimiento imposible/ Infinito

Bi posizioak autoeskluyenteak dira.

Ondoiroa: korrelazioa dago pentsamenduari eta egiaren artean eta egiaren eta izatearen artean (Wittgensteinen isomorfiaren antza du).

- Metodoa: dialektika.

Historiaren garrantzia eta intersubjektibitatearen garrantzia azpimarratzen ditu metodo dilektikoan.

Afirmazioa+negazioa=progresoa.

Egiaz prozesu baten baitan baino ezin dugu hitz egin. Errealitatea eta kontzeptua ez dira inola ere rigidoak.

- Garapena: bi ibilbide

1) Behetik gora: "Espirituaren Fenomenologia". Absolutuaren despliega.

2) Goitik behera: "Zientziaren Logika".

Hegelen filosofia Berlinen (1818-31)

-Ez zuen gauza berri handirik egin.

- 1821: "Principios fundamentales de la filosofia del derecho"

- Zuzenbidearen filosofia: hausnarketa bat egiten du Zuzenbidearen eta Estatuaren inguruan.

- Zuzenbidea: condición y ámbito de la realización de la libertad.

- Estatuaren:realidad de la libertad concreta (monarkikoa da Hegel). "Lo que es real es racional y lo que es racional es real": Modu estatikoan ulertuta: reaccionario, eskuindarra. Modu dinamikoan ulertuta: aurrerakoia.

Estatua=prehistoriaren amaiera.

- Historiaren filosofia: "Lecciones sobre la filosofia de la historia universal".

- Planteamendu kristau sekularizatua azaltzen du. Teodizea bat egiten du Jainkoa arrazoiarengatik ordezkatzuz.

- Historiaren 3 faseak: Oriente (uno libre), Greazia eta Erroma (algunos son libres), Mundo Moderno (todos son libres).

Oriente da hasiera eta Europa Modernoa gailurra eta amaiera.

- Tesia: libertad como objetivo.

Antiteseis: egoismos individuales.

Sintesis: Estado como realizacion de la libertad.

- Erligioaren filosofia: "Lecciones sobre la filosofia de la religion".

- Kristautasuna benetako erlijio arrazionalizatu gisa aurkeztu nahi du (aurka Schleiermacherren mistizismoa).
- Fede = certeza de la relacion entre lo absoluto y la conciencia.
- Erlijio orientalak mistikoak. Judaismoa: teleologikoa. Kristautasuna: ontologikoa.

Postumos:

- Hegel hiltzean kokoteraino dago jendea berea bezalako sistema handiekin, errealitateak berdin jarraitzen duela ohartzen baita mundu osoa. Idealismoak gainbehera izan zuen.
- Hegelen aurkakoa: Schopenhauer. Kantera itzuli eta noumenoa borondatearekin berdintzen du. Feuerbach, Marx: progresoaren ideia hartzen dute, baina izpiritua materiarengatik ordezkatur.
- Nietzsche: Jainkoaren heriotzaren ideiarekin jarraitzen du, baina irrazionalismoa aldarrikatzeko.

7. GAIA: ERROMANTIZISMOA

- KANT (filosofia praktikoari dagokionez): gizakia-askatasuna-erdigunea): bi garapen:
 - Idealismoa: askatasunaren idealizazioa, absolutua, metafisika berri bat, globalizazioa.
 - Erromantizismoa: askatasunaren errealizazioa, aniztasuna/erlatibitatea, humanismo berri bat, nazionalismoa

Sarrera:

- Kontzeptua:

- Hitza: "Roman" = frantsesez nobela. Erromantiko hitza Erroma izenetik dator. Romanire loqui vs Latine loqui. Romanire loqui kaleko hizkuntza zen eta hemendik eratortzen dira hizkuntza erromanikoak. Literatura erromantikoa hizkuntza horietan idatzi zen. Latine loqui goi-mailako hizkuntza akademikoa zen. Besteak beste, zientzia edo filosofia idazteko erabiltzen zen.
- 1780-1830: garai honetako produkzio kulturalarekin lotzen da erromantizismoa. Ilustrazioaren ondoren dator, baina ez haren aurka.
- XVIII-XIX tarteko aldaketak:

- Filo ilustratutik filo erromantikora (bigarrena ez doa lehenbizikoaren aurka). Garapen bezala uler daiteke aldaketa hau.

- Erromantizismo literariotik erromantizismo filosofikora. Literaturan du eredia filosofiak. Literatura horrek errealitatearen aurpegi tragikoari garrantzia ematen dio eta arrazoimenarekiko konfiantza txikia du.

- Frantzia: tradizio absolutista du. Askatasunak zentzu politikoa du. Alemanian: erromantizismoa Napoleonen aurka garatzen da, nazionalismo modura. Erromantizismoa bertan garatzen da askatasunaren kontzeptio ezberdin batekin, askatasun politikoa baino zabalagoa eta erlatiboagoa.

- Giza alde irrazionalari presentzia handiagoa ematen dio erromantizismoak. Gehiegizko planteamendu arrazionalista baten aurka garatzen da. Ideia hauen aurka: galdera orok erantzuna du eta erantzunik ez badu, ez da galdera bat edo norbaitek noizbait erantzuna emango dio. Erantzun oro arrazionalki argumentatu daiteke eta, ondorioz, erakutsi egin daiteke. Kontraesan ezaren printzipioa. Soilik indukzioa eta dedukzioa; errebelazioa eta antzekorik ez. Fisika newtoniarra etika eta antzeko giza kontuetara eraman nahi dute. Ezagutza piramide gisa ikusten dute.

- Giza zientziak eta natur zientziak garai honetan hasten dira bereizten. Non kokatu edertasuna, ongia eta antzeko balio erlatiboak? Natur zientzietan ez, behintzat. Molde bakarraren ideia ez da posible giza-zientzietan.

- Erromantizismoa vs arrazionalismo muturrekoa: prozesua vs emaitza, formazioa (bildung) vs hezkuntza, irrazionala vs arrazionala, multiformea vs uniforme, ezkutukoa vs agerikoa, protestantea vs katolikoa.

- Alemania:

- Hemen hasi zen erromantizismoa.

- Ilustraziotik erromantizismora.

- Alemania politikoki eta kulturalki Frantzia baino azpigaratuagoa zegoen eta akonplejatuak zeuden. Pentsamendu frantsesaren aurka bezala uler daiteke erromantizismo alemaniarraren garapena. Adib: itxurakeriaren aurka barneko garapenaren bidez.

- Hamann: "Arrazoimenak ezin du bizitzaren jarioa harrapatu. Kanten aurka esan zuen.

- Goethe 1774: "Werter": erromantizismoaren hasiera. Herderren ideia izan zen Frantziar literaturaren aurka, Erromatar eta Greziar ereduak kopiatzera mugatzen zena.

- Ingalaterra:

- Erromantizismo literario bat. Filosofiak baino indar handiagoa izan zuen literaturak.

- Hume: modernitatearen aurkako kritika bultzatu zuen.
- Arrazoimenetik urrunduriko literatura garatzen da.

- Frantzia:
 - Erromantizismo berantiarra 1815 artea (Napoleonen restauraziora arte). Mme. Stäel eta Chatobriand dira azpimarratzekoak.
 - 1815-48: Victor Hugo.
 - Rousseau ilustratu oso erromanikoa zen.

HERDER (1744-1803)

Bizitza:

- Möhrungenekoa. Gaur egun Polonia; Prussia bere garaian.
- Kanten ikaslea izan zen, baina Kanten bere obra nagusiak argitaratu baino lehen. Kanti esker Hume eta Rousseau irakurri zituen (modernitatearen kritikoak).
- Hamannen laguna zen. Biak dira Kanten kritikoak: gizakia gehiegi abstraitzen duela kritikatzan diote eta horrela ezin dela gizakia bera bere egunerokoan aztertu.
- Apaiz protestatntea zen, baina funtzionari lanetan aritu zen.

Ilustrazioarekiko (benetako) haustura:

- 1771: "Hizkuntzaren jatorriari buruzko entseia"
 - Hizkuntzari literaturari baino garrantzia handiagoa ematen dio (erromantikoak oso literatura zaleak ziren orokorrean).
 - Kritika: irizpide bakar baten arabera ebaluatu nahi da toki guztietako literatura. Kultura eta hizkuntzaz interesatzen hasten da Herder hortik aurrera, pentsamendu kontzeptualegi eta teorikoegiak baztertuz.
 - "Pertenenzia": gizakiak bere izaera hizkuntzaren bidez garatzen du, baina hizkuntza herri batena da (ez da kontu indibiduala). Herriaren espresio artistiko guztiei ematen die garrantzia. Herder nazio guztien nazionalista da: herri bakoitzak bere modura garatzen du bere izaera.
 - Hizkuntza gizakiari naturala zaio. Hizkuntzak gizakia gizaki gisa garatzen du eta herri bat talde bezala garatzen du.
- 1774: "Baita ere historiaren filosofia bat gizadiaren formaziorako"

- Herriaren historia aldarrikatzen du erregeen edo pertsonaia "gorenen" historiaren orde. Ondorioetako bat: Grimm anaiak Alemania osoko literatura herrikoia bildu zuten benetako herri izaera biltzeko.

- Formazioa: bildung, paideia.

Hezkuntza: irakaskuntza, didaktika.

Benetako garapena barrutik dator, formaziotik. Hezkuntza baliabide bat izan daiteke, baina formazioa da zentrala.

- Progresoak: terminoak suposatzen du atzekoa azpigaratua dela. Aurka egiten dio ideia honi: historia ez da lineala eta zuzenean garapenera doana. Inork ez du irizpidea historiako une ezberdinak baloratzeko. Gauza bakoitza bere testuinguru historikoan ulertu behar da.

- 1784, 85, 87, 91: aurreko obretako ideiak garatu egiten ditu lau tomatan. Izenburua: "Gizadiaren historiaren filosofiarako ideiak". Ezin da progresoaz, kultura primitiboaz edo bigarren mailako hizkuntzez hitz egin. "Pueblos sin cultura" bezalakoak ez ditu onartzen. Hau ilustrazioari eginiko kritika da.

Hegelen aurka: Estatuak ez da gailurra eta herria herri da Estaturik gabe ere.

- 1784: Montesquieren garapena. Gizakia bere ingurunean ulertu behar da (ingurune fisikoak ere garrantzia du).

- 85: contra los ilustrados que desprecian los primitivos.

- 87, 91: herrien historia egiten du (ez Estatuarena). Ez dio frontera politikoari erreparatzen. Historian zeharreko herriak aztertzen ditu: Baskoiak besteak beste.

- 1799: "Arrazoimen hutsaren metakritika": kanti eginiko kritika da. Kant= puro juego de palabras, psicologismo desorientado, monstruosidad lingüística.

- Volksgeist: herriaren izpiritua. Ez zuen hitza inoiz erabili, nahiz eta bereri egozten zaion. Hizkuntza bakoitza izaera propio batekin dago loturik.

SCHLEIERMACHER (1768-1834)

Bizitza:

- Breslabiakoa, gaur egungo Polonian eta Prussia bere garaian.

- Apaiz protestantea, baina mundu akademikoan aritu zen laneanb.

- Platonen elkarrizketa guztiak alemanera itzuli zituen.

- Berlingo Unibertsitateko Teologia fakultateko dekanoa izan zen hil arte.

- Hegelen oso aurkakoa, erlijio kontuetan bereziki.

Erljioaren filosofia:

- 1799an argitaratu zuen erlijioari buruzko testu nagusia.
- Abiapuntua: pentsamendua vs izatea. Nola lotu ezagutza errealitatearekin (izipiritua eta natura; ni eta ez-ni)? Erantzun erlijioso bat ematen dio, argudiaketa sentimentalean oinarriturik: infinitutasunean geure txikitasuna onartzea. Ezin da kontzeptualki azaldu eta itxi S eta O-ren arteko lotura.
- Erljioa: infinituaren aurrean menpekoak izatearen sentimendua izatea. Txikitasuna sentitzea. Ez da kontu moral edo metafisiko bat. Teologia liberal edo sinboliko bat garatzen du, ez dogmatikoa. Mendelssonnen aldekoa da erlijioa ikusteko moduan.
- Humanismoa: gizakiaren abstrakzioari baino, konkrezioari erreparatzen dio. Posible da Jainkorik gabeko erlijioa hobea izatea. Onartu egiten du erlijio aniztasuna; are gehiago; ateismoa ere onartzen du (txikitasunaren kontzientzia eduki dezakeelako ateo batek ere).

Hermeneutika filosofikoa:

- Hermes=merkurio jainkoa. Zeusen mezularia zen. Gizakiei igortzen zizkien Zeusek bidalitako mezua. Arazoa: ondo ulertu du mezua Hermesek? Ondo igorri die gizakiei mezua eta, aldi berean, hauek ondo ulertu al dute?.
- Heidegger: filosofia hermeneutika da. Nietzsche: hermeneutikaren aita bat dela esan daiteke. "No existen hechos, solo interpretaciones".
- Testuen interpretazioa: betidanik egin izan da. Schleiermacherren lehenbiziko pertsona bizi izan zuen: nola itzuli duela 2000 urteko Platonen testu bat bere garaian ulertu ahal izateko?
- Hermeneutika erromantikoa/historizista: ez du soilik testu idatziez jarduten. Hizkuntza azaltzen den guztietan eta forma guztietan hermeneutikaren beharra azaltzen da.
- Hermeneutika filosofikoa:

Heidegger: "Filosofia de la facticidad": filosofia hermeneutika dela esatetik, giza kontu oro hermeneutikoa dela esatera iristen da.

Gadamer: dena da interpretazioa. Interpretazio arazoak giza zientzietan sortzen ditu bereziki; interpretazioak ez dirudi hain problematikoa natur zientzien kasuan.

- Hermeneutika v erretorika:

Hermeneutika: nola esan-etik zer esan-era/ezin gara itxurarekin konformatu. Adierazpen batekin zer esan nahi den argitzea da hermeneutika/berreraiketa prozesu bat da/autore bat autoreak bere burua ulertu duen modua baino hobeto ulertzea da hermeneutikaren helburua.

Erretorika: zer esan-etik nola esan-era. Ondo hitz egiteko zientzia da.

- Schleiermacherrek bi interpretazio esparru bereizten ditu:

1) Gramatikala

2) Psikologikoa. Bietan dago hizkuntza: 1 zer esaten den eta 2 zer esan nahi den.

- Interpretatu=ulertu: ez dugu ezer ulertzen interpretatu gabe. Kronologikoki interpretatu egin behar da objektiboki, ondoren subjektiboki ulertzko. Ideia honen aurka dago: dena subjektiboa da

- Zirkulu hermeneutikoa: osotasuna vs atala/banakoa. Banako atalak hartu behar dira kontuan osotasuna uletu ahal izateko, baita alderantziz ere (zuhaitza eta basoa).

VON HUMBOLDT, WILHELM (1767-1835)

Bizitza:

- Ilustrazioaren eta erromantizismoaren artekoa da.

- Potsdamen jaio eta Tegelen hil.

- Familia diruduneko eta anaiarekin formazio ilustratua jaso zuen. Zuzenbidea, filologia eta Kanten filosofia ikasi zituen Campe ilustratu famatua irakasle zutela.

- Schiller eta Goetheren laguna.

- Ekarpenak:

1) Antropo filosofikoa: zer da eta zer izan daiteke gizakia? Humanista: prozesu gisa ikusten du gizakia.

2) Politika: teoria: Estatuaren teoria. Hezkuntza ministro antzekoa izan zen: Berligo unibertsitatea sortu zuen.

3) Hizkuntzalaritza: hizkuntzare filosofia eta zientzia garatu zituen. Euskal esperientzia: garrantzia du, antropologian hizkuntza garatuko baitu hortik aurrera.

Antropologia filosofikoa:

- Humanismo berria eta Bildung delakoa.

1) Gizabanakoak antropologiako aztergai bezala. Kanten gabeziak: gizakia purutasunean aztertzena da. Aurka: gizakia ez da entelekia bat. Indibidualtasunean ulertu behar da. Abstraiturik baino, konkretioan aztertu behar da. Baldintza espazio-tenporalek garrantzia dute gizakia aztertzeko. Historizismoaren aldekoa da.

2) Gizakia ezagutzetik gizakia humanizatzerara (ulertzera): “zer ezagutu?” baino “zertarako ezagutu?”. Esentzialki zer den baino, nola garatu daitekeen galdetzen du. Gizakiaren errealitatea idealizatu egiten du eta giza-ideala errealizatu nahi du. Izaera teleologikoa: gizakiak helburuak ditu eta haiei begira garatzen da.

3) Anropologia eta konparazioa: konparazioa eabiliko du metodo gisa. Ez dago patro finkorik. Konparazio bidez ezagutu behar da. Helburua ez da ezagutza finko eta absolutu bat: ulertu egin behar da unean-unean. Imaginazioari garrantzia ematen dio (Kanten

postulatuak ere oso garrantzitsuak dira Kanten filosofian): enpiria eta filosofia edo idealak lotzeko ezinbestekoa da imaginazioa.

- EHra bidaiak: estandarrak ez ziren kulturak aztertu nahi zituen. EHra etorri zen gizadiaren manifestazio ezberdinak aztertzeko asmoz. Lehen bidaia Espainiara egin zuen eta bigarrena soilik EHra.

EHri buruzko monografia bat egiteko asmoa izan arren, ez zuen proiektua aurrera eramane. Bidai-oharrak utzi zituen: ohar etnografikoak (fisionomia, herri kultura, historia politikoa), eta ohar etimologikoak (esukal hizkuntzari buruz)

Monografiarako egitasmoa: antropologia konparaturako oso interesgarria da EH. Euskaldunak muga politikoei erreparatu gabe aztertu nahi ditu.

- Euskal nazioa erreferentzia nagusi bezala:

1) Euskal nazioa=euskal hizkuntza komunitatea. Nazioa= kontzeptu lingustiko-kultural-antropologikoa. Nazioa ez du politikoki ulertzen. Euskara hizkuntza nazionala da. Euskal nazioa=euskara hitz egiten duten hiztunen komunitatea.

2) "Die Vasken": V vs B. Euskaldun guztiak bilduko dituen kontzeptu bat sortu nahi du. Bere garaian erabiltzen direnak partzialak dira: Biscayen hegoaldekoentzako eta Basques iparraldekoentzako. Modu politiko-estatalean erabiltzen dira. Ikuspegi horreatik urrundu eta V-z idazten du adiera antropologiko bat emanez eta iparreko nahiz hegoaldeko euskaldunak bilduz.

Hizkuntzaren filosofia:

- Euskal Herrira egindako bisitaren ondoren hizkuntzaren teoria antropologikoa egiten hasten da.

- Hizkuntzak interesgune antropologiko bezala:

1) Pentsamenduaren biraketa linguistikoa: gizakia aztertzeko hizkuntza esentziala da. Gizakia abstrakzio batez den moduan, hizkuntza ere ez da abstrakzio bat (konkrezioan aztertu behar da).

Gizakia-nazioa-gizabanakoa

Hizkuntza-hizkuntza historikoa-hizketa ekintzak.

2) Euskaldunen garrantzia biraketa horretan: lehenbizikoz egiten du topo ia idatzia ez den hizkuntza batekin. Hizkuntzaren funtzio nagusia antropologikoa da: gizakia gizaki egitea. Antropologia konparatua hizkuntza konparatuaren bidez egiten du.

3) Hizkuntzaren teoriaren garapena. 1800-20: politikagintzarekin batera. 1820-35: buru belarri hizkuntzalaritzan, beste okupaziorik gabe.

- Hizkuntzaren aspektu filosofikoa:

1) Jatorria: nondik dator hizkuntza? = nondik dator gizakia?

2) Hizkuntzaren esentzia = gizakiaren esentzia. Gizaki soziala = gizaki linguistikoa. Esentziara ezin gara iritsi, baizik eta hurbildu; bi pauso: 1: ergon-energeia (produktua-energia; hizkuntza-hizketa), 2: pentsamendua-hizkuntza (beti pentsatzen dugu hizkuntzaren bidez)

3) Bitartekotza: hizkuntza gizakiaren eta munduaren arteko beste mundu bat da. Gizakiak hizkuntza du eta hizkuntzak gizakia. Hizkuntz-komunitatea = munduaren irudi edo ikuskera linguistikoa (muturreko ulerkera: hizkuntzaren arabera ikusten dugu mundua)

- Hizkuntzaren aspektu antropologikoa:

1) Hizkuntzaren izaera formatiboa: hizkuntzak gizakion garapena dakar (zientifikoa, intelektuala, etiko-moral-politikoa....)

2) Izaera soziala:

Hizkuntzaren bi aldeak: ekintza eta ulertzea. Posible da beti ez ulertzea.

3) Hizkuntzaren izaera nazionala: hizkuntza komunitate historikoetan baino ez da garatzen. Banakoa eta komunitatea bateratzen ditu.

1. GAIA: BERPIZKUNDEA

SARRERA: ERDI AROTIK BERPIZKUNDERA

ERDI AROKO FILOSOFIA:

1 -Patristika (V arte). Kristautasuna eta filosofiaren lotura burutu ziren (erlijioaren arrazionalizatze nahia. Oraindik ezin da teologiaz hitz egin).

-Agustin (354.430): "Credo ut intelligam"

-400-800: garai iluna; ez dakigu gauza askorik garai honetan garatutako filosofiari buruz.

2 -Eskolastika (800-1300): teologia eta filosofiaren lotura. 800: Carlomagno enperadore bihurtzen da eta berak bultzaturik unibertsitateen eta Arte Liberalen (trivium eta quadrivium) garapena gauzatzen da.

-1209: Frantziskanboen sorrera (pentsamendu mistikoakoa)

-1216: Dominikoen sorrera (arrazionalagoak)

-Anselmo Canterburykoa (1033-1109). Eskolastikaren benetako hasiera. Agustindarra.

-Tomas (1224-1274): arrazoiari autonomia handiagoa ematen dio. Fedetik bereiztu arren, egia bakarra dagoela eta biek berdina bilatzen dutela aldarrikatzen du. Arrazoa mugatua denez, zalantza kasuan fedea esaten duenari egin behar zaio jaramon.

ARISTOTELISMO TOMISTAREN KRITIKA:

1-Averroismo latindarra: Aristoteles arabieratik latinera itzultzean hasi zen garatzen. Ukatu egiten dute fedea eta arrazoa uztartu ahal izatea. Autore garrantzitsu bat: Siger Brabantekoa. Aurreko filosofo arabiarrek: Avicena, Averroes, Maimonides.

2- Eckhart (1260-1327): oso mistikoa. "Jainkoa izatea da" (ez da berdina jainkoak izatea du). Ez du beharrik Jainkoaren existentzia frogatzeko; existitzen dela esatearekin nahikoa da.

ESKOLASTIKAREN AMAIERA: GILEM OCKHAMGOA (1280?-1348?)

Nominalismoaren aldekoa:

BERPIZKUNDEAREN HASIERA: NICOLAS KUSAKOA (1401-1464)

-Garaia/testuingurua: Platonismoa indartu egiten da kristautasunaren baitan, aristotelismoaren indarra balaztatzeko nahiak bultzaturik.

-Obra: "De docta ignorantia" (ezjakitearen jakitea; Sokratesen antzera)(1440):
1) Ezagutzaren teoria: sensus, ratio (kontzeptualagoa) eta intellectus (planteamendu panteista). Kant. 2) "Coincidentia oppositorum": aurkakoak direnak, berez, loturik daude eta osagarriak dira. Gauzak, berez, osotaunean daude oposizioan baino. Spinoza. 3) Infinituaren ideia: dena da infinitua, hots, kosmosa infinitua da. Giordano Bruno.

HUMANISMOA ETA FILOSOFIA ITALIARRA:

BERPIZKUNDEA EUROAPAN

-Humanismoa: 1) Zizeronismoa (k.a. 106-43) 2) Humanismo italiarra: erretorikaren garrantzia 3) Humanismo alemaniarra/humanismo berria: Kanten ondoren

Oro har, sistema filosofiko handien garapenaren ondore garatu izan dira humanismoak (Platon, Sokrates, Kant, Hegel), beatez ere filosofiarekin zer egin dezakegun galdetuz eta, askotan, sistema handi horien aurka. Humanismo italiarraren aurka teologia sistematikoaren aurka.

-Trantsizio garaia: gizakia eta gizakiaren formulazioa garrantzitsu bilakatzen dira (tozentrismotik antropozentrismora, geozentrismotik heliozentrismora. Gauzen ikuspegiaren aldaketa). Gizartea dinamizatu eta ireki egiten da, Erdi Aro estatiko eta hermetikoarekin alderatuz. Hizkuntza bulgarren garapena: Dante, Lutero, Leizarraga. Erlatibismoa(sistema handien aurka, oro har absolutistak direlako): Montaigne, Erasmo, Tomas Moro.

BERPIZKUNDEKO FILOSOFIA ITALIARRA

-LITERATURA: hizkuntza bulgarren bidez literatura garatzen hasten da eta oso filosofikoa da literatura. Gizakiaren ikuspegi mekanizista baztertu egiten du.

-FLORENTZIAKO AKADEMIA PLATONIKOA(1459)

Aristotelismoaren garapenaren erantzun gisa Platon eta Plotinoren pentsamendua berreskuratu eta indartu egiten du Elizak (Tomas: fede eta arrazoiaren lotura arrazionala/ez-mistikoa Averroes: fedea eta arrazoiaren inkompatibilitatea). Adib: fedea eta arrazoiaren lotura mistikoagoa defendatu nahi dute.

Cosmo de Medicik sortu zuen. Fitxajeak: Plethon, Bessarion, Ficino eta Pico della Mirandola (garrantzitsuena. "Discurso sobre la dignidad del hombre":gizakiak bere esentzia propioa ez duela eta, beraz, bere kabuz eraikitzen duela dioen ideia indartzen du). Denak platoniarrek eta kristauak.

Testuingurua: gaur egungo Italia Iparraldean hiri estatuak (Florentzia indartsuena) eta Hegoaldean Estatu Pontifizeak.

GIORDANO BRUNO (1548-1600)

-Dominikoa, baina planteamendu dominiko arrazionalistatik urrutik dago bere pentsamendua.

-NATURAREN FILOSOFIA:

-Nicolas Kusakkoaren eragina: natura infinitoa da

-Jainkoa infinitoa da eta natura bere sorkuntza denez natura ere infinitua izango da ondorioz. Ezin da natura sistematizatu zientziaren bidez, infinitua delako. Zientzia alboratu egiten du. Panteismoa garatzen du.

-Heliozentrismoa: Kopernikoren obra ezagutzen zuen.

-Natural /sobrenatural muga lausotu egiten du

-Obra: "Sobre el infinito, el universo y los mundos"

BERPIZKUNDE GARAIKO FILOSOFIA POLITIKOA

-Testuingurua: feudalismotik absolutismorako saltoa egiten da. Botere zentralizatuak sortzen dira lur eremu zabalak kontrolatzeko (Espainia, Frantzia, Ingalaterra). Kontzientzia nazional eta linguistikoak sortzen dira (en parte hizkuntza bulgarren garapenak bultzaturik). Erreformaren eragina nabaria da politikan.

-MAKIAVELO

-1469-1527

-Florentziarra. Hiri estatu horren garairik oparoena ezagutu zuen. Florentzia Erromaren aurkako borrokaren burua zen (Cesar Borgia vs Lorenzo Medici)

-1513: "El Principe" Lorenzo Mediciri zuzendutako obra da eta printzearen eredua, hain zuzen, Cesar Borgia da. Etika eta politika guztiz aldendu egiten ditu Makiavelok

-Jean Bodin (1550): soberaniaren kontzeptua garatu zuen, absolutismoa defendatuz (soberania osoa erregearengan ipintzen zuen).

Johannes Althusius(1557): herriaren kontzeptua garatu eta soberaniaren zentrotzat jotzen du. Kontratu bidez soberania erregearengan delegatu ahalko da

Hugo Grocio (1583): zuzenbide naturala eta zuzenbide positiboa parez-pare jartzen ditu. Agintariak muga etikoen barnean gobernatu behar dutela aldarrikatzen du, legeak errespetatuz

BERPIZKUNDE GARAIKO ERREFORMA ERLIJIOSOAK

Protestante: pro(aldekoa)+testare(testifikazioa). Ikuspegi katolikotik kutsu negatiboa ezarri nahi izan zitzaion, protestarekin lotuz.

Testuingurua: 1054: berezitu egiten dira guztiz mendebaldeko eta ekialdeko eliza kristauak. 1309-1378: aldi berean bi Papa egon zire(Avignonen eta Erroman)

Erreformaren hasiera: 1517, Luterok Wittenbergeko elizako atean 95 tesi famatu horiek idatzi ondoren hasi zen. Eliza katolikoaren alderdi ezberdinak kritikatzeko zituen (ustelkeria, zergak, hainbat alderdi doktrinal...). 1530ean lehenbiziko eliza Ebangelikoa/Protestantea sortzen da (Ebangelioak esandakoa zuzenean ulertzea aldarrikatzen zuten, bitartekari eta interpretazio arrarorik gabe). Fedeari lehentasuna emanaz Eliza Instituzioari eta apaizgoari bigarren maila bat ezartzen dio.

Calvino (1509-1564): Luteranoa izan arren, Ebangelikoengandik berezitu eta Eliza Erreformatua sortu zuen. Bere jarraitzaileei hugonote deitzen zaie (Erromatik jarritako etiketa negatiboa). Honi jarraiki Ingalaterran kuakeroak eta Alemanian pietistak sortu ziren.

NATUR ZIENTZIAK ETA METODO ZIENTIFIKOA

-Humanismoaren eraginaren ondorioz erlijioan eta politikan teozentrismotik antropozentrismorako saltoa dago eta natur zientzietan geozentrismotik heliozentrismorako bidea. Aurkako bideak dirudite, aurrenekoan erlatibismoa edo eszeptikotasuna indartzen da eta bigarreanean erantzun bakar eta absoluto baten nahia.

- Metodo zientifikoaren etorrera: behaketari garrantzia (Arisen izaera oso metafisikoaren aurka, baina ez Platonen alde), esperientziaz kontrolatua (esperientziaren bidez teoriak onartu edo baztertu egingo dira), hipotesiak (galdera bezala funtzionatu du eta esperimenduaren bidez erantzun dute), matematika, ikuskera mekanizista (teleologiaren aurka, natura organismo gisa ikusteaz uzten da)...

Errealitatea bere horretan ezagutu nahi da "gizakia gauza guztien neurria" dela dioen ideien aurka.

-KOPERNIKO (1473-1543): Polonia. Ofizialki heliozentrismoaren lehenbiziko defendatzailea da (K.a. IIIan Aristarko de Samosek ere proposatu zuen). "Sobre el movimiento de las esferas celestes": Ptolomeoren geozentrismoaren aurka eta, beraz, erlijioaren aurka ere

-KEPLER (1571-1630): Alemana. Austriako enperadorearen matematikari ofiziala. Orbita eliptikoak planteatu zituen.

-GALILEO(1564-1642): Florentzian egin zuen lan, Estados Pontificiosen aurkako gatazkan zehar. Naturaren irudi matematikoa du.

-FRANCIS BACON (1561-1626):

- Filosofikoki sistematizatu nahi du metodo zientifikoa

-“Novum organum”: Arisen “Organon” obran oinarrituz zientzia egin ezin dugula doi eta metodo berria proposatzen du.

-Idoloak=prejuizio okerrak. 1) Idola tribus: gauzak gizaki moduan ikusten ditugu 2) Idola specus(de la caverna): subjektibismoa, indibiduala 3) Idola fori: hizkuntzarekin lotua 4) Idola teatre: eskola edo korrante filosofikoek esandakoa ez dugu zertan aintzat hartu behar, autoritate sendoak izan arren

- Nola eraiki zientzia? Filo eta teologia bereiztu, mekanizismoa indartu, teologiaren aurka, silogistika aristoteliarrak ez du balio (indukzioa egin behar da).

2. GAIA: RAZIONALISMOA (MODERNITATEA)

ZER DA MODERNITATEA:

Modernitatea=subjektuaren filosofia (epistemologia). Modernitatearen aurretik zegoena: objektuaren filosofia (metafisika).

1. modernitatea (1600-1789): Descartes: abiapuntua sujetoa da ezagutzan
2. modernitatea (1789-1900) Kant: ezagutzaren abiapuntua eta erdigunea sujetoa da.

Berpizkunderan humanismoa (aniztasuna) eta zientzia modernoa (bataasuna) garatzen dira. Descartes humanismoaren aurka eta zientziaren alde egongo da.

1) ZER DA RAZIONALISMOA?

- Kontzeptu zentralak: arrazoa (gizakia animaliatik ezberdintzen duena, argumentazioa eta logosa)

Antzinaroa: arrazoa errealitatea bere baitan ezagutzeko bitartekoa da. Erdi Aroan fedeak ezagutuko du arrazoiak bere mugengatik ezagutu ezin duena. Modernitatean esperimenduak arrazoa kuestionatu egingo du talka egiten dutenetan. Komunean: erantzun bakar baten nahia eta erantzun hori transmititu ahal izatea. Garaiek aurrera egin ahala desteologizazioa edo sekularizazioa eman da.

-Razionalismo kontzeptua. Psikologia: emozioak, borondatea, etab. Fuera. Epistemologia: aurkako enpirismoa. Metafisika: realismo enpirikoa (naturak beharrezkotasunez jokatzen du eta inteligiblea da).

-Razionalismo kontinentalaren oinarria (Kanten aurrekoa):

1) Aurka: enpirismo britanikoa

2) Sistema deduktibo bat eskaini nahi dute apriorizko ideia batetik abiatuta, dena sistema horren baitan ulertzeko

3) Matematika: egia matematikoak berezko egiak dira, razionalistek miresten dutena. Errealitateari aplikatu nahi diote logika eta matematika.

4) Eszeptizismoaren mamua:

-Montaigne (1533-1592). Frantziako Erlijio Gerretan mediazio lanak egin nahi izan zituen bando ezberdinen artean, ikuspuntu eszeptiko edo erlatibista batetik. Pirronismoa jarraitu zuen. Descartesek aurka egin zion.

- Charron. 1541-1603. Apaiz heterodoxoa: erlijioa eta etika berezitearen alde, Montaigneren ideiak jarraituz. Tolerantzia erlijiosoaren aldekoa eta panteismotik gertukoa.

- Autoreak:

1) Descartes: modernitatearen aita. Dualismoa: existentsiak bi soporte dituela baieztatzen du (res cogitans eta extensa)

2) Spinoza: Descartesaren garapen estatikoa. Monista da: substantzia bakarra dago, agerpen ezberdinetan.

3) Leibniz: Descartesaren garapen dinamikoa: pluralista da, "Monadologia": monas=unidad.

René Descartes (1596-1650)

-Berpizkundearen aurka (humanismoa) eta, aldi berean, alde (zientzia)

Bizitza:

-Frantziar jaioa

-La Fléche jesuiten eskolan ikasi zuen. Ondoren jurisprudencia ikasi zuen (zuzenbidea) eta ejerzitoan soldadu aritu zen lanean.

-1619: arrazoiaren bidez egia aurkitzea bere bizitzako misioa zela deskubritu zuen.

-Filosofia: uste osoa arrazoiaren baitan fidatu nahi zuen eta oinarria matematika zuen. Eszeptizismoari kritika eta planteamendu erlatiboaren aurkakoa

- 1633-34: "Tratado del Mundo": bukatzen ari zen obra urte horietan. Galileo urte horretan kondenatu zuten eta Desek antzeko ideiak defendatzen zituen heliozentrismoari buruz, ez zuen publikatu ("por sincera sumisión a las autoridades eclesiásticas").

- 1628: "Reglas para la dirección de la mente"

-1637: "Metodoaren diskusurtoa": sarrera bat da beste obretan landutako gai zientifikoentzak

-1641: "Mediazio metafisikoak"

Descartesen filosofia:

1) Abiapuntua: zalantza metodikoa. Helburua: Egiaren bilaketa, soilik arrazoia erabiliz. Egoa-sistema bat eraiki nahi du, egia guztiak bilduko dituen eta denak oinarri ahalik eta sinpleenetan funtsatuko dira. Filosofia zientifikoa eraiki nahi du. Erroak: metafisika, enborra: fisika, adarrak: medizina, etika, mekanika, morala, etab.

Zalantzan jartzen ditu garaia bitarteko egien oinarriak. Ideia nahasiak saihestu nahi ditu. Ideia argi eta bereziak (ebidenteak, $2+2=4$) nilatu nahi ditu eta ezagutzaren oinarriak ipini. Oinarriak: ideia zalantzaezin eta zatiezinak.

2) Metodoa: metodo bakarra, zientzia bakarra eta ezagutza bakarra eraiki nahi ditu. Lau pauso daude bere metodo analitikoan: aurreiritziak ezabatu, arazoak zatitu eta analizatu, berkonposizioa (sintesia) eta matematikaren bidez metodoa matematioki egiaztatu eta ordenatzea.

3) Zalantza: dena jartzen du zalantzan. Zalantza hori unibertsala, metodikoa, probisionala eta teorikoa da. Matematika eta logika ere zalantzan jartzen ditu, genio maltzur bat engainatzen egon daitekeelako Descartes bera.

4) Zalantzaren emaitzak: "COGITO ERGO SUM": Agustinek dagoeneko formulatu zuen berdina bere garaian (si fallor sum). Ondorioepistemologikoak: oinarri argi eta berezi horretatik abiatuz aurkitzen dituen egia ergi eta bereziak onartu egingo ditu; ideia innatoen teoria onartuko du; Cogitotik kanpora: Jainkoaren ideia argia eta

bereizia da eta, beraz, onartu egingo du eta Jainkoak sorturiko mundua, ondorioz, erreal da.

Nik badakit ni banaizela, Jainkoa badela eta Mundua badela.

5) Bi substantzien teoria:

- Substantzia oinarrian edo azpian dagoena bezala ulertu behar da. Def: existitzeko beste ezeren beharrik ez duena.

- Substantzia sortzaile eta infinitoa: Jainkoa. Substantzia sortu eta finitoak: res cogitans eta res extensa (res=substantzia, soportea, "benetako gauza"). Behin Jainkoak sortu egin dituela, autonomoak dira Jainkoarekiko.

-Dualismo antropologikoa:

Aris: substantzia= materia+forma.

Gizakia res cogitans zehazten du hobeto, baina hain loturik dago bestearekin, ia bereizi ezinak direla. Lotura glandula pinealean ematen omen da, espiritu (soplo) animaliei esker (odolaren atal sutilenak dira eta glandulatik odolera eta alderantziz igarotzen dira, arima eta gorputzaren arteko lotura gauzatuz.

6) Ondorioak/ondoren:

-Erroman, Parisko unibetsitatean, Holandan, etab. debekatu egin zuten XVIIIan. Ilustrazioan oinarri gisa hartu zuten Descartes.

- Pascal (1623-1662): Descartes puntu bateraino onartu arren, ez du antropologia konpartitzen, ezta Jainkoaren inguruko ikuspegia (Jainko filosofikoa eta tradizionala bereiztea aldarrikatzen du). Hain arrazionalismo muturrekoari aurre giten dio, mistikoagoa baita.

-Malebranche (1638-1715): Descartes en ia guztia onartzen du. Okasionalismoa defendatzen zuen: ez zuen argi ikusten Descartes en bi res-en lotura eta, beraz, Jainkoaren interbentzioak gauzatzen du uneoro bere aburuz lotura eta ia bat bera dira bi substantziak.

Baruck Spinoza (1632-1677)

Bizitza/pertsona:

- Izena, Baruck: Benedicto izena hebraieraz da. Familia judutarrekoa da, Espainiatik Portugalera mugiturikoa eta, ondoren, Holandara. Bertan jaio zen Baruck.

- Hezkuntza judutar zorrotza jaso zuen

- Lana: pulidor de lentes

- 1673: Heidelbergean katedradun lan egiteko eskaini eta ezezkua eman zion asktauna murriztuo ziolakoan

1656: kanporatu egin zuten Sinagogatik. (Toki askotatik kanporatu zuten: el pensador maldito)

1663: "Descartesen filosofiaren printzipioak"

1670: "Tratado teologiko politiko"

1677: "Etika demostrada según el orden geométrico" (Etika=epistemologia, morala, metafisika, etab. Geometrikoa=matematikoa. Oso modu sistematikoan idazten du; sistema deduktibo bat eraiki nahi du; razionalismo ia ideala da)

Metafisika:

- Muina: substantzia bakarra (Deus sive Natura". Jainkoa=Natura, Ama Lurraren antzekoa)

- Abiapuntua: Descartes

- Substantzia bakarra eta infinitua dago (Jainkoa, natura naturans). Materia eta pentsamendua substantzia bakar horren agerpen, modu edo atributuak dira eta finitua dira (natura naturata). Descartesen garapen monista da.

Panteismoa: dena da Jainkoa eta berdina da Jainkoaz edo naturaz hitz egitea. Jainkoa inpersonala dela eta imanentzia aldarrikatzen du oro har panteismoaren bidez.

Nicolas Kusakoa: "Complicatio": gauza finitua bakarra. "Explicatio": munduaren alderdi ezberdinen azalpena, gauza finitua bakar horren parte direla aintzat hartuz.

Spinozak Jainkoari buruz duen ikuspegia guztiz aldentzen da ikuspegi tradizioaletik. Jainkoa errealitatearen osotasunari deitzen dio (naturari). Jainkoaren borondatea beharrezkotasun naturalarengatik ordezkutzen du. Hortaz, mundua ez da Jainkoaren

borondate askeaz sortzen. Natura=cadena infinita de causas infinitas. Causa del ser es la propia naturaleza. Teologia ukatu egiten du, mekanizismoaren alde.

-Ezagutza mailak:

- 1) Sensoriala: gizakiak modu pasiboan eskuratzen duena. Ez da beti ziurra: "útil para la vida"
- 2) Razionala: aktiboki eskuratua. Kontzeptualizatuz lortzen da, lanketa eta analisiaren bidez.
- 3) Intuitiboa: holistikoa da: guztia konektatua egotearen intuizioa da. Ulertzen dugunean dena loturik dagoela aske sentitzen gara.

Antropologia:

-Monismoa: Des dualista da. Gizakia substantzia bakarrak osatzen du, substantzia infinituaren bi atribuzio direnak. Descartesen loturaren arazoa konpontzen du horrela. *Mente=idea del cuerpo*.

-Afektuen/pasioen teoria (gizakiaren portaeraren teoria):

- Conatus: bizirauteko eta garatzeko joera naturala da, izaki orok duena. Gizakiaren kasuan konszientea da. Conatus konszientea desioa da. Desioa betetzean poza edo atsegina izaten dugu eta hortik maitasuna eratortzen da. Desioa bete ezean, tristura edo mina eta hortik gorrotoa eratortzen da. (Psikoanalisiak bezala, giza portaeraren lehen kausa edo muina bilatu nahi du)

-Etika: askatasuna nola azaldu? Zerbait ona edo txarra da desioaren prozesuan lagundu edo kalte egin badu kontuan hartuz. Afektuak aztertuz ezagutuko dugu morala/etika. Askatasuna=halabeharrezkotasunaz ohartzea.

Gottfried Wilhelm Leibniz (1646-1716)

Bizitza:

- Hannoverreko jauntxoaren liburuzaina zen.

-Goi-mailako gizartean murgildua

-Harmonia: dena lotura harmoniko batean dagoela sinisten du (bide horretatik erlijio gerak konpondu nahi zituen)

-1700: Berlingo Arteen eta Zientzien Akademia sortu zen eta Leibniz promotorea izan zen

-“Enciclopedia humana” bat bezalakoa zen: oso alor anitzetan zen aditua.

-1666: “De ars combinatoria” (arte de combinar”

-1701-1709 tartean idatzi eta 1765ean argitaratua: "Nuevos ensayos sobre el entendimiento humano".

Logika:

-Kalkulua: posible izan behar du kalkulu bidez modu sistematikoan egia aurkitzea (egia bilatzean okerrak egiten baditugu kalkuluan egindako oker baten ondorioa izango da. Giza kontuetan bai). Entziklopedia bat sortu nahi du ezagutza zientifiko guztia sistema bakar baten baitan gordetzeko.

-Characteristica universalis: hizkuntza unibertsalak/logikoak posiblea izan behar du, arrazonamenduak unibertsalki ebaluatzeko.

-Hizkuntzak aztertzen ditu. Lehenbizikoa da hizkuntza guztiak aztertu nahi izan zituena, denek baitute zer aportatu bere ustez. Dena ezkontzerik badagoela sinesten du (harmonia).

Ezagutza: "arrazoi egiak" (logika, mate. Apriorizkoak eta analitikoak) eta "gertakari egiak" (enpirikoak. Aposteriorizkoak eta sintetikoak) bereizten ditu.

-Ez dago adimenean esperientziatik ez datorren ezer, adimena bera salbu. Berezkoa dugu adimena bera eta adimenaren bidez arrazoitzeko gaitasuna. Predisposizio horrtean datza apriorizkotasuna.

- Panlogismoa eta substantziaren ideia: nola lotu unibertsala eta singularra? Badago kontzeptu unibertsala (gizakia) eta unibertsalaren ezaugarria dituen singularra (Imanol)

Metafisika: Monadologia

-Errealitatea monada izeneko substantzia sinpleenek osatzen dute. Modu metaforiko edo metafisikoan ulertu behar dira eta ez, ordea, modu fisiko edo logikoan. Monaden izaera aktibotasunean datza.

-Harmonia: monadak harmonikoki elkartzen dira gorputz konplexuagoak osatzeko. Harmonia horretan dena mekanismo baten barruan eta prozedura finalista baten baitan ulertu behar da

-Ideia innatoak: Lockeren ideia innatoei eginiko kritika modulatu egiten du. Baditugu - hainbat ideia innato adimenak errealitatea behatu gabe ezagutzen dituenak: izatea, substantzia, osotasuna, unitatea, kausa, etab.

-Christian Wolff: Leibnizen jarraitzailea da eta Leibnizen pentsamendua sintetizatu eta eskolarizatu zuen (ez oso modu egokian, okerrak sortu baitzituen Leibniz ulertzeko moduan. Ez zuen jaso Leibnizen izaera metaforikoa)

3.

GAIA: ENPIRISMOA

ZER DA ENPIRISMOA:

Konzeptuak:

- *Esperientzia*: 1) Zerbait antzeman, kanpo errealitateaz ohartu 2) Zerbait antzeman zentzumenen bidez 3) Praktikarekin loturiko ezagutza 4) Judizio baten egiaztapena errealitatearekin kontrastatuz 5) Barne bizipena, esperientzia subjektiboa. Lehenbiziko lauak kanpo esperientziarekin lotzen dira eta bostgarrena barne esperientziarekin.

- *Enpirismoa*: 1) Modu psikologikoa: ezagutzaren jatorriari erreparatzen dio: esperientzia sensiblea 2) Epistemologikoa: ezagutza ororen baliozkotasuna esperientzian datza 3) Metafisikoa: soilik esperientzia sensibleaz hauteman daitekena da errealia. Errealitatearen inteligibilitatea soilik sensiblea da.

"Historia":

- Antzinaroa: Aristoteles enpiristatzat jo daiteke Platonekin alderatuz gero. Epikurearrak eta eszeptikoak ere nolabait jo daitezke enpiristatzat gainontzeko eskolekin alderatuz.

- Erdi Aroan: Grosseteste: Oxfordeko eskolaren sortzailea. Roger Bacon: fede hutaren aurka, ohituren aurka, azientifikotasunaren aurka, matematika da zientzien fundamentua. Ezagutza esperientzian oinarritzen da eta natur zientziak esperientziarekin kontrastatu behar dira. Tomas Akinokoa: arrazoia eta fedearen banaketak kutsu enpirikoa ematen dio. Ockham.

Kanten aurreko enpirismo britanikoa (razionalismo kontinentalaren aurkakoa):

- Ezagutzaren abiapuntua: esperientzia enpirikoa. Berpizkundeko zientzia: indukzioari indarra (Bacon); honekin zientzia probablea dena aurreikusten arituko da, ez ziurra dena (eszeptizismoari bidea irekitzen dio). "Aurka": dedukzio matematikoa (arrazionalistak)
- Enpirismo britaniarraren aurrekaria: Hobbes (1588-1679). Descartesen garaikidea da. Francis Baconen idazkaria izan zen gaztetan. POLITIKA: Leviathan (oinarrian esperientzia duen planteamendu politikoa???? Gizakia errealitatean nola den aztertzen du)
- Zientziaren eragina:

1. Boyle (1627-1691): Lockeren oso gertukoa, harremana izan zuten. Esperimentazioaren bidez planteamendu metafisiko finalistei aurre egiten die.
2. Newton (1642-1727): bere ikuskera zientifikoak eragin zuzena du filosofian (Locke, Kant, etab.). Indukzioaren eta probabilitatearen garrantzia indartu zuen; Platonismotik urrundu, matematika natura aztertzeko instrumentua da errealitatearen oinarria edo zerizana zehazten duena baino, etab.

- Autoreak:

1. Locke: enpirismo britainiar klasikoaren "aita". Lehenbizikoa da giza adimena esplizituki lantzen duena (zer da ezagutzea? Ideia kontzeptua lantzen du)
2. Berkeley: Lockeren enpirismoa erradikalizatu egiten du. Substantzia materiala ukatu egiten du eta idealismora iristen da. Ari beretik hizkuntzaren filosofia garatzen du)
3. Hume: Rousseuren garaikidea da eta harremana izan zuten (biak arrazionalismoaren aurka).

LOCKE, John (1632-1704):

Bizitza:

- Spinozaren adinkidea
- Grekoa eta erretorika ikasi zituen eta, alor horietan irakasle aritu ondoren, medikuntza ikasi zuen. Oxfordeko eskolan ikasi zuen: tradizionalki antiaristoteliarra (finalismoaren aurka, kausa finalaren aurka)
- 1688: Ingalaterrako Iraultza Loriatsua: monarkia parlamentarioa ezarri zen monarkia absolutistaren ordez. Locke ideologoetako bat izan zen.
- 1689: "Giza adimenari buruzko entseiua". Idatzi aurretik eztabaida handia izan zuen ezagutzaren inguruan eta obra eztabaidari egindako erantzun gisa uler daiteke.

Ezagutzaren teoria: (innatismoari eginiko kritikatik enpirismoaren formulaziora).

- Innatismoa: hay ciertas ideas que pertenecen al alma del humano que no provienen de fuera(Platon: oroitzapena). Begiak itxi eta geure barnean bilatu behar dugu ezagutza, arrazoitik etorriko baita egia.
- Kritika innatismoari (Locke): innatoak badira unibertsalak eta zalantzaezinak izan behar dute(gizaki orok berdinak izan beharko lituzke), baina ikusi daiteke eztabaidak daudela eta, beraz, zalantzarriak direla. Hala ere, badugu berezko gaitasun bat ideiak ezagutzeko. Tabula rasa: esperientziari esker geure adimen hutsa ezagutza eskuratuz doa.
- Esperientzia eta ideien lotura: ezagutzen dugu guztia esperientziaren bidez ezagutzen dugun horren ideia da. Ideia errepresentazio bat da. Esperientzia=ideia iturri bakarra (kanpo eta barne esperientzia biltzen ditu)
- Ezagutza=ideien arteko akordio edo desakordioa ulertzea (fitxa)
- Ezagutza graduak: 1) Intuitiboa: espirituak ideien arteko akordio edo desakordioa hautematen du bat-batekoan (de inmediato). 2) Demostratiboa: arrazonamendu bidez eskuratutakoa 3) Sentsiblea: partikularrei buruzko ezagutza.
- Ezagutza motak: 1) Aniztasuana edo identitatea: ideia bakoitza espontaneoki ikus dezakegu bere buruaren identikoa edo ezberdina den 2) Erlazioa: proposizio bat eta beste baten artean dauden ideia intermedioak aurkitzeko gaitasuna 3) koexistentzia edo beharrezko konexioa: esperientziaren irismen berdina du. Ideia batek substantziaren ideia konplexua osatzen duen edo ez jakitean datza. 4) Benetako existentzia: ezagutza intuitiboa da, baina nork bere buruaren existentziaren inguruan duena eta guztiz ziurra da (Descartes)

Filosofia praktikoa:

1.

Etika:

- Asunto etikoak matematikaren parekatzen ditu, biak demostragarriak direla baieztatuz (ideal arrazionalista)

- Hedonismo utilitarista (Spinozaren conatus eta desioarekin loturik): naturalki atsegina dena bilatu eta atsekabea ekiditen dugu. Hori izango da balorazio etikoak egiteko irizpidea.

-Legeak: 1: Jainkozkoak: naturalak (apriorizkoak). Adib: hiltzea gaizki dago. Zigorra: zigorrak dibinoak. 2: Zibilak: Estatu batean adostuak. Ez dago jinkozko

legeekiko kontraesanik, baina zalantza egonez gero, jainkozkoei egin kasu. Zigorra: kartzela adibidez. 3: filosofikoak: iritzi publikoa: el qué dirán. Zigorra: gainontzekoen gutxiespena.

2.

Politika:

- Oinarrian: lege naturala (gizakiari propio dagokiona). Egoera naturala harmoniatsua bailitzan irudikatzen du.
- Kontratu soziala: lehen paktoa: gizarte antolakuntzaren osaketa lege naturala errespetatzeko eta boterea delegatu egiten da botere batean. Bigarren paktoa: botere banaketa.
- 1688: Iraultza Lariatsua. Monarkia absolututik monarkia parlamentaria. Locke parlamentu mixtoaren ideologoetako bat izanzen.
- Jabetza pribatuaren aldekoa, baina kutsu positibo batekin: indibiduo bakoitzaren garapena gauzatuko den eremua eremu pribatua da.
- Hezkuntza: bertutea eta gorputza landu, programaketa...
- Erligio politika: tolerantziaren alde, estatuak indibiduoaren erlijiosotasunean ez du esku hartu behar.
- D'Alambert: "Locke creó la metafísica al igual que Newton inventó la física". Metafisikaren ordeztasun epistemologia jarri.

BERKELEY, George (1685-1753)

Bizitza

- Empirista idealista da. Res extensa ukatu egiten du, res cogitans baino ez du onartzen.
- Apaiz anglikanoa da (gotzaia izan zen)
- Materialismoa kritikatu du interes erlijiosoaren alde.

Nominalismoa:

- Ideia abstraktuak (unibertsalak): zer dira? Nolako existentzia dute? Zer entitate mota dira? Entitate errealak ez direla baieztatzen du, nominalista da.

-1709: "Ensayos sobre una nueva teoría de la visión": gauzen ideiak ezagutzen ditugu. Gauzak hautematen ditugun moduan ezagutzen ditugu. Esentzia=pertzibitua izatea eta existentzia=pertzibitua izatea. Kanpo mundua ez da existitzen geure pertzepzioetik kanpo.

Adib: mahai bat existitzen da pertzepzioetik at, baina pertzibitua izateko potentzialitatean dagoelako.

-1710: "Giza ezagutzaren printzipioei buruzko tratatua": ez ditugu ideia unibertsalak ezagutzen, baizik eta indibiduo partikularrak. Unibertsal batean pentsatzen dugula uste arren, beti pentsatzen dugu indibiduo jakin batean. Nominalismo erradikala defendatzen du: unibertsala indibiduoarengatik ordezkatu arren, izen hutsa da.

FITXA: ezin da ulertu mundu materiala pertzepzioetik kanpo existentziari dagokionez; objektu materialak=zentzumenen bidez hautematen ditugun horiek; obhektuen ezaugarriak (koloreak, tenperatura, etab.)= zentzumenen sentsazio, ideia edo nozioak; ezin da imaginatu mundu bat zentzumenetatik hautemandakotik kanpo.

Inmaterialismoa:

- Abiapuntua: Descartesen cogittoa (ezin da zalantzan jarri). Soilik substantzia espiritual hori da erreala.

-Erljioa

HUME, David (1711-1776)

Bizitza

- Eskoziarra

-Rousseauren adin berekoa (1712-1778). Elkar ezagutu zuten eta biak kontsideratzen dira 1. Modernitatearen azken autoretzat.

- Zuzenbidea ikasi zuen. Edinburgon eta Glasgownen irakasle sartu izan nahi zuen, baina atea izateagatik kanpoan utzi zuten.

- 1739-49: "Giza naturari buruzko tratatua": giza natura

- 1748: "Giza ezagutzari buruzko ikerketa". Giza ezagutza.

- 1751: "Moralaren printzipioei buruzko ikerketa". Gia morala.

Giza adimenari buruz (ezagutza):

- Adimenaren edukiak: pertzepzio edo hautemateak (inpresioak eta ideiak).

Ezagutzaren oinarrian esperientzia dago (batez ere sensiblea). Hortik inpresioak datoz (kanpo errealitateak gudan edo gure gogamenean utzitako "arrastoa"). Inpresiotik ideiak datoz (inpresioen irudiak).

Eskema horretatik kanpo dagoen ideia oro, hau da, inpresio batetik ez datorrena eta, beraz, esperientziatik ez datorrena, sasi-idea izango da.

-Ideen inguruko lanketa/erreflexioa:

1) Memoria: ideiak berreskuratzeko gaitasuna da.

2) Irudimena: konbinatzeko gaitasuna da, ideiak erlazionatu eta, neurri batean, berriak sortzeko. Asoziazioz lotzen dira ideiak eta hiru asoziazio mota daude:

1) Antzekotasuna: gauza baten inpresioa dugunean, atzeko gauza baten ideia gogora etortzen zaigu

2) Hurbiltasuna: bi gauza beti elkarrekin ezagutu izan baditugu, bietako baten inpresioa edukitzean beste gauzaren ideia datorkigu (espazio eta denborazkoa da)

3) Kausalitatea: mila aldiz ikustearen onodrioz, zerbaiten ondorioa ikustean haren kausaren ideiaz gogoratzen gara (kea ikustean suaren ideia datorkigu)

- Ezagutza motak:

1) Ideien erlazio hutsak: logika eta matematika. Ez dute esperientziarik behar. Deduktiboak.

2) Izateko zerak/gertakarizko auziak: aposteriorizko ideiak (sintetikoak). Demostrazio enpirikoa behar dute. Induktiboak. Soilik iraganera begira induzitu daiteke; eszeptikotasunean erortzen gara indukzioaz etorkizunean hitz egitean (nola ziurtatu indukzio bidez bihar ziur aterako dela eguzkia?).

Metafisikaren kritika:

- Kausalitateari kritika: ezin da apriori ezagutu kausalitatea, baizik eta aposteriori (ezin da induzitu). Aposteriori jakin daiteke eguzkia atera dela, inola ere ez aposteriori.

Ez da pritzipio metaisikoa kausalitatea (baliabide epistemologikoa da).

FITXA:

- Substantziaren errealitatea metafisikoaren kritika: substantzia (res) ideien multzo bat baino ez da. Res cogitansi buruz ezin da ezagutza terminoetan hitz egin; ideia hutsa da edo kontzeptu hutsa. Gainera, apoteriori hitze giten dugu substantziaz.
- Eszeptizismo akademikoa (vs pirronismoa)

Filosofia praktikoa:

- Etika: moralean paper garrantzitsuena arrazoiak eta sentimendu moralak dute (bigarrenak gehiago). Esperimentalki azaldu nahi du moralak edo etika. Zerbait ebaluatzean kontuan hartuko dena indibiduoari edo komunitateari atsegina sortzen dion edo ez izango da (norberarekiko maitasuna eta sinpatiaren bidez hurrenez-hurren). Modu intersubjektiboan eraikitzen dira legeak, kasu partikularretatik abstrakzioak eginez.

-Politika: kontratu soziala: gizakiok adostu egiten dugu gizarte batean elkartzea abantailak ekarriko dizkigulakoan: bake eta segurtasuna. Justizia eta obedientzia ezinbestekotzat ditu orden politikoa mantentzeko. Sinpatia ezinbestekoa da: Estatu osoaren ongizatearen alde egitea bultzatzen dubanakoa.

IV. GAIA: ILUSTRAZIOA

Sarrera: zer da ilustrazioa?

- Kontzeptua:

- “Argia” metafora gisa, arrazoiaren indartzearen metafora gisa. “Luz” kontzeptuarekin du lotura. Adib: “Pertsona hori argia da”, “Tiene pocas luces”, “Es un iluminado”.

- Antzinaroa: 1) Persia/Babilonia: argia=bizitza. 2) Grezia klasikoa: argia= ulergarritasuna. Platon: haitzuloaren mitoa. 3) Biblia: argia=Jainkoa.

-Erdi Aroan: 1) Agustín: “Hay una luz eterna de la razón”. Argi horrek ulergarria dena ezagutzen laguntzen digu. 2) Tomás: nahiz eta arrazoiari autonomia eta enpiriari indarra eman, eskema bera mantentzen du.

- Modernitatea: arrazoimenaren autonomiaren indartzea.

- XVIItik XVIIIrako aldaketa. 1) Arrazoia ulertzeko modua. XVII: egia bat ezagutzeko printzipioa. XVIII: indarra da, eraldaketa soziala bultzatuko duena. 2) Filosofia egiteko modua. XVII: filosofo handi gutxi; sistema handiak eta garatuak. XVIII: filosofo txiki asko; filosofia dibulgatiboagoa eta ez-sistematikoa. 3) Kezka nagusiak. XVII: zientzia. XVIII: politika, gizartea, antropologia, etab.

- "Ilustrazioa" kontzeptu bihurtzen da. Berezko esanahi bat hartzen du XVIIIan. Arrazoiaren autonomia eta askatasuna alor orotan: kritikaren garrantzia, prentsa askatasuna, etab. Progresoarekiko fedea (askapena gertatuko dela sinesten dute)

- Ilustrazioaren garaiko filosofia.

- D'Alembert 1758 (fitxa): "cambio notable a nuestras ideas...nuestra época gusta de llamarse la época de la filosofía (filoren barruan sartu jarduera arrazional oro)...la filosofía ha realizado entre nosotros grandes progresos...se conoce, por fin, el verdadero sistema del mundo, desarrollado y perfeccionado...todo ha sido discutido, analizado, removido...una nueva luz se vierte sobre muchos objetos y nuevas oscuridades los cubren...". Metodo berria: analisia sistemaren aurka; Newton Descartesen aurka.

- Helburu orokorra praktikoagoa da teorikoa baino. Diderot: helburua=pentsatzeko modua aldatzea.

- Kasu berezi bat: Giambattista Vico (1669-1744): kontrakorriente doa. Humanistagoa da gainontzekoekin alderatuz gero. Gehiegizko arrazionalismoa kritikatzeko zuen historia, hizkuntza, kultura eta natzeko alorren alde gehiago eginez. Gizakia produktu historiko, kultural eta linguistiko gisa ulertzen du: aniztasunaren aldekoa.

Ilustrazioaren garapen historikoa:

1.

INGALATERRAN: Ilustrazio frantsesaren inspirazioa.

- Locke (1688):

- Deismoa: erlijioa ulertzeko modua da: arrazoia eta fedearen arteko erabateko bereizketa.

- Aniztasunak eragina du bere pentsamenduan, Ingalaterran erlijio aniztasun handia baitzegoen.

- Sentimendu moralak: apriorizko gaitasun batekin gauza bat ondo dagoen ala ez esan dezakegu.

- Adam Smith: sentimendu moralaren alde egiten du: sinpatia. Ia intuitiboa da moralak.

- Enpirismoak indar handia du Ilustrazio honetan

2.

FRANTZIAN: Ilustrazio ingelesaren erradikalizazioa.

- Louis XIV, XV eta XVI: 1715ean, 1774 ean eta 1792an hil ziren, hurrenez-hurren. Absolutistak ziren. Horren aurka garatuko da Ilustrazioa.

- Entziklopedia: 28 tomo, 1751 eta 1780 artean argitaratuak. Ezagutza nola ulertzen zuten islatzen du: eraikuntza bat, finitua eta dena inteligiblea dela uste dute. Jakintza arlo itxia dela sinesten dute. Ideologoak: Diderot, D'Alambert, D'Holbach. Mentalitate kuadrikulatua dute.

-Panteismoa eta ateismoaren hedapena.

3.

ALEMANIA: Ilustrazio berezi bat.

- 1750 arte: Wolf (razionalista; Leibnizen eragina du). Gaiak: iusnaturalismoa (lege naturala. Lege zibilak eta politikoak lege naturalekin nola uztartzea da kezka nagusietako bat.

- 1740-1780: Federiko Handiaren erregealdiaren urteak dira. Filosofoa zen eta errege filosofotzat zuen bere burua. Oso tolerantia zen. Obra: "Antimakiavelo": 1740ekoa, frantsesez idatzia, Voltairek editatua.

Errege honekin ez zen iraultza beharrik ikusten, nolabait esatearren, jendea gustura zegoelako berarekin.

- Lessing: planteamendu deistaren alde. Jakobi: Lessing atea da. Mendelsson: ez da atea, erlijioa ulertzeko beste modu bat du.

- Ilustratu hauek politikaz ez zuten hainbeste idatzi Frantzian bezala.

- Kant: Ilustrazioaren "gailurra". Ilustrazioa= pensar por sí mismo, no es época ilustrada, pero sí época de la Ilustración".

Montesquieu (1689-1755)

Bizitza:

- Noble familiakoa, diruduna.

- Garaia: Louis XIV eta XVaren erregetza absolutistak ezagutu zituen, bere pentsamendu politikoa baldintzatuko zuena.

-1688: Ingalaterrako sistema berriarekiko miresmena du Montesquieuk. Locke du eredu.

-Zuzenbidea ikasi zuen.

-1721: "Cartas Persas": nola ikusiko luke pertsiar batek Frantziako egoera politikoa?

-1748: "Legeen izpiritua"

Historia politikoaren ikerketa:

- Abiapuntua: soziologo positibista baten modura ulertu eta deskribatu nahi ditu modu konparatiboan gizarte ezberdinak. Sistema politikoen marko eta testuinguruak eztertzen ditu guztien artean elementu komun bat aurkitzeko asmoz.

- Helburua: historiaren filosofo gisa funtzionatzen du: gertakarien ulermen konparatiboa lortu nahi du (Newton du eredu: printzipioak ulertu nahi ditu). Nazio anitz orotan printzipio unibertsalek funtzionatzen dutela este du, ekintzen kausak direnak.

- Bitartekoa: "Legeen Izpiritua": "Izpiritu": oso present egongo da Ilustrazio osoan edo gerora etorritako Erromantizismoan. "Izaera" edo "nondik norakoa" bezala ulertu behar da. Legeek erantzun egiten diote nazio baten izpirituari edo izaerari (erlatibismo legala

ulertzen du hemen). Hortik abiatu behar da historiaren filosofia egiteko. Herri bakoitzak lege multzo jakin bat behar du eta politikariaren lanak horretara doitu behar du. A posteriori zehazten du izpiritua; ez du esentzialismo bat garatzen.

Tolerantzia eta erlatibismoaren aldeko argudioak ematen ditu bere obran (Pertsian edo Parisen heziak izanez gero, gauza ezberdinak desiratuko genituzke: ez dago zerbait ondo edo gaizki dagoen zerbait bere baitan).

Legeen azterketa:

- Faktore/baldintza naturalak:

1) Tamaina: herrialdeak handiagoak direnean monarkiarako joera dago; txikiagoak direnean errepublikarako joera.

2) Klima (zentzu oso zabalean ulertu behar da): geroz eta klima beroagoa, orduan eta sistema establegoak

3) Faktore sozialak: ekonomia, erlijioa, tradizioak...

Faktore horien gainean egiten da politika.

- Hiru gobernu mota:

1) Despotismoa (absolutismoa): printzipioa beldurra da gobernatzean (L'état c'est moi), erlijioak garrantzia handia du, ez dago konstituziorik, etab.

2) Monarkia (parlamentarioaz jarduten du, Ingalaterrakoa eredu duelarik): idealizatu egiten du Ingalaterrako monarkia parlamentarioa. Konstituzioaren arabera da. Gobernatzeko printzipioa: ohorea. Badaude tarteko botereak, ez dago pertsona edo talde batean aglutinaturik botere osoa.

3) Errepublika: printzipioa bertutea da. Bi mota daude: demokrazia eta arisokrazia (boterea zenbat pertsonaren eskutan dogoenaren arabera)

Botere banaketa eta askatasuna:

- Lockeren botere banaketa du eredu.

- 3 botere bereizten ditu: legegilea, betearazle, judiziala.

- Politikaren zeregina egoera klimatiko eta sozialera doitu behar da. Ideal baten forma imperfektu gisa ikusten du sistema politikoa.

- Askatasunaren defendatzaile sutsua da, botere banaketaren bidez lortuko dena eta legeak permititzen duena dela dio.

- AEBko konstituzioa eta Frantziar Iraultzako lehen konstituzioa Montesquieuren botere banaketan oinarritzen da.

- FITXA:

- Aniztasuna onartzen du, baina haren atzean uniformetasun bat bilatu nahi du.
- Iusnaturalismoa: lege positiboak giza erlazioen ondorengoak dira eta, beraz, gizartearen izaerara edo izipiritura doitu behar dira. Lege humanoak ez idra lege naturalak bezala: aldagarriak dira tokiz-toki eta askatuasunari esker ez ditugu derrigorrez betetzen.
- Lege naturala errespetatuz egin behar dira lege positiboak.
- Lege eta gobernu mota hoberena kontestuaren araberakoa izango da.
- Lege orokorra giza arrazoia da eta lege positiboak lege horren agerpen partikular pluralak dira.
- Askatasuna=lege positiboak betetzea, nazioaren izpirituaren arabera eraikiak baitira. Ezinbestekoa da askatasunaren alde botere banaketa burutzea.

VOLTAIRE, F.M. Arouet (1694-1778)

Bizitza:

- Familia dirudunekoa
- Jesuitekin ikasi zuen. Descartesez ez bezala, ez zituen bat ere gogoko.
- Louis XIVaren absolutismo gogorra bizi izan zuen. Feudalismoaren aurkakoa izan zen. Bastillan preso egon zen boterearen aurkako idazkiak argitaretzagatik eta, aske geratu ondoren, Voltaire goitizenarekin hasi zen sinatzen. 1726ean preso egon ondoren, desterratu egin zuten eta Ingalaterrara joan zen. Bertako sistema politikoa mirestu egiten zuen. Bueltan, rekonziliatu eta erregeak estatuko historiagile izendatu zuen. Hala ere, arazoak itzuli eta Alemaniara joan zen bertako erregearekin harremanetan jarritz.
- 1734: "Gutun filosofikoak": Ingalaterrako bizipenen ondorioz idatzia.
- 1736: metafisikari buruzko tratatua Leibnizen aurka.
- 1764: hiztegi filosofikoa idatzi zuen

Dogmatismoaren kritika:

- Elizari kritika: dogmaren eta fanatismoaren definizioen bidez egiten dio kritika, besteak beste. Tolerantziaren definizioak ere aurka egiten dio elizari (katolikoa).

- Deismo ilustratua (sinisduna da, baina instituzioaren aurkakoa). Deismoa ateismoan (erradikala) eta teismoan (moderatua) bereizten da; deismoa tartekoa da. Voltairek teismo hitza erabili arren, deismoaren aldekoa da.

Deismoa=tiende a equiparar la ley divina con la ley natural. Segun los teistas hay una tendencia a impersonalizar a Dios y por ello acusan de ateos a los deistas.

Voltairek teismo erabili arren, deismora gerturaten da. Jainkoaren izaera pertsonala sinbolikoa del adio. Erlijio razionalaren alde egiten du. Lege natural perfektionatu gisa ikusten ditu lege naturalak. Erlijio ororentzako Jainko bakarra dagoela dio.

- Teodizeari kritika:

Tradizionalki: Jainkoa=ona, boteretsua, jakintsua. Hortaz, dena sortu eta gobernatzen badu, nola da posible injustizia?

Leibnizen teodizeari kritika sakona egiten dio. Aurka egiten dio filosofo horren gure mundua mundu posible guztietatik hobereena dela dien ideari.

“Bien” (bere hiztegi filosofikoan)= lege edo mundu fisikoari dagokionez onartu egiten du dena ondo dagoela. Baina giza kontuei dagokionez ez: gaixotasuna, goseteak, injustiziak, etab.

1755: Lisboako lurrikara. Zientzifikoki kalkulaturiko lehenbiziko lurrikara izan zen. Nola ulertu gertakari hau erlijioaren ikuspegitik? Voltaire: Jainkoa gaiztoa da, ez zaio axola hainbeste jentzade hiltzea.

Kontraesana: progresoan (hobekuntzan, ongirako bidean) sinesten du, arrazoimenaren garapenaren bidezkoa.

Historiaren filosofia:

- Ilustrazioaren izpiritua: progresoa. Sinetsi egiten du arrazoimenaren erabilerak progresoa dakarrela. Ilustrazio garaia progreso garai gisa ikusten du. Beraz, aurreko garai historikoak gutxietsi egiten ditu (bereziki Erdi Aroa).

- “Historiaren filosofia” kontzeptu bezala: historiaren teologia kritikatzeko du, historia ulertzeko modu tradizionala izan dena (Bossueten historiaren teologiaren aurka). Arrazoimenaren garapen gisa ulertu behar dira gertakari historikoak, Jainkoaren borondate gisa.

Despotismo ilustratua defendatzen du: Monarkia absolutuaren moldaketa bat da, Ilustrazioaren eduki arrazionalen bidezkoa.

- Historia vs Filosofia: historiari garrantzia eman zion lehenbizikoa izan arren filosofiaren menpean ulertzen du. Historiak gauzak erakusten ditu filosofiaren edukiak bailiran. Filosofiak ematen du benetako jakintza (gertakari historikoak filosofiaren epifaniak dira).

- Nazioen izpiritua: nazioaren genioa: aposteriorikoa da. Nazio bakoitzaren izaera biltzen duen ohitura, tradizio, ezaugarri, etab. multzoa da (Geist). Izpirituekin adierazi nahi duena: parte más sutil de la materia. Metafora gisa ulertu behar da.

ROUSSEAU, Jean-Jackes (1712-1778)

Bizitza:

- Humeren adinkidea.
- Ginebrakoa (Suiza). Gaztetan Parisera joan zen, baina ez zen inoiz ondo integratu.
- 1750: "Zientzia eta arteei buruzko diskurtsoa"
- 1762: "Emilio, edo hezkuntzaz" eta "Gizarte hitzarmena"

Hipotesia: gizakiaren natur-egoera askea da

- Ilustrazioaren progresoarekin gizaki naturalaren askatasuna galdu izana kritikatzeko du (zientziaren eta arteen bidez bereziki). Gizaki artifiziala ez du begi onez ikusten.
- Zientziarekiko oso kritikoa da. Giza bizioetatik eratorzen dela dio.
- Gizarteari kritika: Amour de soi (autoestima. Egoera naturalen nagusia. Kontzientzia) vs Amour propre (heteroestima. Artifiziala. Reputación. Itxurari ematen zaio garrantzia. Hau gordinean ikusten du Parisen).
- Gehiegizko arrazionalismoa kritikatzeko dio gizarteari.

Naturarako itzulera:

- Progresoa ez da gizartean emandako aurrerapenen multzoa Rousseuren arabera, baizik eta egoera naturalera edo jatorrira itzultzea.
- Nola da posible izaera natural hori berreskuratzea? Posible da gizartearen korrupzioaren historia bat egin daitekeelako eta, beraz, aurretiko egoerak existitu behar zuten.
- Hipotesi gisa planteatzen du egoera natural hori itzulera aldarrikatzeko. Egoera naturala irizpide **normatibo** abstraktu bezala uler daiteke, egoera artifiziala iraultzeko.

Helburua:

- Galdutako askatasuna berreskuratzea da helburua.
- Lehen esparrua: hezkuntza ("Emilio"). Hezkuntzak birproduzitu egiten ditu gizarteko arauak, ohiturak, etab. (kaltegarriak direnak giza naturarentzako).

Haurrak bere kabuz ikasi behar duela aldarrikatzen du (barrutik atera behar du formakuntzak; hezkuntzak bideratzen baino ez du lagundu behar). Hezkuntza negatiboa proposatzen du: trabak kendu behar zaizkio haurrari bideak irekita izan eta autogarapena ahalbidetzeko.

- Bigarren esparrua: gizartea/politika. "Hitzarmen soziala". Hemen ere hipotesi bat planteatzen du: gizakiak berez nolakoak diren irudikatuko du gizarte ordena justifikatuko duena. Naturaz askea dela defendatzen du. Kontratu sozialaren bidez galdu egiten du askatasun naturala, baina komunitate batean sartzen denean askatasun horren ekibalentea lortzen du eta, gainera, indar handiagoa lortzen du indibiduo bakoitzak daukana kontserbatzeko.

Trantsizio autorea da: Ilustrazioaren eta Erromantizismoaren tartekoa.

5. GAIA: KANT

Sarrera

Aurkezpen orokorra:

1) Bizitza:

- 1724-1804 (Königsberg).
 - Irakasle pribatua izan zen ikasketak amaitu eta lehenbiziko urtetan eta, ondoren, unibertsitatean sartzea lortu zuen.
 - Pietismoan hezia. Jaso zituen balioak: erakundearen aurka, autonomia, norbanakoaren garrantzia, etab.)
 - Unibertsitateko ikasketak: hebreoa, grekoa, latina, mate, poesia, filosofia, zientzia naturalak, etab. Oso pluralak.
 - 1755ean Unibertsitatean sartu zen irakasle laguntzaile bezala eta chico para todo bezala funtzionatzen zuen: geografia, mineralogia, mate, filo, etab irakasten zituen.
- 1770ean Metafisika eta Logika katedra eskuratu zuen.
- 1781: "Arrazoimen hutsaren kritika". Hemendik aurrera hasten da bere filosofia propioa garatzen.
- Pertsona berezia: razionaleria (sentimentalismoen, karitatearen, etab aurka.) eta oso metodikoa (ordua).
 - Iraultza Frantsesaz oso pendiente zegoen.

2) Kanten garrantzia:

- Ontofiliatik epistemofiliarako saltoa ematen da kantekin. Metafisika egitetik epistemologia egitera. Sujetua bilakatzen da ezagutzaren abiapuntu eta erdigunea. Razionalismoa eta enpirismoa lotu egiten ditu, baita Ilustrazio Frantsez eta Alemana ere.
- Kanten galkderak:
 - 1: Zer ezagutu dezaket?
 - 2: zer egin behar dut?

3: zer espero dezaket?

4: zer da gizakia?

Azkeneko galderak aurreko hirurak biltzen ditu, azkeneko hiruen erantzunak gizakia zer den zehazten baitute. Horregatik ez zuen azkeneko galderari buruzko obra idatzi.

3) kritizismoa:

- Gainditu nahi dituen eztabaidak: arrazionalismoa vs enpirismoa eta dogmatismoa vs eszeptizismoa

- 1. pausoa: Iraultza kopernikarra: fokua objektutik subjektura mugitzen du. Ontofiliatik epistemofiliara.

Ilusio metafisikoa=objektua bere baitan dela eta ezagutzen dugula pentsatzea (ontologia klasikoa)

Filosofia trszendentala= ezagutzeko modua aztertu behar da (epistemologia). Objektuak entendimendura egokitzen dira.

- Konponbidea: 1) Dogmatikoak. Alde: badago egiazko ezagutza. Aurka: ezin da gauza bere baitan ezagutu. 2) Eszeptikoak. Alde: ez dago gauzen ezagutza absoluturik. Aurka: posible da gauzak guretzat nola diren ezagutzea. 3) Arrazionalistak. Alde: apriorizko formarik gabe ezin da ezagutu. Aurka: forma horiek ez diote ezer errealitateari buruz. 4) Enpiristak. Alde: ezagutza oro esperientzian hasten da. Aurka: ezagutza guztia ez dator esperientziatik.

- Ateratzen duen ondorioa: proposizioak izan daitezke: 1) Apriorizkoak eta analitikoak 2) Aposteriorizkoak eta sintetikoak 3) Apriorizkoak eta sintetikoak

Garai prekritikoa (1781 arte):

1746-55: jauntxo dirudunen etxeetan irakasle pribatua.

Razionalismoari hainbat kritika egin zizkion: 1) Espazioa: res extensa den ideiarene aurka eta Newtonengan oinarrituz espazioa objektuen aurretikoa den ideiarene defentsa. 2) Kausa eta arrazoiaren bereizketa (errealitatea eta logikaren bereizketa; existentziaren eta predikatuaren bereizketa).

1755-70: "chico para todo" unibertsitatean.

1771-81: 71n Logika eta Metafisika katedra.

1764-66: Hume eta Rousseauren obrak sakontzen hasten da. "Hume izan zen lokuluxka dogmatikotik esnatu ninduen lehenbizikoa". "Rousseau me ha abierto los ojos (etikari)". Printzipio moralak barrukoak direla ikusten du Roussearengan.

1769-70: argi handi bat ikusten du: giza ezagutza beti da aktiboa, subjektuaren menoko delako (adib: non daude paralelo eta meridioak?). Espazioa eta denbora forma idealak eta subjektuaren menpekoak direla deskubritzen du.

Garai kritikoa (1781etik...)

- Garai prekritikotik kritikora igarotzea=ontofiliatik epistemofiliara igarotzea.

- Obrak:

1) "Arrazoimen hutsaren (teorikoaren) kritika".

- 1781, 1783an "Prolegomenoak" izeneko laburpena, 1787

- Naturarekin lotua: "Leyes de lo q es"

2) "Arrazoimen /huts) praktikoaren kritika"

- 1785ean "Ohituren metafisika"; 1788

- Metafisika=ezagutza. Metafisika egitea= printzipio moralen ezagutza bilatzea. Ohituren bidez moralari/etikari egiten dio erreferentzia. "Leyes de lo q debe ser".

- Arazoa: nola lotu giza askatasuna eta legeen beharrezkotasuna? Barruan begiratuta norberak badaki zer egin behar duen, baina askeak gara legeak jarraitu ala ez jarraitzeko.

Formalki definitzen du lege moral gorena/inperatibo kategorikoa: "Joka ezazu zure jokabidearen maxima lege orokor/unibertsal bilakatzea nahi bazenu bezala"

"ARRAZOIMEN HUTSAREN KRITIKA": ideia orokorrak

- Baconen zita batekin hasten da. Baconen jarraitzaile gisa ikusten du Kantek bere burua).

- Metafisika berri bat proposatzen du: filosofia trszendentala (zentzu klasikoak ez da posible metafisika egitea, gehiegi zentratu delako objektuan eta gutxiegi subjektuan). Metafisika posible izango sa subjektua aztertzen den heinean.

- **Iraultza kopernikarra:** subjektua zentruan jartzen du objektuaren ordez. Objektua izango da geure ezagutza ahalmenara egokituko dena. Kontzeptuak ez dira objektuaren araberrakoak, baizik eta objektuak . Gauzez apriori ezagutzen duguna guk objektuan ezarritakoa baino ez da. Honela gerturatzen zaio arrazoimena izadiari: esku batean printzipioak dituela eta bestean asmatuiko printzipioen menpeko esperimntua duela eta izadia erantzunak ematera behartzen dugu.

Russell: hobe da kontra-iraultza ptolomeikoa deitzea iraultza kopernikarra deitzea baino, gizakia erdigunean jartzen baitu.

- Apriorizko judizio sintetikoak:

- Ezaugarriak: unibertsalak eta beharrezkoak dira (apriori). Ezagutza berria eskaintzen dute (sintetiko). Adib: bi punturen arteko distantziarik motzena bi puntuak lotzen dituen zuzena da.

- Apriori analitikoak (gorputz orok du hedadura) eta aposteriori sintetikoak (gorputz orok du pisua) argiakoak dira

- Ezagutza=giza ezagutza. Soilik gizakiak ezagutzen duen moduz hitz egin deakegu.

- FITXA:

- Judizio analitikoak edo azalpen judizioak: predikatuak ez dio ezer berririk subjektuari buruz; subjektuak bildu egiten du predikatua.

- Judizio sintetikoak edo hedapen judizioak: predikatuak informazio berria ematen du subjektuari buruz.

ESTETIKA TRASZENDENTALA

- Aztergaia: ezagutza sentsiblea (enpirikoa, zentzumenen bidezkoa).

- Ezagutza oro esperientzian hasi arren (intuizio sentsible enpirikoa: materia), ezagutza guztia ez dator esperientziaz (intuizio sentsible hutsa: formak: denbora eta espazioa). Enpirismoa+arrazionalismoa.

- Espazioa/denbora: apriorizko formak intuizioaren formak dira. Dena kanpotik etortzen bada ezagutzan (materia), ezagutza ez da inola ere ziurra. Apriorizko formei esker da posible ezagutza ziur bat edukitzea. Egiturak dira, hutsa, edukirik gabeak beraien baita.

- Materia+intuizioaren formak=fenomenoa (objektuaren aurretikoa, pre-ezagutza bezala deskriba daiteke). Fenomenoan dagoeneko subjektuak zerbait gehitzen dio ezagutzaren objektua izango denari.

- Ondorioak:

- Matematikaren posibilitatea. Geometria espazioari esker da posiblea eta aljebra posible da denboraren formari esker.

- Subjektuaren garrantzia berritua: subjektu traszendentala bezala definitzen du: ezagutzeko gai den pentsalaria. Kandela batekin aldera daiteke: objektuak bere argian sartzan diren heinean dira ikusgarriak (argia=formen metafora)

ANALITIKA TRASZENDENTALA:

- Ezagutza: intelektuala=sentsibilitatea (ezagutza fenomenikoa)+adimena
- Ezagutzan bi elementu daude= emana den objektua (ez dena guztiz emana, intuizioen formaren filtroa pasa duelako) eta entendimendua (kategoriak eta printzipioak)
- Kanpo objektuek inpresio bat uzten dute guregan eta inpresio horien gainean gauzatzen dugu ezagutza.
- Intuición: modo en el que somos afectados por el objeto. Entendimiento: el poder de pensar el objeto de la intuición sensible.
- Los pensamientos sin contenido son vacíos, las intuiciones sin conceptos son ciegas. Solo de su unión puede salir el conocimiento. La intuición sensible no es todavía conocimiento.
- Kategoriak:
 - Kantitatearen arabera: osotasuna, pluraltasuna, unitatea
 - Kualitatearen arabera: errealitatea, negazioa, limitazioa
 - Erlazioaren arabera: substantzia, kausalitatea, acción recíproca (disyuntiva)
 - Moduaren arabera: posibilitatea, existentzia, beharrezkotasuna
- Ondorioak: empirismoa (sentsibilitatea)+arrazionalismoa (kategoriak eta printzipioak). Idealismo peculiar: oreka mantentzen du subjektuaren eta objektuaren artean metafisika egitea posible dela mantenduz.

DIALEKTIKA TRASZENDENTALA:

- Esperientziaz ahazten da eta ezagutzatik kanpo geratzen da dialektika traszendentaleko pentsamendua. Ideia traszentalak ez dira errealitate traszendenteak. Errealitateak direla pentsatzea=ilusio traszendentala.
- “Arrazoiari mugak jarri behar dizkiot fedeari tarteaz uzteko”.
- Postulatuak (ni-a, mundua, Jainkoa) Platonen ideiak ekartzen dituzte gogora.
- Ezagutza adimeneraino iristen da, baino filosofia traszendentealak egitura guztia hartzen du.
- Metafisika klasikoari kritika: orokorrean traszendentala dena errealitatea traszendentea dela kontsideratzea kritikatzeko du.

1) Ni-aren ideia: nik pentsatzen dut, beraz, ni substantzia bat naiz pentsatzea izan da joera orokorra. Psikologia arrazionala deitzen dio honi. Salto hori ez da posiblea. Ez du ukatzen, baina ezin da frogatu, baizik eta postulatu edo suposatu. Psikologia arrazionalak hemendik ondorioztatu du substantzia simple, hilezkor eta inmaterialaren izaera.

2) Munduaren ideia: dena orden batean dagoela aurreuposatu izan da tradizionalki zientzia egiteko. Kosmologia arrazionala deitzen dio honi. Ordena ezin da frogatu, postulatu baizik. Arrazoimenak erabilera erregulatiboa du eta ez, ordea, konstitutiboa.

3) Jainkoa: ideia eta ideal bat da Jainko perezkoa (teologia arrazionala). Ideala izateak kutsu teleologikoa ematen dio. "El ser supremo es tan improbable como irrefutable". Fitxan Jainkoaren existentziaren Anselmoren argumentuaren aurka (kontzeptua eta errealtatearen arteko bereizketa Kantentatik).

METODOAREN TEORIA TRAZZENDENTALA:

- Obraren bigarren atala da (oso laburra)
- Hainbat kritika eta argipen egiten ditu.
- Arrazoimenaren erabilera okerra kritikatzeko du: eszeptizismoa eta dogmatismoa kritikatzeko du.
- Arrazoimenak aporteratu behar duena azaltzen du eta aporterazioa erabilera praktikokoan izan behar da, espekulazioan ez duelako ziurtasunik eusten.
- Filoren sistema arkitektonikoki eraikia dagoela baieztatzen du, arrazoi hutsaren prespektiba historiko bat emanez.

6. GAIA: IDEALISMOA

Sarrera:

- Kontzeptua:

- Hitza:

-Idea eidosetik dator. Bi adiera: ikusteko modua eta agertzeko modua. Ikusteko modua subjektuari lotzen zaio eta agertzeko modua objektuari. Idealismoa ikusteko moduari lotuko zaio gehiago.

- Ikuspegi logikoa: ideia=entitate kontzeptuala.

Ikuspegi psikologikoa: ideia=entitate mentala

Ikuspegi metafisikoa: ideia=entitate erreala.

- Objektuak idealak edo errealak izan daitezke. Errealitatea enpirikoa edo ideala izan daiteke. Bi bereizketa horiek zailak dira ezkontzeko haien artean.

- Antzinaroan ikuspegi metafisikoa nagusitzen da. Erdi Aroan eztabaida nominalista eta errealisten artean. Descartes: Lockerekin alderatuz errealistagoa da (res). Enpirismoa ikuspegi kontzeptualera gerturaten da.

- Idealak/idealismoa: Platon idealista da: ideia=erreala edo ideia=errealitatea. Kant: Jainkoa=ideala. Ideia baino gehiago da, giza ekintzaren iparrorratza delako.

- Idealismoaren gakoak:

- Abiapuntua: subjektua. Barne mundua da abiapuntua kanpo mundua baino (nia, kontzientzia, izpiritua, arima, adimena). Aurretik aipaturiko ikusteko moduarekin dago loturik. Barne mundua kanpoko munduaren errepresentazio gisa ulertu behar da: gauzak gizaki moduan ikusten ditugu.

- Ezagutza geuk sortua da? Subjektuak berak sortutako objektua ezagutzen du (Kant muturreraino eramaten dute idelistek, S eta O-ren arteko oreka erabat apurtuz).

- Arrazionalismo eta idealismoaren lotua (Descartes...Kant...Hegel?). Kant: badago noumenoa, nahiz eta hari buruz ezin den ezer esan. Idealistak: fenomenoan geratzen bagara, ezin da benetako ezagutza lortu. Noumenoa baztertu egiten dute. Dena denez subjektuak sortua, benetako ezagutza lor daiteke ezer kanpoan utzi gabe.

- Fitxa: Colomer.

- Idealismo alemana testuinguru jakin batean garatzen da: kultura garapen oso handia dagoenean garatzen da.

- Materialismoa da idealismoaren etsai nagusia.

- Kantetik abiatzen dira, baina Kanten aurka eginez.

- Autoreak:

1) Fichte: idealismo subjektiboa. Garrantzia handia ematen dio subjektuari. Objektua subjektuaren emaitza gisa ulertzen du. "Ekintzaren filosofia". Ni (el yo): S eta O-z baino, yo y el no yo-ri buruz hitz egiten du. Ateoa da.

2) Schelling: Fichteren jarraitzailea zen, baina beste modu batera garatu zuen bere filosofia: idealismo objektiboa. Ni-tik kanpo badago kanpo mundu bat, nahiz eta amorfoa izan geuretzako. Aintzat hartu behar da O, nahiz eta S-k bere jarduera egin ondoren ezagutzen duen. "Panteismo erromantikoa".

3) Hegel: idealismo absolutua. Bateratu egin behar da metafisika tradizionala eta filosofia traszendentala. Panlogismoa: Pentsamendua-Egia-Izatea. Gazau bera edo korrelatiboak direla frogatu nahi du. Errealitatea eta pentsamendua eskema beraren barnean daudela frogatu nahi du.

FICHTE, J.G. (1762-1814)

Bizitza:

- Familia pobreakoa, baserritarren semea.

- Igandeko meza batean jauntxo bat berandu iritsi zen eta Fichtek sermoi osoa errepikatu zion hitzez hitz. Jauntxoak ikasketak ordaindu omen zizkion genio bat zelakoa.

- Besteak beste, filosofia, zuzenbidea eta teologia ikasi zituen unibertsitatean.

-Jenara irakasle joan aurretik Kanten APK irakurri zuen eta miresturik geratu zen. Nolabaiteko segida bat idatzi zuen eta Kanti bisita egin zion testuarekin. Kant liluraturik geratu zen eta bere editore berarekin testua argitaratzeko proposatu zion eta honek onartu. Anonimoki argitaratu zen eta jendeak Kanten testua zela pentsatu zuen (garai hartarako fama handia zuen Kantek).

- Jenako unian irakasle izan zen eta 1798an bota egin zuten eta Berlinera mugitu zen errektore.

- 1792: "Ensayo sobre la crítica de toda rebelación"

1794: "Fundamentos de la doctrina de la ciencia"

17808: "Discursos a la nación alemana"

- Aktibista teoriko gisa defini daiteke. Iraultza sozialaren aldarrikatzailea da, baina maila teoriko batean.

Lehen filosofia: 1798 arte

- 1798an Jenako unibertsitatetik kanporatu zuten. Geroztik ezberdin hasi zen jarduten filosofian.

- Nol aezkondu beharra (fisikoa, naturala) eta askatasuna? Hau da, nola lotu subjektua eta objektua?

Kantek Oreka mantendu nahi izan zuen S eta O aztertu zituenean. Fichtek balantza desorekatu egingo du S-ren aldera. Objektuak, beharrak, determinismoa suposatzen du.

S: askatasuna. Ni

O: determinismoa, beharra, Spinoza, fatalismoa. Ez-ni

- Abiapuntua: Kant eta Iraultza Frantsesa. Kantek bere filosofia objektuan abiatu (AHK) eta praktikara igaro zen (APK).

Fichte: dogmatikoegia da, S noumenoaren menpe uzten duelako. Giza askatasunari indar handiagoa ematen dio Kantek baino.

- Iraultza frantsesa: bi gizaki daude: askatasunaren aldekoa eta ez aldekoa (ez dago erdibidekorik)

Tesia: egoera natural askea

Antitesia: Monarkia absolutua

Sintesia: Iraultza

- Inperatibo kategorikoa ez da hain teorikoa, soziala da. Iraultza bultzatzeko da inperatiboa (praktikari indarra). Idealismo oso praktikoa garatzen du Fichtek.

- Arrazoi teorikoa+arrazoi praktikoa:

- Subjektua dena da. "Nik pentsatzen dut" ordez "Nik jarduten dut" baieztatzen du. Horrela bazterten du noumenoaren dogma kontzientziari indarra emanez. Askatasuna ematen dio gizakiari noumenoa gizakiaren jardueraren produktu gisa kontsideratzean.

- Ni-aren dialektika:

Tesia: Nik jarduten dut

Antitesia: Nia eta Ez-nia konfrontatu egiten dira.

Sintesia: batasun orokorra. FITXA

Bigarren filosofia: 1798tik aurrera.

- 1798an: "Sobre el fundamento de nuestra fe en el gobierno divino del mundo". Jainkoa=egitura morala. Despersonalizatze honek arazoak ekarri zizkion.

- 1782: Jacobi eta Mendelssohn: eztabaidan sartu ziren Lessingen filosofiaren inguruan. J: atea eta Spinozista da. M: erlijioa ulertzeko beste modu bat da. Panteismoa ateismoa da? J: bai. M: ez.

Fichte: oso probokatzailerak zen bere pentsamendua. Sokratesen antzera kritikatu zuten. Erantzun gogorak eman zituen Jainkoaren ideia tradizionalaren aurka. Unibertsitatea gobernuaren menpe zegoen eta bota egin zuten. Bere tokian Schelling jarri zuten. Berlinera joan zen giro liberalagoa omen zegoelako.

- Bere filosofiak kutsu erlijiosoagoa hartzen du etapa honetan. O eta S-ren gainetik dauden ni absolutuaren gainetik Jainko absolutua kokatzen du.

SCHELLING, F.W.J. (1775-1854)

Bizitza:

- Idealista erromantikoena da.

- Fichte bota ondoren, Schelling jarri zuten bere tokian Jenako unibertsitatean eta, ondoren, Hegel Schellingekin tokian. Katedra berdinean egon ziren hirurak (Berlinen ere bai).

Berlinen errektore izan ziren hirurak: Fichte, Hegel eta, azkenik, Schelling. Azkeneko hau "para combatir el veneno panteísta de Hegel".

- 1797: "Ideas para una filosofía de la naturaleza". S=espiritua. O=natura. Fichteren egozentrismoa aldatu egiten da.

-1800: "Sistema del idealismo trascendental". Obra gorena.

- 1804: "Filosofía y religión". Aldaketa suposatzen du bere filosofia.

Lehen filosofia: 1804 arte

- Abiapuntua: Fichteren kritikak eta kontra aldi berean.

Nola lotu S eta O? Fichterekin ez goaz inora, S absolutizatzen duelako. Filosofia tradizionalak O absolutizatu du. Bi bideak dira okerrak dira.

- Non dago absolutua? Ni purua da, baina objektuari garrantzia eman behar zaio. Autoafirmazioa naturan gertatzen da. Beraz, badago gizakiarengandik kanpo mundu bat, nahiz eta gizakiarentzako amorfoa izan.

S=espirtua=natura ikusezina

Objektua= natura= espirtu bisiblea

Bi zentzutan garatzen du filosofia:

1) Subjektotik objektura: filosofia trszendentala edo trans subjektibitatea

2) Alderantzizko norantza: filosofia naturala edo trans-objektiboa.

- Garapena: filosofiaren hiru pausu nagusiak:

1) Naturaren filosofia: naturatik espirtura. Naturak giza forma nola hartzen duen azaltzen du (Kanten fenomeno gutxi gora-behera). Natura naturatik natura naturansera

2) Filosofia trszendentala: espirtutik naturara. Batasunetik aniztasunera. Kanten fenomenoaren kontzeptualizazioa. Natura naturansetik natura naturatara.

3) Identitatearen filosofia. Absolutua: dena bat dela ohartzea. Hau da, Espirituak eta Naturak osotasun bat osatzen dutela onartzea.

FITXA

Bigarren filosofia: 1804tik aurrera:

- Pentsamenduan mozketak bat ematen da. Arrazoi ezberdinak daude. Fichteren ordezkari izan zen Jenan 1797-1804 bitartean. Schlegel izeneko Jenako irakasle baten emazte ohiarekin ezkondu egin zen Schelling eta iskanbilak sortu ziren. 1807an Hegelek bere obra argitaratu eta fama kentzen dio Schellingi. 1809an emazte ahiltzen zaio. Urte berean Boehme mistikoaren obra irakurtzen du. Gertakizun guzti horiengatik aldatu egin nahi du bere filosofia.

- Abiapuntua: aurrekoarekiko haustura.

- 1804: "Filosofia eta erlijioa". Boehmeren eragina du. Arrazionalismo muturrekoari aurre egiten dio. Panteismotik erlijiotasun "normalago" batera igarotzen da nolabait.

Pentsamendua (zer da x? Esentzia) vs Izatea (Zerbait bada? Existentzia).

- 1809: giza askatasuna.

- 1813-15: "Edades del mundo"

- Garapena: azken filosofia. 1831tik aurrera.

- 1831: Hegel hil zen urtea.

- Hegelen aurkako filosofia bezala uler daiteke urte hauetako filosofia., baita idealismoaren aurkakoa ere. Erljio mistikoago baten alde egiten du ere.

Pentsamendua (Esentzia, posibilitatea, kontzeptua) vs Izatea (existentzia, errealitatea, gertakaria). Hegelek pentsamenduari indar gehiegi eman diola kritikatzan du eta izatea alde batera utzi duela. Schellingon ondorioa: 1) Pentsamendua soilik=filosofia negatiboa eta arrazionala 2) Izatea=filosofia positiboa eta irrazionala.

Izatearen defentsa=giza askatasunaren defentsa. Hegel arrazionaleria eta logikoezia dela kritikatzan du.

1841: Berlingo unibertsitatean lanera katedradun gisa "para combatir el veneno panteista de Hegel".

HEGEL, 1770-1831

Bizitza:

- Funtzionari baten semea.
- Seminario luterano batean ikasi zuen. Klaseko azkarrena zen askorengatik.
- Hölderlinen eta Schellingon laguna.
- 1801-06: Jenan irakasle Schellingek lagunduta
- 1807-16: Nürenbergeko institutu batean zuzendari egon zen lanean. 1807an "Fenomenologia" argitaratzen du. 1812: "Logikaren zientzia".
- 1816-18: Heidelbergeko unibertsitatean irakasle
- 1818-31: Berlinen errektore egon zen lanean. Erregeak mugitu zuen hara lanera egoera iraultzailea baretzekotan.
- Oso tipo lasaia eta zentzuduna omen zen.
- Noumenoa arrazoiaren barnean sartu nahi zuen (hiperrazionalismoa). Dena arrazionalki esplikatzea posible dela uste du.

Hegelen pentsamenduaren bilakaera:

- Teologiatik filosofiara: eredu kristologikoa:
 - Erljioak diona: Jainkoa (kristo) Jesus moduan munduratzen da. Transzendentea imanente eta infinitua finitu bilakatzen dira. Ondorioz, Jainko transzendentea desagertu egin da. Dena bilduko duena (Kristo eta Jesus) absolutua da. Bide honetatik Jainkoaren heriotza aldarrikatzen du (Nietzsche baino lehen). Eskema hau bere filosofia sekularizatua garatzeko hartzen du. Eskema garatuz panteismo batera iristen da.

Hegelen filosofiaren sistema:

- Egitasmoa: subjektua+substantzia=absolutua.

Filosofiaren bi fase historiko nagusiak uztartu nahi ditu: subjektuaren eta objektuaren filosofia.

S: epistemologia/Fichte, Schelling/Nik pentsatzen dut/solipsismoa/Apariecia/ Finito

O: Metafisika/Aristoteles, Spinoza/Jainkoa/Dogmatismoa/Conocimiento imposible/ Infinito

Bi posizioak autoeskluyenteak dira.

Ondoiroa: korrelazioa dago pentsamenduare eta egiaren artean eta egiaren eta izatearen artean (Wittgensteinen isomorfiaren antza du).

- Metodoa: dialektika.

Historiaren garrantzia eta intersubjektibitatearen garrantzia azpimarratzen ditu metodo dialektikoan.

Afirmazioa+negazioa=progresoa.

Egiaz prozesu baten baitan baino ezin dugu hitz egin. Errealitatea eta kontzeptua ez dira inola ere rigidoak.

- Garapena: bi ibilbide

1) Behetik gora: "Espirituaren Fenomenologia". Absolutuaren despliega.

2) Goitik behera: "Zientziaren Logika".

Hegelen filosofia Berlinen (1818-31)

-Ez zuen gauza berri handirik egin.

- 1821: "Principios fundamentales de la filosofía del derecho"

- Zuzenbidearen filosofia: hausnarketa bat egiten du Zuzenbidearen eta Estatuaren inguruan.

- Zuzenbidea: condición y ámbito de la realización de la libertad.

- Estatua:realidad de la libertad concreta (monarkikoa da Hegel). "Lo que es real es racional y lo que es racional es real": Modu estatikoan ulertuta: reaccionario, eskuindarra. Modu dinamikoan ulertuta: aurrerakoia.

Estatua=prehistoriaren amaiera.

- Historiaren filosofia: "Lecciones sobre la filosofia de la historia universal".
 - Planteamendu kristau sekularizatua azaltzen du. Teodizea bat egiten du Jainkoa arrazoiarengatik ordezkatzuz.
 - Historiaren 3 faseak: Oriente (uno libre), Greazia eta Erroma (algunos son libres), Mundo Moderno (todos son libres).
 - Oriente da hasiera eta Europa Modernoa gailurra eta amaiera.
 - Tesia: libertad como objetivo.
 - Antiteseis: egoismos individuales.
 - Sintesis: Estado como realizacion de la libertad.
- Erliioaren filosofia: "Lecciones sobre la filosofia de la religion".
 - Kristautasuna benetako erlijio arrazionalizatu gisa aurkeztu nahi du (aurka Schleiermacherren mistizismoa).
 - Fedea=certeza de la relacion entre lo absoluto y la conciencia.
 - Erliio orientalak mistikoak. Judaismoa: teleologikoa. Kristautasuna: ontologikoa.

Postumos:

- Hegel hiltzean kokoteraino dago jendea berea bezalako sistema handiekin, errealitateak berdin jarraitzen duela ohartzen baita mundu osoa. Idealismoak gainbehera izan zuen.
- Hegelen aurkakoa: Schopenhauer. Kantera itzuli eta noumena borondatearekin berdintzen du. Feuerbach, Marx: progresoaren ideia hartzen dute, baina izpiritua materiarengatik ordezkatzuz.
- Nietzsche: jainkoaren heriotzaren ideiarekin jarraitzen du, baina irrazionalismoa aldarrikatzeko.

7. GAIA: ERROMANTIZISMOA

- KANT (filosofia praktikoari dagokionez): gizakia-askatasuna-erdigunea): bi garapen:
 - Idealismoa: askatasunaren idealizazioa, absolutua, metafisika berri bat, globalizazioa.
 - Erromantizismoa: askatasunaren errealizazioa, aniztasuna/erlatibitatea, humanismo berri bat, nazionalismoa

Sarrera:

- Kontzeptua:

- Hitza: "Roman"= frantsesez nobela. Erromantiko hitza Erroma izenetik dator. Romanire loqui vs Latine loqui. Romanire loqui kaleko hizkuntza zen eta hemendik eratortzen dira hizkuntza erromanikoak. Literatura erromantikoa hizkuntza horietan idatzi zen. Latine loqui goi-mailako hizkuntza akademikoa zen. Besteak beste, zientzia edo filosofia idazteko erabiltzen zen.

- 1780-1830: garai honetako produkzio kulturalarekin lotzen da erromantizismoa. Ilustrazioaren ondoren dator, baina ez haren aurka.

- XVIII-XIX tarteko aldaketak:

- Filo ilustratutik filo erromantikora (bigarrena ez doa lehenbizikoaren aurka). Garapen bezala uler daiteke aldaketa hau.

- Erromantizismo literariotik erromantizismo filosofikora. Literaturan du erredua filosofiak. Literatura horrek errealitatearen aurpegi tragikoari garrantzia ematen dio eta arrazoimenarekiko konfiantza txikia du.

- Frantzia: tradizio absolutista du. Askatasunak zentzu politikoa du. Alemanian: erromantizismoa Napoleonen aurka garatzen da, nazionalismo modura. Erromantizismoa bertan garatzen da askatasunaren kontzeptzio ezberdin batekin, askatasun politikoa baino zabalagoa eta erlatiboagoa.

- Giza alde irrazionalari presentzia handiagoa ematen dio erromantizismoak. Gehiegizko planteamendu arrazionalista baten aurka garatzen da. Ideia hauen aurka: galdera orok erantzuna du eta erantzunik ez badu, ez da galdera bat edo norbaitek noizbait erantzuna emango dio. Erantzun oro arrazionalki argumentatu daiteke eta, ondorioz, erakutsi egin daiteke. Kontraesan ezaren printzipioa. Soilik indukzioa eta dedukzioa; errebelazioa eta antzekorik ez. Fisika newtoniarra etika eta antzeko giza kontuetara eraman nahi dute. Ezagutza piramide gisa ikusten dute.

- Giza zientziak eta natur zientziak garai honetan hasten dira bereizten. Non kokatu edertasuna, ongia eta antzeko balio erlatiboak? Natur zientzietan ez, behintzat. Molde bakarraren ideia ez da posible giza-zientzietan.

- Erromantizismoa vs arrazionalismo muturrekoa: prozesua vs emaitza, formazioa (bildung) vs hezkuntza, irrazionala vs arrazionala, multiformea vs uniforme, ezkutukoa vs agerikoa, protestantea vs katolikoa.

- Alemania:

- Hemen hasi zen erromantizismoa.

- Ilustraziotik erromantizismora.

- Alemania politikoki eta kulturalki Frantzia baino azpigaratuagoa zegoen eta akonplejatuak zeuden. Pentsamendu frantsesaren aurka bezala uler daiteke

erromantizismo alemaniarraren garapena. Adib: itxurakeriaren aurka barneko garapenaren bidez.

- Hamann: "Arrazoimenak ezin du bizitzaren jarioa harrapatu. Kanten aurka esan zuen.

- Goethe 1774: "Werter": erromantizismoaren hasiera. Herderren ideia izan zen Frantziar literaturaren aurka, Erromatar eta Greziar ereduak kopiatzera mugatzen zena.

- Ingalaterra:

- Erromantizismo literario bat. Filosofiak baino indar handiagoa izan zuen literaturak.

- Hume: modernitatearen aurkako kritika bultzatu zuen.

- Arrazoimenetik urrunduriko literatura garatzen da.

- Frantzia:

- Erromantizismo berantiarra 1815 artea (Napoleonen restauraziora arte). Mme. Stäel eta Chatobriand dira azpimarratzekoak.

- 1815-48: Victor Hugo.

- Rousseau ilustratu oso erromanikoa zen.

HERDER (1744-1803)

Bizitza:

- Möhrungenekoa. Gaur egun Polonia; Prussia bere garaian.

- Kanten ikaslea izan zen, baina Kanten bere obra nagusiak argitaratu baino lehen. Kanti esker Hume eta Rousseau irakurri zituen (modernitatearen kritikoak).

- Hamannen laguna zen. Biak dira Kanten kritikoak: gizakia gehiegi abstraitzen duela kritikatzan diote eta horrela ezin dela gizakia bera bere egunerokoan aztertu.

- Apaiz protestatntea zen, baina funtzionari lanetan aritu zen.

Ilustrazioarekiko (benetako) haustura:

- 1771: "Hizkuntzaren jatorriari buruzko entseia"

- Hizkuntzari literaturari baino garrantzia handiagoa ematen dio (erromantikoak oso literatura zaleak ziren orokorrean).
 - Kritika: irizpide bakar baten arabera ebaluatu nahi da toki guztietako literatura. Kultura eta hizkuntzaz interesatzen hasten da Herder hortik aurrera, pentsamendu kontzeptualegi eta teorikoegiak baztertuz.
 - "Pertenenencia": gizakiak bere izaera hizkuntzaren bidez garatzen du, baina hizkuntza herri batena da (ez da kontu indibiduala). Herriaren espresio artistiko guztiei ematen die garrantzia. Herder nazio guztien nazionalista da: herri bakoitzak bere modura garatzen du bere izaera.
 - Hizkuntza gizakiari naturala zaio. Hizkuntzak gizakia gizaki gisa garatzen du eta herri bat talde bezala garatzen du.
 - 1774: "Baita ere historiaren filosofia bat gizadiaren formaziorako"
 - Herriaren historia aldarrikatzen du erregeen edo pertsonaia "gorenen" historiaren orde. Ondorioetako bat: Grimm anaiak Alemania osoko literatura herrikoa bildu zuten benetako herri izaera biltzeko.
 - Formazioa: bildung, paideia.

Hezkuntza: irakaskuntza, didaktika.

Benetako garapena barrutik dator, formaziotik. Hezkuntza baliabide bat izan daiteke, baina formazioa da zentrala.

 - Progresoak: terminoak suposatzen du atzekoa azpigaratua dela. Aurka egiten dio ideia honi: historia ez da lineala eta zuzenean garapenera doana. Inork ez du irizpidea historiako une ezberdinak baloratzeko. Gauza bakoitza bere testuinguru historikoan ulertu behar da.
 - 1784, 85, 87, 91: aurreko obretako ideiak garatu egiten ditu lau tomatan. Izenburua: "Gizadiaren historiaren filosofiarako ideiak". Ezin da progresoaz, kultura primitiboaz edo bigarren mailako hizkuntzez hitz egin. "Pueblos sin cultura" bezalakoak ez ditu onartzen. Hau ilustrazioari eginiko kritika da.
- Hegelen aurka: Estatua ez da gailurra eta herria herri da Estaturik gabe ere.
- 1784: Montesquieren garapena. Gizakia bere ingurunean ulertu behar da (ingurune fisikoak ere garrantzia du).
 - 85: contra los ilustrados que desprecian los primitivos.
 - 87, 91: herrien historia egiten du (ez Estatuarena). Ez dio frontera politikoari erreparatzen. Historian zeharreko herriak aztertzen ditu: Baskoiak besteak beste.
 - 1799: "Arrazoimen hutsaren metakritika": kanti eginiko kritika da. Kant= puro juego de palabras, psicologismo desorientado, mounstrosidad linguistika.
 - Volksgeist: herriaren izpiritua. Ez zuen hitza inoiz erabili, nahiz eta bereri egozten zaion. Hizkuntza bakoitza izaera propio batekin dago loturik.

SCHLEIERMACHER (1768-1834)

Bizitza:

- Breslabiakoa, gaur egungo Polonian eta Prussia bere garaian.
- Apaiz protestantea, baina mundu akademikoan aritu zen laneanb.
- Platonen elkarrizketa guztiak alemanera itzuli zituen.
- Berlingo Unibertsitateko Teologia fakultateko dekanoa izan zen hil arte.
- Hegelen oso aurkakoa, erlijio kontuetan bereziki.

Erljioaren filosofia:

- 1799an argitaratu zuen erlijioari buruzko testu nagusia.
- Abiapuntua: pentsamendua vs izatea. Nola lotu ezagutza errealitatearekin (izipiritua eta natura; ni eta ez-ni)? Erantzun erlijioso bat ematen dio, argudiaketa sentimentalean oinarriturik: infinitutasunean geure txikitasuna onartzea. Ezin da kontzeptualki azaldu eta itxi S eta O-ren arteko lotura.
- Erljioa: infinituaren aurrean menpekoak izatearen sentimendua izatea. Txikitasuna sentitzea. Ez da kontu moral edo metafisiko bat. Teologia liberal edo sinboliko bat garatzen du, ez dogmatikoa. Mendelssonen aldekoa da erlijioa ikusteko moduan.
- Humanismoa: gizakiaren abstrakzioari baino, konkretzioari erreparatzen dio. Posible da Jainkorik gabeko erlijioa hobea izatea. Onartu egiten du erlijio aniztasuna; are gehiago; ateismoa ere onartzen du (txikitasunaren kontzientzia eduki dezakeelako ateo batek ere).

Hermeneutika filosofikoa:

- Hermes=merkurio jainkoa. Zeusen mezularia zen. Gizakiei igortzen zizkien Zeusek bidalitako mezuak. Arazoa: ondo ulertu du mezua Hermesek? Ondo igorri die gizakiei mezua eta, aldi berean, hauek ondo ulertu al dute?.
- Heidegger: filosofia hermeneutika da. Nietzsche: hermeneutikaren aita bat dela esan daiteke. "No existen hechos, solo interpretaciones".
- Testuen interpretazioa: betidanik egin izan da. Schleiermacherren lehenbiziko pertsonan bizi izan zuen: nola itzuli duela 2000 urteko Platonen testu bat bere garaian ulertu ahal izateko?
- Hermeneutika erromantikoa/historizista: ez du soilik testu idatziez jarduten. Hizkuntza azaltzen den guztietan eta forma guztietan hermeneutikaren beharra azaltzen da.
- Hermeneutika filosofikoa:

Heidegger: "Filosofia de la facticidad": filosofia hermeneutika dela esatetik, giza kontu oro hermeneutikoa dela esatera iristen da.

Gadamer: dena da interpretazioa. Interpretazio arazoak giza zientzietan sortzen ditu bereziki; interpretazioak ez dirudi hain problematikoa natur zientzien kasuan.

- Hermeneutika v erretorika:

Hermeneutika: nola esan-etik zer esan-era/ezin gara itxurarekin konformatu. Adierazpen batekin zer esan nahi den argitzea da hermeneutika/berreraiketa prozesu bat da/autore bat autoreak bere burua ulertu duen modua baino hobeto ulertzea da hermeneutikaren helburua.

Erretorika: zer esan-etik nola esan-era. Ondo hitz egiteko zientzia da.

- Schleiermacherrek bi interpretazio esparru bereizten ditu:

1) Gramatikala

2) Psikologikoa. Bietan dago hizkuntza: 1 zer esaten den eta 2 zer esan nahi den.

- Interpretatu=ulertu: ez dugu ezer ulertzen interpretatu gabe. Kronologikoki interpretatu egin behar da objektiboki, ondoren subjektiboki ulertzko. Ideia honen aurka dago: dena subjektiboa da

- Zirkulu hermeneutikoa: osotasuna vs atala/banakoa. Banako atalak hartu behar dira kontuan osotasuna ulertu ahal izateko, baita alderantziz ere (zuhaitza eta basoa).

VON HUMBOLDT, WILHELM (1767-1835)

Bizitza:

- Ilustrazioaren eta erromantizismoaren artekoa da.

- Potsdamen jaio eta Tegelen hil.

- Familia dirudunekoa eta anaiarekin formazio ilustratua jaso zuen. Zuzenbidea, filologia eta Kanten filosofia ikasi zituen Campe ilustratu famatua irakasle zutela.

- Schiller eta Goetheren laguna.

- Ekarpinak:

1) Antropo filosofikoa: zer da eta zer izan daiteke gizakia? Humanista: prozesu gisa ikusten du gizakia.

2) Politika: teoria: Estatuaren teoria. Hezkuntza ministro antzekoa izan zen: Berligo unibertsitatea sortu zuen.

3) Hizkuntzalaritza: hizkuntzare filosofia eta zientzia garatu zituen. Euskal esperientzia: garrantzia du, antropologian hizkuntza garatuko baitu hortik aurrera.

Antropologia filosofikoa:

- Humanismo berria eta Bildung delakoa.

1) Gizabanakoak antropologiako aztergai bezala. Kanten gabeziak: gizakia purutasunean aztertzena izaten da. Aurka: gizakia ez da entelekia bat. Indibidualtasunean ulertu behar da. Abstraiturik baino, konkretioan aztertu behar da. Baldintza espazio-tenporalek garrantzia dute gizakia aztertzeko. Historizismoaren aldekoa da.

2) Gizakia ezagutzetik gizakia humanizatzerara (ulertzerara): "zer ezagutu?" baino "zertarako ezagutu?". Esentzialki zer den baino, nola garatu daitekeen galdetzen du. Gizakiaren errealitatea idealizatu egiten du eta giza-ideala errealizatu nahi du. Izaera teleologikoa: gizakiak helburuak ditu eta haiei begira garatzen da.

3) Antropologia eta konparazioa: konparazioa eabiliko du metodo gisa. Ez dago patroik finkorik. Konparazio bidez ezagutu behar da. Helburua ez da ezagutza finko eta absolutu bat: ulertu egin behar da unean-unean. Imaginazioari garrantzia ematen dio (Kanten postulatuetan ere oso garrantzitsuak dira Kanten filosofian): enpiria eta filosofia edo idealak lotzeko ezinbestekoa da imaginazioa.

- EHra bidaiak: estandarrak ez ziren kulturak aztertu nahi zituen. EHra etorri zen gizadiaren manifestazio ezberdinak aztertzeko asmoz. Lehen bidaia Espainiara egin zuen eta bigarrena soilik EHra.

EHri buruzko monografia bat egiteko asmoa izan arren, ez zuen proiektua aurrera eramanez. Bidai-oharrak utzi zituen: ohar etnografikoak (fisionomia, herri kultura, historia politikoa), eta ohar etimologikoak (esukal hizkuntzari buruz)

Monografiarako egitasmoa: antropologia konparaturako oso interesgarria da EH. Euskaldunak muga politikoei erreparatu gabe aztertu nahi ditu.

- Euskal nazioa erreferentzia nagusi bezala:

1) Euskal nazioa=euskal hizkuntza komunitatea. Nazioa= kontzeptu lingüistiko-kultural-antropologikoa. Nazioa ez du politikoki ulertzen. Euskara hizkuntza nazionala da. Euskal nazioa=euskara hitz egiten duten hiztunen komunitatea.

2) "Die Vasken": V vs B. Euskaldun guztiak bilduko dituen kontzeptu bat sortu nahi du. Bere garaian erabiltzen direnak partzialak dira: Biscayen hegoaldekoentzako eta Basques iparraldekoentzako. Modu politiko-estatalean erabiltzen dira. Ikuspegi horreatik urrundu eta V-z idazten du adiera antropologikoa bat emanez eta iparreko nahiz hegoaldeko euskaldunak bilduz.

Hizkuntzaren filosofia:

- Euskal Herrira egindako bisitaren ondoren hizkuntzaren teoria antropologikoa egiten hasten da.

- Hizkuntzak interesgune antropologiko bezala:

1) Pentsamenduaren biraketa linguistikoa: gizakia aztertzeke hizkuntza esentzuala da. Gizakia abstrakzio batez den moduan, hizkuntza ere ez da abstrakzio bat (konkrezioan aztertu behar da.

Gizakia-nazioa-gizabanakoa

Hizkuntza-hizkuntza historikoa-hizketa ekintzak.

2) Euskaldunen garrantzia biraketa horretan: lehenbizikoz egiten du topo ia idatzia ez den hizkuntza batekin. Hizkuntzaren funtzio nagusia antropologikoa da: gizakia gizaki egitea. Antropologia konparatua hizkuntza konparatuaren bidez egiten du.

3) Hizkuntzaren teoriaren garapena. 1800-20: politikagintzarekin batera. 1820-35: buru belarri hizkuntzalaritzan, beste okupaziorik gabe.

- Hizkuntzaren aspektu filosofikoa:

1) Jatorria: nondik dator hizkuntza? = nondik dator gizakia?

2) Hizkuntzaren esentzia = gizakiaren esentzia. Gizaki soziala = gizaki linguistikoa. Esentziara ezin gara iritsi, baizik eta hurbildu; bi pauso: 1: ergon-energeia (produktua-energia; hizkuntza-hizketa), 2: pentsamendua-hizkuntza (beti pentsatzen dugu hizkuntzaren bidez)

3) Bitartekotza: hizkuntza gizakiaren eta munduaren arteko beste mundu bat da. Gizakiak hizkuntza du eta hizkuntzak gizakia. Hizkuntz-komunitatea = munduaren irudi edo ikuskera linguistikoa (muturreko ulerkera: hizkuntzaren arabera ikusten dugu mundua)

- Hizkuntzaren aspektu antropologikoa:

1) Hizkuntzaren izaera formatiboa: hizkuntzak gizakion garapena dakar (zientifikoa, intelektuala, etiko-moral-politikoa....)

2) Izaera soziala:

Hizkuntzaren bi aldeak: ekintza eta ulertzea. Posible da beti ez ulertzea.

3) Hizkuntzaren izaera nazionala: hizkuntza komunitate historikoetan baino ez da garatzen. Banakoa eta komunitatea bateratzen ditu.